Baiezta ahal dugu, zentzu horretan, Guatemala beldurraren laborategi baten antzeko zerbait izan zela zeinek ofizialak ziren errepresio metodo berriak

eta esperientzia beldurgarriak hobetzeko balio izan baitzuen, zein aholkulari estatubatuarrek ondoren kontinenteko gainerako ejertzitoei transmititu baitzizkieten. Ameriketako Eskola, Fort Gulick, Fort Benning eta Fort Leavenwort Estatu Batuetako ejertzitoaren trebakuntza-zentrotako batzuk izan ziren, non hurrengo urtetan beldur-sistema horietan milaka gazte ofizial latinoamerikar entrenatu baitziren.

Beldurraren laborategi horretan metatutako esperientziak transmititzeko modu osagarri bat, Estatu Batuek finantzatua eta aholkatua, Guatemalako soldaduak Txile, Argentina, Uruguay eta Brasilgo eskola militarretara bekadun bezala bidaltzea izan ahal izan zen.

Metodo horiekin 70eko hamarkadan Txile, Argentina, Uruguay, Bolivia eta Brasilen, beste herrialdeen artean eginiko aplikazio ia kalkatu eta sistematikoak, hala nola bere aberastea aholkularitza frantses eta italiarra oinarri bezala hartuta, Estatuko terrorismoaren esperientziaren garrantzia berrestea zilegi egiten du, zein aholkularitza estatubatuarren mendean, Guatemalako ejertzitora ekarri baitzuen hirurogeiko hamarkadaren bigarren erditik aurrera.

## **Condor-aren hasiera**

Stella Calloni-ren liburuan, Operación Cóndor, pacto criminal; La Jornada Edizioak, Ciudad de México 2001, baieztapen hauen ildotik hainbat datu interesgarri erregistratzen dira.

Bere liburuko 77 eta 78. orrietan, Calloni-k esaten du Perón-en Espainiako atzerriratzearen azkeneko atalean zehar, bere idazkari partikularrak, José López Rega beldurgarria, adiskidetasun bat jorratu zuela Madrilen Guatemalako Enbaxadaren agregatu militarrekin.

Agregatu hau Máximo Zepeda koronela zen, zeinek 1966tik aurrera Guatemalan heriotzaren eskadroiekin lehenengo mailako papera jokatu baitzuen. Ignacio González Janzen kazetari nahiz idazle argentinarraren ikerketetan oinarrituta, zein La Triple A, Stella Calloni bere liburuan baitatzo, horrela dio hitzez hitz:

López Rega-k Madriletik ekarri zituen kontaktuen artean, bat giltza da: Espainian enbaxadore bezala zegoen Robert Hill estatubatuarrekin zuen adiskidetasuna, zein Jacobo Arbenz lehendakariaren gobernu herrikoia

kentzeko Dwight Eisenhower lehendakariaren administrazioan zehar Guatemalaren aurkako inbasioan aktiboki parte hartu zuen politikoenpresarietako bat'. Honek halaber Guatemalako Heriotzaren Eskuadroietako buruek eskualdeko bere pareekin zituzten harreman onak azaltzen ditu. Hill-ekin primerako harremana zuen.

Hill-ek bere laguntzailetako bat esleitu zuen López Rega-rekin etengabeko harremana mantentzeko eta bien arteko topaketak ohikoak ziren Ritz hoteleko tabernan. Han izan ziren elkarri aurkeztuak López Rega eta Máximo Zepeda Guatemalako koronela, 'Nueva Organización Anticomunista' (NOA) heriotzaren eskuadroia fundatzaile nahiz burua, zeinek herrialde horretan milaka biktima utzi baitzituen.

Bien interesak bat zetozen, bide ezberdinetatik, peronismoan infiltrazio marxista izendatzen zutenaren aurkako borrokan, eta orduan partidu horren barruan mugimendu aurrerakoi handi bat eta 'Los Montoneros'eko gerrilla sortu zen.

Zepeda ertamerikar eskualdeko hiltzaile ezagunenetako bat zen. Hirurogeigarren hamarkadan Guatemalan lehenengo desagertze masiboak gertatu ziren Latindar Amerikan, disidente talde bat herrialde horretan bahitua izan zenean...

Horrela Guatemala politika estatubatuarren esperimentazio-eremu bat izaten hasi zen, CIA-ren laborategi bilakatuz eskuineko terrorismoaren arloan milaka hildako eta desagertuen saldo batekin. Guatemalako banden oinarritzko erregistro bat zeinek mende laurden baten zehar jardun baitzuten, Esku Zuri ospetsutik abiatuta..., CIA-ko gizonak han izan zuten laborategi onaren berri ematen du. Guatemalaren estiloko eskuadroiak hainbat herrialdetan erreproduzitu ziren, esaterako El Salvador, non hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadan galdu baitziren.

Guatemalan burututako ikerketa bat, zeinetan giza eskubideetako hainbat organizaziok parte hartu baitzuten; GAM, Elkarri Laguntzeko Taldea, eta Giza Eskubidetako Ikerkuntzarako Nazioarteko Zentroa, zeinek datu hemerografikotan eta herrialdeko eskualde ezberdinetan desagertutako bizirik ateratakoiei nahiz hauen senideei eginiko elkarriketetan oinarritutako ikerketa zabal bat koordinatu baitzuten, 4.042 kasuko datu-base bat kopiatzea lortu zuen, gatazkaren 36 urteren zehar bortxatutako desagertzeei zegozkien izen eta abizenak zituzten kasuak.

Komunitate Etnikoen Kontseiluan beste hainbat organizazio egon ziren, Guatemalako Giza Eskubideen Uste Osoa, eta Guatemalako Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalan bildutako beste hainbat organismo, CONADEGUA, zeinek emaitza bezala datu-base ikaragarri hau eman baitzuten.

Izena eta abizena duten 4.042 dira, zeinek ohiko zifrei jarraiki, Guatemalan gutxi gora behera desagertutako guztien % 9 eta 10en artekoa inplikatzeko baitu. Hau da, esan genezake herrialdeko bortxatutako desagertze-fenomenoaren lagin nahiko adierazlea dela.

Guatemalako kasuan nabarmendu beharreko auzi nagusienetakoa, kolonbiarraren aldean kasu ezberdina dela da, non ikusi ahal dugu sektore ezberdinek, egile ezberdinek, zein ez baitira ezinbestean estatukoak, indarkerian parte hartu zutela ala parte hartzen dutela.

Guatemalaren kasuan bi demonioen teoria, zeinen arabera gerrilla eta estatua izan baitziren, bakoitza bere aldetik, maila berdineko errudunak giza eskubideen bortxakeriei dagokienean, ez da oinarritzen C.E.H.-ko, Argitze Historikoaren Batzordea, eta Guatemalako artzapezpikutzako GG.EE.-tako Batzordeak zehaztea lortu duten zifrak direnetan.

Guatemalan exekutatu nahiz desagertuen zifretako % 85 eta 90 artekoa gobernu eta estatuko organismo ezberdinen obra izan zirela estimatzen da.

Desagertzeen datuek adierazten dutenez, gutxi gorabehera herrialdeko desagertze bortxatuari buruzko esleipenen % 61k gizon ezezagunen taldeari dagokio. Eta Guatemalan gizon ezezaguna terminoak adierazten duena zera da, desagertze bortxatua bereziki heriotzaren eskuadroiek, 60. hamarkadan 'La Mano Blanca' (Esku zuria) izendatu ziren organizazioek ala 80. hamarkadan 'El Ejército Secreto Anticomunista' izendatutakoak exekutatu zutela.

Baina esleipen hauei gizon ezezagunak, ejertzittoa, infanteria, polizia nazionala eransten badizkiegu, desagertzeen osotasunak, zein errepresio-organismoek egotzen baitzaizkie, desagertu bortxatuen % 86a ematen digu, zeinen eragileak gizon ezezagunekin, eta errepresio-aparatuekin lotutako pertsonak bezala identifikatu baitziren.

Bortxatutako desagertzearen portaerari dagokionean, gatazkak iraun zuen 36 urteren zehar, gatazkako 36 urte horien zehar hiru gailur egon zirela

ikusi ahal da, zeinetan bortxatutako desagertzea lehenago inoiz ikusi gabeko mailetara iritsi baitzen.

1966. urteko gailurra data paradigmaticoa gertatzen da Guatemalako desagertze bortxatuari dagokionean, zeren 1966. urte horretan, herrialdean desagertze bortxatuaren praktika modu sistematikoan hasten da. Esan liteke, Guatemalan modu oso aitzindariari hasi zela, heriotzaren eskuadroien eskutan, eta hori ez da inola ere harro sentitzeko motibo bat.

Carlos Arana Osorio jeneralaren, Guatemalako politikari eta militarra, garaiari dagokion gailurra, zein 1970-1974 urteen artean Errepublikako lehendakaria izan baitzen, zeinetan 1966. urtetik 1968raino gune militarreko komandante bezala Zacapa-n Rafael Carrera Jenerala egon baitzen, halaber herrialdeko lehenengo garai bereziki odoltsua izan zen.

Garrantzitsua da aipatzea zeren 1966. urteko gailur honetan, Guatemalan Estatu Batuen interbentzioaren zortzi urteak gertatzen dira, eta modu oso sofistikatuan, nahiz maila handiko plano batean Estatu Batuen interbentzio estali guztia hasten da matxinadaren aurkako jardueran, zeinetan Guatemalan matxinadaren aurkako taktikei dagozkien entrenamendu- eta birmoldaketa-zifrak etengabe ikusten hasten baitira.

Efraín Ríos Mont jeneralak gobernatu zuen 1982/83 urteetako garaia desagertze bortxatuaren gailurrik gorenenari dagokio. Efraín Ríos Mont jeneralak gobernatu zuen 17 hilabetetan, desagertu bortxatuen kopurua, lehenago herrialdean inoiz ikusi ez bezalako mailetaraino igo zen. Esan ahal dugu 80ko hamarkadak kontzentratzen duela, landutako laginean, Guatemalako desagertu bortxatuen % 56a, eta Ríos Mont-en garaiak gatazkaren 36 urtetan desagertutakoen % 20 eta 25 bitartekoa biltzen du.

Adieraztea Efraín Ríos Mont jeneralak 2000/04 urteen artean Guatemalako Errepublikaren Kongresuko lehendakari izan bete zuela, zigorgabetasunaren nahiz erabateko arrakastako zigorgabetasunaren adibide oso garbia izanik zeren ez da bere etxean lasai egon zen gizon bat soilik, aldiz politikan asko jardun eta boterea izan duena baizik.

Garrantzitsua da nabarmentzea Lucas García<sup>1</sup>, 1978/82, Ríos Mont, 1982/83, eta Mejía Vítores-en, 1983/86 lehendakari izan diren garaian Guatemalako desagertze bortxatuen osotasunaren % 40a biltzen dela. Hiru jeneralak oso lasai bizi izan dira eta Guatemalako Erreguzko Batzordea

egon zen arte, 2006ko ekainaren amaierako datetan, Rigoberta Menchú-k Auzitegi Nacionalean aurkeztutako Genozidio-Eskaeraren mesedetan, 1999, izan dituen bere gorabehera garrantzitsuekin, horiek erabateko zigorgabetasunean bizitzen aritu dira.

Romeo Lucas-k 1978tik 1982ko martxora arte Guatemala gobernatu zuen, kolpe militar batek Ríos Montt boterera eraman zuenean, hau Guatemalak ezagutu duen gobernatzailerik odolzaleenetako bat izanik, giza eskubideen organizazioek diotenaren arabera.

Romeo Lucas eta Efraín Ríos Montt-en gobernuen zehar sarraski gehienak gertatu ziren. 626 zenbatuta daude, zeinetatik 538 landa ingurunean burutu baitziren. FUR eta PSD partiduetako 35 liderren hilketak, eta USAC-eko, Guatemalako San Carlos Unibertsitatea, 100 ikasle nahiz katedratiko baino gehiagorena, jarduerak zeinetan populazio osoak, intelektualak, ikasleak, sindikalistak eta gidari nekazariak ezabatu baitziren.

Gutxi gora behera garai odoltsuaren antza zuen hirugarren gailurra, Arana Osorio jeneralarena izan zen. Bere lehendakartzako garaian, heriotzaren eskuadroiak loratu ziren eta gobernu militarren aurkako milaka aurkari erailak izan ziren. Bere garaia orokorrean, Guatemalako memoria historikoan herrialdeko jeneralik genozidenetako bezala oroitutako garaia, demokrazia kristauaren gobernuari dagokion garaia da, zeinetan Jorge Antonio Serrano Elías-ek gobernatu baitzuen.

Jorge Antonio Serrano Elías Jarduera Solidarioaren Mugimenduaren hautagai bezala 1991ko urtarrilean lehendakartzara iritsi zen. 1993an parlamentua disolbatu zuen auto Estatu-kolpe batengatik, zeinek porrot egin baitzuen Errepublikako lehendakariordeak agindutako beste kolpe-saiakera bat gertatzean, zein herriaren nahigabearengatik gaizki irten baitzen. Ustelkeriagatik salatua, Serrano Elías Panaman babestu zen eta parlamentuak lehendakari bezala Ramiro de León Carpio esleitu zuen.

Garai horretan desagertze bortxatuaren egoerak hobekuntza nabarmena agerian uzten zuen aurreko berehalako garaian gertatu zenari zegokionean, baina horri zegokionean soilik, zeren zifrak lagin adierazle honi jarraiki alderatzen baditugu, trantsizio demokratikoaren gobernuen zifrek, zein gobernu zibilak baitira, antza dezente dute Carlos Arana Osorio-ren garaikoei dagokienekiko, ala Julio César Méndez Montenegro-ren garaikoei, Errepublikako lehendakaria, 1966/70, 60ko hamarkadan.

## **Desagertze bortxatua eta biktimen biktimizazioa**

Desagertze bortxatuari dagokionean, bere egoera salatu egin behar dela nabarmentzea interesatzen da, baina halaber gauza oso esanguratsu bat adierazi behar da, eta hau biktimen biktimizazioa da.

Azterketan lortutako ondorioen barruan adierazten da, exekutatuena nahiz desagertuena heinik handienaren zergatia iraultzaren aurka egotearekin ados egon izana izan zela. Elementu baztertzailaren subertsio jarduerekin lotu zitzaizen, zein 1954tik aurrera ezarri baitzen.

Balioztatze mota hauek agerian uzten dute zeinen errotuta dagoen beldurraren kultura Guatemala bezalako herrialdetan non baitzirudien norbait jarduera iraultzailetan sartzen bazen atxilotze estrajudizial bat bermatuta zuela, zein bahiketa, galdeketa estrajudizial bat baitzen, zein torturarik krudelena baitzen, eta kondena estrajudiziala zein exekuzio estrajudiziala baitzen. Ez dago izaera honetako jarduerak justifikatzen dituen Giza Eskubideen legezkotasun nahiz sinismenekin ados dagoen argudiorik.

60. hamarkadako desagertze bortxatua, udalerrri mailan antzeman ahal izan dugu. Horrela herrialdeko ipar-ekialdeko udalerriek, ekialdekoek, erdigunekoek, eta hegoaldeko kostakoek desagertze bortxaturik ugariena erregistratzen dute. Ez du esan nahi beste hainbat tokitan gertatu ez denik, gertatzen dena da eragin argigarritarako, udalerrri hauek desagertze bortxatu esanguratsuak jasan zituztela.

Guatemalako eskualdeen multzotik, desagertze kopururik handiena erregistratzen duena Errepublikako hiriburua da zeinetan garai guztietan desagertzeak existitu baitira, bertan desagertze bortxatuen kopururik handiena bildu delarik.

### **Uste dugu hori azaltzeko hainbat hipotesi daudela:**

- 1) Landa-eskualde guztietan desagertutakoen senideek, ziur aski aukera gutxiago izan zituzten bere senideen egoera salatzeko;
- 2) Prentsak ez zituen ekintza hauek jaso, alegia, pertsona bat desagertu izana ez zen berri bezala hartzen landa-eremuan, eta horrenbestez ez zen egunkarrietan agertzen. Hirietan aldiz bai; eta

3) Zilegi da halaber errepresio-aparatuek hiriburua hobetsi izana desagertze bortxaturako agertoki bezala horrela aurkari politikoa ezabatzeko.

Desagertze bortxatua oposizioko aurkariak ezabatzeko burutu izaten den errepresio-elementu ala prozesua da, jarduera irekiak, edo are gehiago, epaiketa ireki batek nahiz fusilamendu batek, hau gertatuko balitz, inplikatzan duen kostu politikoari aurre egin gabe, zein une zehatz batean Efrain Ríos Mont-ek egin nahi izan zuena izan baitzen.

### **Desagertze bortxatuko garaiak eta eremu geografikoak**

Desagertze bortxatuak antzoki ezberdinak izan zituen, 60. hamarkadan ipar-ekialdean kokatu zen, eta 70. hamarkadan desagertzen hasi ziren, hamarkada horretan lekualdatu egiten da eta hego-mendebaldean azaltzen hasten da, hamarkada horretan hegoaldeko kostaldean eta hiriburuan jarraituz.

80. hamarkadan Peten-era lekualdatu zen, eta aldi berean iparraldeko goi-lautada osoan, erdiguneko goi-lautadan, hegoaldeko kostaldean eta hego-mendebaldeko gunean azaltzen da, desagertze bortxatuei dagokienean hau garairik odoltsuena izanik.

90. hamarkadan oraindik iparraldeko gunean ikusi ahal da, 80. hamarkadako desagertze bortxatuaren agertokia.

Desagertze bortxatuaren aldaketa geografiko hauen azalpena litzateke, indarkeria, batez ere estatuko aparatuaren indarkeria, zentzuzko ekintza bat izanik, eta hau adierazteak halaber ezustea sortzen du, indarkeria zentzugabea dela adierazten denean, eta hori gezurra da, zeren kasu gehienetan indarkeria zentzuzko ekintza bat da eta estatuko terrorismoaren nahiz estatuko indarkeriaren kasuan, erabat zentzuzkoa bitarteko eta helburuen egokitzapen bat izanik.

Horrela, indarkeria Guatemalan politika berriro egonkorra izan zedin aplikatu zen, legezketasuna azpikoz gora jarriaz noski. Horrela, izaera geografikoko aldagai hauek, hain zuzen alderantzikatutako historia bati dagokie, zeinek Guatemalako iraultzaren historiaren errepresioari baitagokio.

## **Natura, etnia, eta biktimen hizkuntza**

Izaera linguistikoa kontuan izanik, hizkuntzaren erabileraren araberrako desagertzei dagokionean, % 66ak maien hizkuntzari dagokio eta % 34ak espainiar hizkuntzari. Honek desagertze bortxatuaren biktimaren izaera, etnia eta erabiltzen zuen hizkuntza islatzen ditu, hortik abiatuta, Guatemalako desagertze bortxatuaren eraketa etnikoa ondorioztatu ahal izanik, % 34a ladinoak eta gutxi gora behera % 66a maien komunitate etnikoak zirela adieraziaz.

Maien hizkuntzak erabiltzen zituztenak zein mota linguistikori zegokienari dagokionean, modu banakatuan adierazi ahal dugu, espainiar hizkuntza salbu, Q'iché-ari % 39ak dagokiola, Achí, Kachiquel, Mam, Q'echí eta beste hainbat motek jarraitzen diotelarik. Honek ondorioztatzera darama erreserbekin, eta ondorengo ikerkuntzei lotuta, ziur aski hauek Guatemalako desagertze bortxatuaren fenomenoak gehien eragin zituen etniak izan zirela.

Desagertze bortxatuaren kopururik handiena zein adinetan biltzen denari dagokionean, 21 eta 30 urte bitartean da, eta oinarrian esan ahal genuke desagertuen % 56a gutxi gora behera 11 eta 40 urte bitartekoak izan zirela. Desagertze bortxatuaren fenomenoak gehien bat populaziorik gazteenari eragin zion eta, bereziki, adierazitako urteak zituen populazioari.

Sexuaren araberrako desagertzeak, ez du datu erabakigarririk ekartzen hamarkada ezberdinetan desagertze bortxatuaren genero konposaketari zegokion aldaketarik egon zen ala ezari buruz, dauden datuen oinarriei jarraiki ondorioztatu ahal dugun gauza bakarra da, Guatemalan modu bortxatuan desagertu zirenen gehiengo zabala gizonezko sexuari zegokiola.

Batek desagertze bortxatuaren zifra hauek guztiak aztertzen dituenean, ahantzuraren aurkako memoriagatik eginiko borroka kontuan izanik, hala nola gertatutako fenomenoaren datu enpirikoen kopuru handiagoa, Guatemalako estatuko terrorismoaren fenomeno ahalik eta modu frogagarrienean azaltzeko helburuarekin da.

Halaber ahalik eta errespetu handiena erakutsi behar da, norbait desagertuen estatistika hauek guztiak tratatzera sartzen denean. Ez daitezela datu estatistiko bat bilakatu, eta ahaztu zifra hauetako bakoitzaren atzean, Guatemalan desagertutako 45 milaren atzean ala 150 mila exekutatuetakoa 140 mila hauen atzean, hala nola ikerketatik desagertutako 4.042 hauen

atzean gizonezko bat, emakumezkoa bat, mutil bat, neska bat aurkitzen direla, zeinek ametsak izan baitzituzten, zeinek nahiak izan baitzituzten, zeinek senideak izan baitzituzten, zeinek eguneroko bizitza bat izan baitzuten, argitalpen honen irakurleak duena bezalakoa, hau maiz ahaztu egiten zaigu, eta ez da bidezkoa, eta gutxiago ahanzturaren aurkaren aldeko borroka egin nahi dugunean.

Duela gutxi sailkapenetik kendutako desagertuen artxibotan, desagertuen aurpegiak ikusi ahal ditugu, nahiz eta gehienetan artxibo partzialekin aurkitu izaten garen, ikusi ahal ditugun argazki ugari ladinoei eta gizonezkoei baitagokie, baina horien artean hainbat aurpegi ikusi ahal ditugu, esaterako Hugo Adail Navarro-rena, maien kulturaz blai egiteko interesatu amorratua, bera ladinoa izanik, zein atxilotua eta torturatua izan baitzen, eta 300 zifrarekin datatua dago, zein errepresio-agentziak erabili zuen kodea baita 1984ko martxoaren 29 exekutua izan zela esateko.

Halaber Julio César Pereira Vásquez dago. Bera bizirik atera zen, baina torturak ez zituela jasan aitortu du eta Sergio Raúl Linares Morales atxilotua izatera eraman zuen informazioa eman zuela. Julio César errudun sentimendu hori gainditzen saiatu da. Bi aldiz saiatu da bere buruaz beste egiten, eta gaur egun errekuperatzen saiatzen ari da hala nola bera ere azken batean biktima bat izan zela onartzen.

Bada gizon bat zeini Rigo deitzen baikenion, bizirik gehien iraun zuen pertsonetako bat da. Eskuarki artxibo honetako datuek desagertuak torturaren prozesu osoak iraun zuen bitartean bi ala hiru aste baino gehiago ez zituela jasan erakusten dute, informazio guztia atera zioten eta exekutua izan zen. Informazio gehiago izango zutela suposatzen zuten hainbat kasutan 3, 4, 5, 6 hilabete bizirik iraun zuten, eta beste hainbatek bizitza salbatzea lortu zuten.

Miguel deitzen zioten gizonaren kasua daukagu, zeinek hiru etxe entregatu baitzuten, baina ondoren Guatemalako errepresioaren agente oso aktiboa bilakatu zen, Guatemalako ejertzitoan asimilatutako maior maila izatera iritsi zelarik, eta iraultzaren aurka egotearekin lotutako merituen ondorioz aske utzi zuten. 1987an halaber eraila izan zen, nork egin zuen jakin gabe, alegia ejertzittoa bera izan zen ala bestela egin zuenagatik faktura pasa zioten bere kide ohietakoren batek.

Benjamín Rolando Orantes Zelada, Fito bezala ezaguna, aurreko pertsonaren

biktimetako bat da; zuzenean Benjamín Rolando Orantes Zelada-ren exekuzioan parte hartu zuen.

Bizirik ateratakook sustatzailerik handienak izan behar dugu ahanzturaren aurkako memoria mantentzeko, Julis Wisick-ek adierazi zuen bezala;

*Gauza bat bakarrik eskatzen dut, bizirauten duzuenok, ez itzazue ahaztu, ez itzazue ahaztu ez onak eta ez gaiztoak, hil direnen lekukotasuna pazientziaz bildu ezazue badaezpada eta zuengatik, egun batean gaurko eguna iragana izango da eta garai handi bati buruz eta historia egin duten heroi anonimoetaz hitz egingo da zeinek historia egin baitute. Mundu guztiak jakitea nahi nuke ez dela heroi anonimorik egon, bere izena, aurpegia, bere nahiak eta bere itxaropenak zituzten pertsonak ziren, eta beraietako azkenekoaren mina ez da lehenengoarena baino txikiagoa izan, zeinen izenak irauñ egiten baitu.*

## **Militarren egitasmo politikoa**

Bada balio eta garrantzi handiko liburu bat, zeinen izenburua 'Las intimidades del proyecto político de los militares en Guatemala' baita. Jennifer Schirmer-ek idatzi zuen, Harvard Unibertsitateko gizarte azterketen irakaslea, eta Harvard-eko Nazioarteko Auzietarako Zentroarekin elkartua. Liburu hori Gizarte Zientzien Fakultate Latinoamerikarrak, FLACSO, argitaratu zuen, Guatemala, 1999.

Azterketa Guatemalako ejertzitoko 50 ofizialei eginiko elkarrizketetan oinarrituta eraikita dago, horien artean sei Defentsaren ministro eta Estatuko Buru, 1986ko urtarrila eta 1996ko azaroaren artean. 265. orrian, Héctor Gramajo Jeneralarekin, matxinadaren aurkako maila handiko ofiziala eta Defentsaren ministro ohia, eginiko elkarrizketa bat aipatuz, ikertzaileak idazten du: Gramajo-ren arabera; 'Inteligentzian asko entrenatu gintuena, Argentina izan zen'. Egoeraren 'erabilera' berri honen atal bezala, 1980tik aurrera gutxienez, Guatemalako hirian susmagarrien etxeetako ur eta elektrizitatearen erabileraren kontrola barne hartu zen, israeldar neurketa-sistema baten bidez zein Lehendakartzako Estatu Nagusiaren barruan kokatuta baitzegoen, Jauregi Nazionalaren atzean dagoen eranskinean. Sistema hau azterketarako neurketa-sare sofistikatu batekin konbinatzen zen, Argentinako 'gerra zikina' n zehar garatua. Elektrizitate ala ur kontsumoagatik kontu handiak zituzten nahiz gauean zehar bere erabilera

areagotzen zuten eraikuntzak kokatu eta aldi berean hauen helbideak lortu ahal zituzten, horregatik bilera klandestinoak burutzen zirela suposatuz, ala legez kanpoko inprenta bat funtzionatzen ari zela.

300. orrian, 8. zenbakiari erreferentzia egiten zaion oharrean, ondorengo irakurtzen da: Garai honetan bertan, 1981eko abuztua, CIA-k eta Estatu Batuetako Estatu Idazkariaren aholkulari bereziak, eta CIA-ko Zuzendariorde ohiak, Vernon Walters Enbaxadore Ahalguztidunak, Guatemalako hirian bilera bat burutu zuten antzinako Somoza-ko Guardia 'Contra'n integratzeko asmoz eta Argentinako ejertzitoaren ofizialek aholkulari nahiz trebatzaile bezala jardun zezaten eta hauek ondoren CIA-ko pertsonalak ordeztu zituzten. Edgar Chamorro-ren zinpeko aitortza, 'Contra'ko desertorea, Nikaraguako epaiketaren versus EE.BB, Hagako Justizia Nazioarteko Auzitegian, 1985eko irailaren 5ean. Gainera, hainbat txostenen arabera, 1981eko irailaren amaieran, Walters García Jeneralarekin bildu zen Jean Thurber Estatu Batuetako Ontziko Kapitaina Estatu Nagusiko Buruarekin biltzen zen bitartean, Benedicto Lucas García, Telebista Nazionala, 1981eko irailak 28.

279. orrian irakurtzen da: D-2-ko (Inteligentzia Militarra) zuzendari bati azkeneko hogeita hamar urteren zeharreko Inteligentziaren egiturak laburki deskribatzeko eskatzerakoan esan zuen: 60tik 90 urteak bitartean CIA-ren egitura bat zen. Noski, CIA-ri buruz hitz egiten ari gara, ondoren DEA, baina azken batean, Guatemalako ejertzitoak interes iparramerikarrei zerbitzatu behar zitelako zen. Guk, egia esan, ez genuen zertan borrokatu gerra honetan. (Julio Alberto Yon Rivera Ontziko Kapitaina, 1996ko elkarrizketa.)

296. orrian irakurtzen da: Estatu Batuetako Inteligentziako Zerbitzuen Ikuskaritza Juntaren txostena. EE.BB-ko Inteligentziaren Zerbitzuetako Ikuskaritza Juntak (Intelligence Oversight Board, IOB), zeinek 1996an Guatemalan 1984 eta 1995 urteen bitartean CIA-k garatutako jarduerak ikertzen baitzituen, baieztatzen du CIA-k Guatemalako segurtasun zerbitzuekin, bereziki G2 eta 'El Archivo', 'harreman hestua' mantentzeaz gainera, Eragiketako Zuzendaritza (Directorate for Operations, DO) CIA-ren egoitzan, konturatzen zela 'bere informatzaile nahiz loturen aurkako salaketei sinesgarritasuna eman ahal zitzaiela giza eskubideen bortxaketa larriak agindu, planifikatu eta hauetan parte izanagatik, esaterako erailketak, exekuzio estrajudizialak, tortura ala bahiketak, informatzaile bezala balio zuten bitartean' eta Agentziak hilketa horiek estaltzen zituela. Izan ere, 'bortxaketa krudelek jarraitzen zuten', eta 'segurtasun zerbitzuetako CIA-ren hainbat kontu arazoaren hein bat izaten jarraitzen dute'. (IOB Report, 1996:20). Ez zaigu soilik esaten DO-k 'nahita ez ziola' informazio hori eman Kongresuko Ikuskaritza Batzordeei (3 eta 20. orria), aldiz halaber informatzen zaigu CIA-ko estazioko buruek ez zutela sei hilabetetik behin giza eskubideei buruzko txostenak Kongresuaren aurrean aurkezteko betebeharra errespetatzen (27. orr.)&. Era berean, estazioko buruek 'matxinatu komunistak...etsai nagusienak zirela pentsatzen jarraitzen

zuten', eta Guatemalako gobernu nahiz segurtasun-zerbitzuak 'etsai komun honen aurkako borrokako kideak...' bezala (20. orr.). Horrenbestez, Guatemalako CIA-ren Estazioko eta Washington-eko DO-ko Buruak, gutxienez hamar urteren zehar, bestela 1966tik aurrera, G-2a ezarri zenean, milaka eta milaka Guatemalako nahiz hainbat estatubatuar eta europar, bere 'informatzaile' propioen aldetik torturatuak, desagertuak eta erailak izaten jarraituko zutela suposatuz jardun zuten, bere Kongresurako txostenetan ondorengo zioten bitartean: 'gobernu demokratiko zibilaren trantsizioa eta indartzeari laguntzen ari zirela, estatu batuen eta Zuzenbidezko Estatuaren errespetua estimulatuz..., iraultza komunistaren aurka borrokatuz eta, duela gutxiko urtetan, bake prozesuari lagunduz.

## **Isiltasunaren oroimena**

Guatemalako gobernu eta Guatemalako Iraultza Nazionaleko Unitatearen, URNG, indar iraultzaileen artean ezarritako bake-hitzarmenen atal bezala Argitze Historikorako Batzordea, C.E.H, eratu zen, barruko norgehiagoka armatuaren garaian zehar burututako giza eskubideen bortxatze larriak ikertzeko arduraduna.

Alderdiek batzorde horren integrazioa eta bere jardueraren garapenerako giza baliabide nahiz baliabide materialak eta finantzazkoak ONU-ko Idazkari Nagusiaren eskutan uztea adostu zuten. Idazkari Nagusiak Christian Tomuschat Irakasle akademiko alemaniarra izendatu zuen batzordearen buru izateko. Tomuschat Irakasleak aldi berean Guatemalako bi hiritar ospetsu hautatu zituen, Alfredo Balsells Tojó abokatua eta Maya Otilia Lux de Cotí pedagogo, Batzordea osatzeko.

'Egiaren Batzordea' ren Guatemalako bertsio honek berezitasun nagusi bezala Nazio Batuen babes, aholkularitza eta jarraipenarekin kontatzea izan zuen, zeinek independentzia handiagoa eman baitzion bere misioa betetzeko. 1999ko otsailean, Batzordeak ONU-ko Idazkari Nagusiari, bake-akordioaren alderdi sinatzaileei, Guatemalako herriari eta Nazioarteko Komunitateari Guatemala Isiltasunaren Memoria txostenaren hamabi liburukiak entregatu zizkien.

C.E.H.-k ikertutako kasuak giza eskubideen bortxatzeen errealitatearen nahiz norgehiagoka armatuan gertatutako indarkeria-ekintzen lagin bat baino ez dira. Bortxaketak jasandako 42.000 biktima baino gehiago erregistratu dira: hauen artean 29,000 baino gehiago exekutatuak ala desagertuak izan ziren. Ondorioa da norgehiagoka fratrizidan hildako nahiz desagertuen saldoa

200,000 pertsona baino gehiagotara iristen dela, Christian Tomuschat Irakaslearen diskurtsoa.

Guatemalan eta nazioarteko eremuan, aipatutako txostena barne-gatazka larriak jasan dituzten hainbat herrialdetan ezarritako egiaren batzorde ezberdinek jakinarazi duten produkturik hoberenetakoa bezala balioztatu da. Behin eta berriro CEH-k burututako lanaren izaera objektiboa eta zorrotasun zientifikoa neurtu da.

Txostenaren V. Liburukiak Argitze Historikorako Batzordearen ondorioak eta gomendioak dakartza. Horiek guztiak garrantzitsuak dira eta artikulatutako osotasun bat eratzen dute. Ohar hauetan tratatzen den gaiarekin duen loturarengatik, egokia gertatzen da horietako ondorio batzuk aipatzea:

1. 1962ko barruko norgehiagoka armatua lehertu zenean, Guatemala bere historiaren etapa oso tragiko eta suntsitzaile batean sartu zen, zeinek giza, material, erakunde nahiz termino moraletan kostu ikaragarriak izan baitzituen. Giza eskubideen bortxaketen nahiz norgehiagoka armatuarekin lotutako indarkeria ekintzen bere dokumentazio-zereginean Argitze Historikorako Batzordeak, C.E.H., guztira 42.275 biktima erregistratu zituen, gizonezkoak, emakumezkoak eta haurrak barne. Horietatik, 23.671 exekuzio arbitrariotako biktimei dagozkie eta 6.159 desagertze bortxatuzko biktimei. Erabat identifikatutako biktimeetatik, % 83a maiak ziren eta % 17 ladinoak.

2. Datu hauek Guatemalako indarkeria politikoari buruzko beste hainbat azterketekin konbinatuz, C.E.H.-k uste du norgehiagoka fratrizidan hildako eta desagertuen saldoa berrehun mila pertsona baino gehiagotara iritsi zela.

13. C.E.H.-k onartzen du gizartearen eta Estatuaren polarizazio, militarizazio eta barne-gerraranzko aurrera egitea ez zirela historia nazionaletik eratorritako eragin soilak izan. Gerra Hotzak halaber eragin berezia izan zuen. Bere kanpoko harremanetako esparruan Estatu Batuek sustatutako komunismoaren aurkako politikak eskuineko partidu politikoaren eta Guatemalako hainbat botere-sektoreen laguntza erabakigarria jaso zuen, herrialde hura bere atzealde estrategikoan erregimen militarrei bere babesa emateko prest azaldu zen bitartean. Guatemalako kasuan plano militarrean zehaztu zen, Inteligentzia nazionalako aparatuek indartu eta matxinaden aurkako gerran ofizialtasuna entrenatzera destinatutako laguntzaren bidez, zein norgehiagoka armatuan zehar giza eskubideen bortxaketan zerikusia izan zuren faktore giltzak izan baitziren.

15. Norgehiagoka armatuaren garaian zehar Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren barruko 'barne etsaia' ren nozioa, Estatuarentzako gero eta hedatuagoa bilakatu

zen. Doktrina hau, aldi berean, hainbat hamarkaden zehar Ejertzitoaren xede eta estatuaren politika bilakatu zen. Bere ikerketaren bidez, C.E.H.-k politika honen eraginik suntsitzaileenetako bat jaso zeun: Estatuaren indarrak eta talde paramilitar kideak C.E.H.-k dokumentatutako bortxaketen % 93aren erantzuleak izan ziren, exekuzio arbitrarioen % 92a barne hala nola desagertze bortxatuen % 91a. Biktimek herrialdeko maila guztietako gizonezko, emakumezko eta haurrak hartzen dituzte barne: langileak, profesionalak, erlijiosoak, politikoak, nekazariak, ikasleak eta akademikoak; gehiengoa termino etnikotan, herri maiakoak.

86. Estatuak indarrek planifikatutako sarraski eta lur suntsituko operazioak deiturikoen bidez, komunitate maiak erabat garbitu ziren, eta era berean bere etxebizitzak, abereak, uztak eta bizimoduari zegozkion beste hainbat elementu suntsitu ziren. C.E.H.-k indar hauei egotzi ahal zitzaizkien 626 sarraski erregistratu zituen.

108. Barruko norgehiagoka armatuan zehar Guatemalan genozidio-ekintzen aldi baterako batzordea aztertzeke C.E.H.-k hatutako esparru juridikoa Prebentziorako Konbentzioa eta Genozidioko Delitu Zigorra da, Nazio Batuetako Asanblada Nagusiak hartua, 1948ko abenduaren 9an eta Guatemalako Estatuak berretsia 704 Dekretuari jarraiki, 1949ko azaroaren 30ean.

109. Aipatutako tresna juridikoaren II. Artikuluak genozidio-delitua eta bere baldintzak ondorengo terminotan definitzen ditu: 'Genozidio bezala ulertzen da ondoren aipatzen den edozein ekintza, zein talde nazional, etniko, arraza talde nahiz erlijioso, bere horretan suntsitzeko asmoarekin burutzen baitira:

- a) Taldeko kideen hilketak;*
- b) Taldeko kideen osotasun fisiko ala mentalari lesio larria;*
- c) Taldea bere suntsiketara fisikoa, erabatekoa nahiz partziala, ekarriko duten existentzia-baldintzen mendearen nahita jartzea;*
- d) Taldearen barruan jaiotzak ekiditera destinatutako neurriak;*
- e) Haurrak indarkeriaz talde batetik bestera lekualdatzea'.*

Oinarri honi jarraiki, delitua eratzen duten bi elementu nagusi definitzen dira: Asmoa eta burututako ekintzak aurreko artikuluan aipatutakoetatik gutxienez bat izatea.

## **Justizia Unibertsala eta Zigorgabetasunaren aurkako Borroka**

Guatemalan bizitako gatazka kontuan izanik, zeinek hildakoen eta desagertuen artean 200 mila biktima baino gehiago izan baitzituen, Latindar Amerikaren historia garaikidearen genozidiorik handiena eratzen du, bere biktimen % 83a indigena maiak izanik, 'lur suntsitua' izeneko estatuaren politika, 1980 eta 1983 artean burututako operazio militar eta paramilitarretan 626 sarraski eta 450 aldea baino gehiago ezabatzearen erantzulea izan zen.

Egiaren Batzordeko Txostena, C.E.H., ezagututa, zein Guatemalako gatazkari buruz ari baita, Rigoberta Menchú Tum-ek Espainiako Entzuleria Nazionalan 1999ko abenduaren 2an guardiako Instrukzioko Juzgatu Zentralaren aurrean genozidio, tortura, terrorismo, hilketa eta legez kanpoko atxilotzeko delituak eratzen dituzten hainbat ekintzengatik salaketa aurkeztu zuen, zein batera nahiz banatuta ondorengo pertsonen leporatzen baitzaizkie:

- 1.- EFRAÍN RÍOS MONTT JENERALA, Gobernu Burua Estatu-Kolpeagatik, 1982ko martxoaren 23tik 1983ko abuztuaren 8ra arte.
- 2.- OSCAR HUMBERTO MEJÍAS VÍCTORES JENERALA, Gobernu Burua Estatu-Kolpeagatik, 1983ko abuztuaren 8tik 1986ko urtarrilaren 14ra arte.
- 3.- FERNANDO ROMEO LUCAS GARCÍA JENERALA, Guatemalako Errepublikako Lehendakaria 1978tik 1982ko martxora arte, Venezuelako Errepublikako Lehendakaria eta 2006ko martxoan hila.
- 4.- ANGEL ANIBAL GUEVARA RODRÍGUEZ JENERALA, Defentsako Ministroa, Guatemalan bizi dena.
- 5.- DONALDO ALVAREZ RUIZ LIZENTZIATUA, Gobernazioko Ministroa, Mexikon 20 urte bizi izan da, eta orain justizia internazionalatik ihesi.
- 6.- GERMÁN CHUPINA BARAHONA KORONELA, Polizia Nazionalaren zuzendaria Lucas Garcia Jeneralaren gobernuan zehar, Guatemalan bizi dena.
- 7.- PEDRO GARCÍA ARREDONDO, Lucas García Jeneralaren gobernuan zehar Polizia Nazionalaren Seigarren Komandoko Burua, Guatemalan bizi dena.
- 8.- BENEDICTO LUCAS GARCÍA JENERALA, Romeo Lucas García-ren gobernuan zehar Ejertzitoko Estatu Nagusiko Burua.

## Salaketagai gertaerak

Salaketaren objektu diren ekintzak kronologikoki 'Guatemala hogeita hamasei urtez astindu zuen gerra' rekin batera xedatzen dira eta zehazkiago, 'Argitze Historikorako Batzordea'k (CEH) ikertutako garaiarekin batera, zein 1994an Oslo-ko Bake-Hitzarmenen eremuan sortu baitzen, eta garai honek 1962 eta 1996 arteko urteak hartzen ditu. Genozidio-delitua eratzen dutela diruditen ekintzen kontaketa, beste hainbat eransten dira zein tortura, erailketa, terrorismo, pertsonen osotasun fisiko nahiz mentalarekiko lesio larri eta legez kanpoko atxiloketa bezala kalifikatzen baitira, sarraskiak, populazioaren bortxatutako lekualdatzeak nahiz herri maiaren suntsiketara bideratutako beste hainbat ekintza deskribatzen direlarik.

Salaketan erreferentzia berezia egiten zaio Guatemalan 1980ko Urtarrilean Espainiako Enbaxadan gauzatutako sarraskiari, hala nola 1972 eta 1983 urteen artean espainiar nahiz beste hainbat nazionalitatetako apaizen hilketei, baita Bakearen Nobel Saria den Rigoberta Menchú Tum-en familiaren desagertze nahiz hilketari ere. Bere aita espainiar enbaxadaren sutean hil zen, bere ama desagertu eta hil egin zen, bere anaia Patrocinio eraila...

Salaketak salatutako pertsoneri egiten dieten erruduntasunaren egoztea bere zuzeneko arduradun izatearen kalitatean oinarritzen da, estatu-aparatuan integratuak bezala, jarduera militarrena nahiz paramilitarrena, zeinen helburua, berez belikoa dena alde batera utzita, salatutako ekintzen batzordea zen, helburu genozidakoa, batez ere.

Salaketa-izkribuak pasibotasunari buruzko hainbat kontsiderazio adierazten ditu, konplizitatearena ez denean, Guatemalako Justizia Administrazioarena, Juezak eta Fiskalak, salatutako ekintzen ikerketa-nagikeriarengatik eta zain dauden prozesuen paralizatze eta justifikatu gabeko etenengatik, zein 1984ko espainiar Gobernuarekin eginiko hitzarmenei jarraiki burutu behar baitira.

1999ko abenduaren 9ko autoagatik aldez aurretiko diligentzia hauei hasiera eman zitzairen, zeinetan salatzaileri hasierako izkribua presentzia judizialaren aurrean berresteko eskatzea hitzartu baitzen, zein hala egiaztatu baitzuen 1999ko abenduaren 20an, egun horretan bertan Ministerio Fiskalera lekualdatuz, Instrukzioko Juzgatu Zentral honek bideratzeko duen eskumenari buruz informatu zezan eta Entzutegi Nazionalari ebatzi zezan.

## **Eskaeraren garapena**

1999ko abenduaren 2an Rigoberta Menchú Tum-en aldetik hainbat jeneral, estatuko buru ohi eta Guatemalako beste hainbat agintarien aurka genozidio, tortura eta estatuko terrorismoagatik Eskaera bat aurkeztu zen.

Horrela, Guillermo Ruiz Polanco Entzutegi Nazionalako epaileak onartu zuen eskaeraren hasierari bidea ematen zaio, zein 331-99 kausan bilakatzen baita, zeinek Justizia Unibertsaleko legegintzaren esparruan genozidio, estatuko terrorismo eta Guatemalako torturengatik eginiko salaketak ikertuak izan ahal izateari bidea ireki baitzion.

Justizia Unibertsaleko legegintzak genozidio, tortura, terrorismoa eta erailketa bezalako gizatasuneko hilketak, epaitzeko boterea dauka, zeinek preskribigarriak ez izatearen kontsiderazioa baitute.

## **Entzutegi Nazionala**

2000. urteko abenduaren 13an, Entzutegi Nazionalako Zigor-Arloko Epaiketa-gelak, ebazpena diktatzen du, adieraziaz 'momentuz' espainiar justiziaren jurisdikzioa ez dela egokia Guatemalan burututako Lesa Gizatasuneko hilketak ezagutzeko, zeren ez da behar bezala frogatu Guatemalako auzitegiak horien arduradunak epaitzeko eskuragarritasuna nahiz gaitasuna ez dutenik.

Ebazpen hori burutzen dute genozidioko salaketarako ekarri ziren datuak presente izan gabe, zein ONU, C.E.H.-ko Argitze Historikoaren Batzordeak alde aurretik eta exhaustiboki bere genozidioko kalifikazio teknikoarekin dokumentatu baitzituzten, ezta txosten horrek egiaztatzen duen hildako biktimen zifra ere, 200.000 baino gehiago, dokumentazio hau 1999. urtean Rigoberta Menchú-k eta hainbat erakundek aurkeztutako salaketaren barruan erantsi zen, lesa gizatasuneko delitu haietako batzuen hainbat arduradun nagusien aurka.

Aurkeztutako eskaerak zeinek adierazitako datan Entzutegi Nazionalaren sententziari bidea eman baitzion, hilketa horietarako espainiar jurisdikzioa ukatzean zetzan, kasu preskribigarriak ez direnentzako interbentzio jurisdikzional unibertsalaren esparrua ezeztatzen duen sententzia murriztaile bat hartuaz.

Epaiketa-gelak 1999ko otsailaren 25a ezartzen du, Argitze Historikorako Batzordearen, C.E.H., txostena aurkeztu zen eguna, genozidioaren arduradunen epaiketa exijitu ahal izateko hasierako data bezala. Ez ikusia egin nahi izan zion 1985etik hasita Konstituzio berri bat indarrean egoteari eta 1986ko urtarrilaren 14an, jarduneko azkeneko diktadoreak gobernua lehendakari zibil bati entregatu izanari.

Modu formalean, duela 14 urtetik hasita genoziden aurkako prozesu judizialak hasi behar ziratekeen. Inoiz ez da militar bakar bat epaitua izan hilketa horiengatik Guatemalan.

### **Entzutegi Nazionalak Guatemalan 1999/12/2an hasitako genozidioari dagokion kereilaren artxiboa eskuragarri dauka**

Ukapenari eusteko argudio nagusienak ondorengoak dira;

- a) Guatemalako prozesu judizialen ez amaitzea;*
- b) Jurisdikzio nazionalekin eta Nazioarteko Auzitegi Penalarekin ordezkapen-printzipioa eta,*
- c) C.E.H.-k ezarri zuela delitu hauek ez daudela Osloko Bake hitzarmenen barne.*

Espainiar barne-zuzenbidearen ikuspuntutik argi eta garbi ezartze da nazioarteko zuzenbidearen eta iu cogens-en erabilera barne-zuzenbidean aplikagarriak diren arau bezala. Autoak amaitutzat eman zuen eta prozeduraren eginbide-artxiboa prestatu zuen kereilan salatutako ekintzak balioztatzerara sartu gabe.

### **Auzitegi Gorena**

2003. urteko otsailaren 25ean, Auzitegi Gorenak sententzia diktatzen du auzitegi horren aurrean aurkeztutako Kasazio Errekurtsoari dagokionean, Entzutegi Nazionalaren Zigor-Arloko Epaiketa-gelaren ebazpenaren aurka, 2000ko abenduaren 13ko datarekin, sententzia zein onartu gabe jarraitzen baitu, jurisdikzio unibertsalaren esparruan Entzutegi Nazionalaren sententziak egiten duen gauza bera, espainiar nazionalitateko biktimen kasuak epaitzeko eskumena soilik onartzen baitu, Guatemalako biktimei nahiz beste nazionalitate batekoei aukera hori ukatuz.

Justizia Unibertsalaren kontzeptua berriro geroratu geratzen da, behar adinako 'lotura' ren bat dagoen ala ezaren nahiz ia betetzea ezinezkoak diren hainbat eskakizunen mendean. Nabarmentzekoa da ebazpen horrekin batera burutu zen bozketa, bozketaren emaitzak, zortzi boto zazpiren aurka, erabaki haren berezko ahultasuna agerian utzi zuen neurrian.

## **Auzitegi Konstituzionala**

2006ko otsailaren 6an, Auzitegi Konstituzionalaren aldeko ebazpenarekin, zeini Auzitegi Gorenaren sententziaren errekurtsioa aurkeztu baitzitzaion, 331/99 kausan jurisdikzio unibertsalaren esparruan Guatemalako genozidioa epaitzeko aldeko ebazpen bat hartzen da.

1999. urtean aurkeztutako errekurtsioari bidea ematera behartzen dio, Rigoberta Menchú Tum nahiz GG.EE.-tako beste hainbat organizazioen aldetik zein hasiera eman zitzaion kausari erantsi baitzitzaizkion, Guatemalan burututako genozidio-hilketa, tortura, terrorismo eta erailketengatik justizia eskatzeko asmoz, eta hauek Justizia Unibertsalaren esparruan epaitzeko, bere herrialdean bertan epaituak izan daitezten aukera nuluaren aurrean, gertatutako kausei dagokionean justizia-sistemaren inhibizioarengatik.

Drama handia, duela hainbat hamarkada aldarrikatzen den tragedia izugarria: Guatemala. Ertamerikar ejertzito hark hainbat hamarkadetan burututako krudelkeriak, bere izugarrikeria handienekin, duela gutxiko sententziak 1978 eta 1986 artean kokatzen dituen garai zehatz batean bereziki bilduak.

Maien herriaren aurka burututako genozidioak, Txile, Argentina, El Salvador nahiz XX. Mendeko 70 eta 80. hamarkada haietan Latindar Amerikak jasandako edonolako diktadura militarretan ezagututako guztia gainditzen du.

Auzitegi Konstituzionalaren sententziak, lesa gizatasuneko delituatarako Justizia Unibertsalaren printzipioaren lehentasuna ezarriaz, Guatemalan nahiz beste hainbat herrialdetan burututako hilketak azkenean epaituak izan ahal izango direnaren itxaropena berreskuratzen du.

Nazioarteko mailan, epaituak izan ahal diren esparru bakarra da. Zeren Hagako Nazioarteko Auzitegi Penala bezalako Instantziak, ez dute eskumenik, atzeraeraginezko gaitasunik ez izateagatik eta 2002ko uztailaren 1ean bere indarrean jartzeari dagokionean oso lehenagokoak izateagatik.

## **Auzitegi Konstituzionalaren Ebazpena**

Auzitegi Konstituzionalak Guatemalako genozidioa epaitzeko 331/99 kausan aldeko ebazpena hartu zuen, jurisdikzio unibertsalaren esparruan.

Salatzaile partikularrek eta Rigoberta Menchú Tum Bakearen Nobel Sariak aurkeztutako babes-errekurtsoa ezagutzeko Bista burututa, 2005eko irailaren 26an, auzitegi horrek Guatemalako genozidioaren kasuan eskatutako babesaren eman zuen.

Horrela jurisdikzio unibertsala aplikatzen da eta genozidio horretako biktimen epaiketa berdintzen da, duten nazionalitatea dutela, lesa gizatasuneko hilketak kontsideratzen direlako, zein horrenbestez preskribigarriak ez baitira.

Horrela Auzitegi Konstituzionalak Auzitegi Gorenak 2002ko otsailan diktatutako sententzia ezeztatu zuen, zeinen bidez espainiar auzitegien eskumena aitortzen baitzen, espainiar nazionalitatea duten biktimen kasutarako soilik. Emandako babesak berme konstituzionalen bortxatzea adierazten du jurisdikzioa espainiar legerian existitzen ez den nortasun pasiboko irizpidea aplikatzera mugatzerakoan.

Ebazpenean bertan era berean Auzitegi Nazionalaren Zigor-Arloko Epaiketagan burututako Osoko Bilkurako 2000ko abenduko autoa ezeztatzen da, zeinek eskumenerako baldintza bezala ezarri baitzuen, espainiar auzitegien ordezkapena Guatemalako jurisdikzio penalaren egiaztatu ahal zen jardungabeziaren aurrean, irmo utziaz, Guillermo Ruiz Polanco epaile instrukzio-egilearen autoa, zeinek biktima guztientzako espainiar auzitegien eskumena, bere nazionalitatea alde batera utzita, adierazi baitzuen.

Auzitegi Konstituzionalak kontsideratu du espainiar legerian 'jurisdikzio unibertsalaren erabateko printzipio bat ezartzen dela', 'zuzenketa- nahiz egokitasun-irizpide murriztaileekiko loturarik gabe, eta hierarkia-sailkapenik gabe, gainerako eskumenerako atribuzio-arauei dagokienez'. Irizpide murriztaileak zeinek genozidioa bezalako delitu hain larri baten kasuan, 'delituaren izaera bera eta bere jarraipen unibertsalaren banatutako helburua ezeztatzen baitute'.

Behin espedientearen Auzitegi Nazionalaren 1. Instrukzioko Epaitegi Zentralera itzultzeko babesaren exekutututakoan, genozidio, terrorismo eta torturei

dagokien ikerketa berriro hasi behar izan da, 1999. urtean hasierako salaketa aurkeztu zenean bezala.

Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenarekin 331/99 kausa Entzutegi Nazionalaren aurrean Guatemalako genozidio, estatuko terrorismo eta torturaren biktimetzako justizia lortzeko bitarteko bat bilakatzen da, eta jurisdikzio unibertsalaren printzipioak, lesa gizatasuneko hilketei buruz ari garenean beste edonolako interes nazionalen aurrean lehentasuna duela uler dadin laguntzen du.

### **Guatemalako erreguzko batzordea eta atxilotze-aginduak**

2005eko azaroaren 11n, Entzutegi Nazionalako epaiak, Santiago Pedraz, Guatemalako autoritateei eskaera berri bat burutu zieten Guatemalan 1978tik 1986ra doan garaian zehar Guatemalan burututako genozidio-hilketa, erailketa eta legez kanpoko atxilotekin lotutako lekuko eta nahiz horiekin zerikusia zutenei aitortza hartzeko baimena eman ziezaioten. Eginbide hauetan Juan Antonio García Javaloy fiskalak lagundu zion.

Behin eta berriro eginiko eskaera bat da, zein lehenengo aldiz 2004. urtearen erdialdean igorri baitzen eta luzamenduekin nahiz eraginkortasunik gabe erantzuna, Guatemalako eskumeneko epailetza-organoen aldetik, une horretan Erreguzko Batzordea zehaztu ezin izanik.

Era berean Santiago Pedraz epaileak Romeo Lucas García diktadore eta genozida nahiz Donaldó Alvarez Ruiz, garaiko Gobernazio-Ministroaren aurkako atxiloteta-agindua berretsi zuen. Azken hau, Justiziaren iheslaria 2004ko abendutik, Mexikon bere atxilotzea saihestu eta Panaman errefuxiatu zenean Jorge Serrano Elías lehendakari kolpista ohiak eskaini zion laguntzari esker.

Ikerketa-txostena, behar bezala dokumentatua, Panamako autoritateei entregatu zitzaizen nazioarteko tratatuetan ezarritakoari jarraiki legez jardun zezaten. Gaur egun arte bai Interpol-ek eta bai Panamako Estatuak espainiar auzitegiak hasitako atxiloteta-aginduari ez diote kasurik egin.

2004. urtetik hasita, zeinetan Auzitegi Nazionaletik Nazioarteko Erreguzko Batzorde bat burutzeko eskari bati hasiera eman baitzitzaien, ikerketak egiteko Guatemalako lurraldera dagokion Epaitegiaren lekualdatzearekin, hauek ez dute emaitzarik jaso.

Erreguzko Batzordea bera eratzerakoan, hasiera batean Guatemalako justiziarekin hitzartua 2006ko ekaina eta uztaileko duela gutxiko egunetarako, berriro agerian jarri zen Guatemalako justizia lortzeko ezintasuna eta halaber nola bere sistema judizial bera zigorgabetasuna finkatzeko diseinatuta dagoen.

Erreguzko Batzorde hori baliogabetu egin zen, izan ere, 'aldez aurretikoen' eskariagatik, formalismo areagotu eta zentzugabeen exigentzia, eta etengabeko luzamendua.

Zio bereko 15 errekurtsio baino gehiago organo eta jurisdikzio ezberdinen aurrean aurkeztu eta bideratzea, alde aurretik baimendutako eginbide hauen ezabatzea bilatuz, Guatemalan sistema judizialaren aldetik nola jarduten denaren adibide bat da.

Erreguzko Batzordearen kideek akusatuek aitortzeko azaldu zuten ezetzari aurre egin behar izateaz gainera, lekuko nahiz biktimen aitortpena ere ezinezkoa bilakatu zen.

Amaiera beldurgarri moduan Gorte Konstituzionalaren aldetik aldi baterako babesa eman zitzaion, organo honek biktimen eta lekuko oinarritzko eskubideen alde egin behar duen organoa denean, halaber eta modu berdinean, epaitegien barne-arazo batengatik, zeinetara fotokopiak igorri baitziren eta ez originalak, horrela programatutako datetan edonolako eginbide burutzea behin betirako eteten zelarik.

Lekualdatu zen auzitegiko kideek izan zuten jarrera baketsua eta Guatemalako autoritate judizialen partaidetza nabarmena ikusi ondoren, Santiago Pedraz epaileak Bilaketa eta Atxiloketako Nazioarteko Agindua diktatu zuen, estradizioko helburuekin, akusatu guztien aurka genozidio, terrorismo, tortura, erailketa eta legez kanpoko atxiloketen delituen aztarna serio eta larriengatik.

Era berean bere ondasun guztien bahitura diktatu zuen balizko erantzukizun zibil nahiz diruzkoei aurre egiteko.

Entzutegi Nazionaleko Santiago Pedraz epailea 2006ko ekainaren 24an Guatemalara lekualdatu zen, Auzitegi Nazionaleko zortzi kidek, Jesús Alfonso fiskalarekin batera osatutako erreguzko batzordea eratu.

Bisitaren arrazoia, Guatemalan gertatutako genozidio kasuetako lekukoen eta sindikatuen adierazpenak entzutea, eginbidea zein, momentuz, etenda baitago ikerketa-etena dela eta, jurisdikzio-gatazkaren errekursoengatik nahiz erretiratutako Efraín Ríos Montt eta Óscar Mejía Víctores militarrek aurkeztutako babes- nahiz kexa-errekursoengatik, horrela 15 errekursoen kopururaino.

Santiago Pedraz Magistratua Guatemalan egon zen 2006ko ekainaren 24tik uztailaren 7ra arte, genozidioagatik akusatutakoak ikertzeko alferrikako saiakera batean, zeinek une horretan entzunak izateko nahiz gatazka armatuan zeharreko bere jarrera azaltzeko aukera galdu baitzuten, Rigoberta Menchú Nobel Sariak adierazi zuen bezala, zein prozesu honetako kereilarietako bat baita.

### **Eragozpenengatik Guatemalako agintari ohien aurkako atxilotzerako nazioarteko agindua**

Erreguzko Batzordearen alferrikako bisitaren ondoren, Santiago Pedraz Entzutegi Nazionalako epaileak bilaketa eta atxiloketarako nazioarteko aginduei hasiera eman zieten, Guatemalako Efraín Ríos Montt Gobernuko buru ohiarentzako nahiz herrialde horretako genozidio-delituetan inplikaturako beste zazpi ustezkoentzako zein bere lankidetzaz eza eta jarrera 'eragozgarria' rengatik ikertzen baititu.

Jakinarazitako autoan, magistratuak zortzi pertsona hauen aldi baterako kartzela komunikatu nahiz fidantzarik gabekoa hitzartzen du 'bere atxilotze nahiz estradizioari dagozkien xedeetarako', eta atxiloketa-aginduak bideratzen ditu 'harrapatu ditzaten eta espainiar autoritate judizialaren eskutan jar ditzaten egozten zaizkien delituei erantzuteko helburuarekin'.

Eragindakoak, Efraín Ríos Montt-ez gainera, Óscar Humberto Mejía Víctores Gobernuko buru ohia, Angel Aníbal Guevara Defentsarako ministro ohia, Pedro García Arredondo Polizia Nazionalaren zuzendari ohia, Benedicto Lucas García Ejertzitoaren Estatu Nagusiko buru ohia, Donaldó Alvarez Ruiz Gobernazioko ministro ohia eta Fernando Romeo Lucas Guatemalako Errepublikako lehendakari ohia dira.

Romeo Lucas, zein Venezuelan bizi baitzen, 2006ko maiatzean hil zen, nahiz eta jarraitzen den prozeduran bere heriotzari buruzko egiaztapen

ofizialik ez azaldu, eta horrek Santiago Pedraz epaileak autoaren barne hartzea eragiten du.

### **Fiskaltzak arrazoitutako erabakia**

Santiago Pedraz epaileak erabaki hau hartu zuen Fiskaltzak salatu ondoren, epaileak Guatemalara egindako bidaiari zehar 'salatutako ekintzen ikerketan espainiar autoritate judizialarekin lankidetzat falta argi, etengabe eta borondatezko antzeman zen' akusatuen aldetik, zeinek magistratuari hauei nahiz lekukoei aitortza hartzea eragotzi baitzion. 'Bere jarrera eragozgarriarekin blokeatu egin zituzten ekintzan eta zuzenbide-oinarrian, ez bakarrik bere aitortzak, baita proposatu ziren lekukoenak ere', adierazi zuen Ministerio Publikoak, bere idatzian.

Fiskalak erantzen zuen 'errekurtsoen etengabeko eta jarraipeneko turrustak, organo judizialaren jardura logikoa ekidinez, egoztea ezagutzea ekiditeaz gainera, proposatutako lekukoek benetan gertatutakoari buruzko bere egia instrukzio-egileari kontatu ahal izatea ere eragotzi zuen, horrela Justiziarako sarbidearen bere legezko interesa asebeteta ikustea lortuz'.

Horrela, lehen aipatutako 'autoreak liratekeen aldetik terrorismo, tortura, genozidio, hilketak eta legez kanpoko atxilotzeari dagozkien delitu larriei buruz batzordeak azterna frogatuak' biltzen dituela kontsideratuz, Fiskaltzak kautelazko neurriak hartzea eskatu zituen 'bere errespetuak (...) espainiar jurisdikzioari burla eginez gailentzea ekiditeko.

Bere ebazpenean, Santiago Pedraz-ek argudio hauek bereganatu egin zituen eta, gainera bere bilatze nahiz atxilotzea agindu zituen, hala nola bere kartzelara sartzea, aginduz 'ondasun guztien bahitura zeinen titularrak baitira (...), dagozkien diruzko nahiz erantzukizun zibilak bermatzeko helburuarekin', baita bere banku-kontuen blokeoa ere.

## **Guatemalako genozidioaren epaiketarako argi bat**

Pozaren adierazpenekin baina halaber atsekabearekin bizirik ateratakoek eta biktimen senideek, hala nola giza eskubideetako organizazioek azaroaren 6an, astelehena, Espainiako Auzitegi Nazionalak urte honetako uztailek 7an igorritako estradizio-helburuak zituzten nazioarteko atxilotze-aginduei buruzko Guatemalako Sententzia Penaleko Bosgarren Auzitegiaren ebazpenaren berri izan genuen.

Atxilotze-aginduak Santiago Pedraz Epaileak Efraín Ríos Mont, Oscar Humberto Mejía Víctores, Angel Anibal Guevara Rodríguez, Germán Chupina Barahona, Pedro García Arredondo, Benedicto Lucas García, Donaldo Alvarez Ruiz eta Fernando Romeo Lucas-en aurka agindu zituen zeini Guatemalako barne-gatazka armatuan zehar burututako genozidio, tortura, terrorismo, desagertze bortxatu eta exekuzio estrajudizialen delituak egozten baitzaizkie. Auzitegiaren ustekabeko ebazpena Rigoberta Menchú Tum Fundazioaren aldetik txalotua izan da, hainbat agindu betetzeko bidea emateaz gainera ekintzak gure herrialdean burututako lesa gizatasuneko krimenengatik justizia-bilaketari dagokionean une garrantzitsu bat suposatzen duelako.

Borroka luze baten ondoren, 7 urte bereziki, Espainian prozesua ireki zenetik, azkenean horizontean itxaropen-argi bat ikusten da bizirik ateratakoentzat eta biktimen senideentzat. Ehunka mila guatemalar, langile, nekazari, akademiko eta jende demokratiko indigena nahiz indigenak ez direnen aurka burututako heriotza, tortura, desagertze bortxatu eta genozidioaren arduradunak gero eta hurbilago daude auzitegi baten aurrean egon behar izatetik bere ekintza kriminalengatik epaituak izateko.

Halaber auzitegiak sindikatuen multzotik Efraín Ríos Mont jenerala kanpoan utzi izana ezustekoa gertatu da, zein salatu nagusienetako bat izateaz gainera gaur egun justizia eragozteari dagokionean pertsonaiarik boteretsuenetako bat baita. Justizia-erakundeak askotan bere zerbitzura jarri izan ditu eta herrialdeko auzitegirik garrantzitsuenei bere alde akatsak egin arazi dizkiete. Hala ere, errepikatu beharko dugu justizia luzatu egiten dela baina ez duela ahazten eta orain inoiz baino gehiago esfortzuak areagotu egin beharko direla gure herrialdean burututako genozidioaren osotasuna epaitu dadin eta arrazoi beragatik Ríos Mont-ek ez diola ihes egin behar Guatemalako herriak egiten duen apeu moral, justu eta beharrezkoari. Uste dugu denbora kontua dela justizia nazional eta internazionalako mekanismoen eraginez

burutu zituen krimenen izenean legez eraturako instantzien aurrean derrigorrez erantzun behar izatea.

Erakunde arduradunei bizkortasunez eta atxikimenduz jardun dezaten eskatzen diegu horrela justizia azkar eta egokiari bidea ematea zilegi izateko, batez ere jadanik igorritako eta gauzatzeko zain dauden atxilotze-aginduak bete daitezten. Era berean bizirik ateratako biktima eta biktimen senideekin dugun gure konpromisoa berresten dugu oraindik esfortzu handiak eskatzen dituen borrokan aurrera egiteko. Halaber, gizartea, nekazari, indigena, ikasleria, giza eskubide eta biktimekin lotutako organizazioei, organizazio solidarioei eta iritzi publiko nazional eta internazionalari deialdia egiten diegu Guatemalako auzitegien jarduera zuzena eta independentea exijituz adierazi daitezten, lesa gizatasuneko delituen epaiketarekin lotutako agindu nazionalak eta internazionalak bete arazteko helburuarekin.

Guatemala, 2.006ko azaroak 6

## Nola oroimena, justiziaren atala den

Shhhhhh,  
Utzi ezazu joaten,  
utzi ezazu pasatzen,  
ahaztu ezazu,  
hori iragana da,  
jadanik ez da existitzen,  
ez ezazu atzera begiratu,  
aurrera soilik begiratu

Egunero entzun izan ohi ditugun esaldi hauetako askok, oraindik Guatemalan diharduen bidegabekeri, zigorgabetasun, autoritarismo eta errepresioaren aurpegietako bat adierazten dituzte.

Ahantztura, amnesia, justiziaren jardun ezaren onartzea sustatzen duten esaldiak eta mezuak dira.

Horregatik Guatemalaren duela gutxiko iraganaren esparruan, barruko gatazka armatuan, botere hegemonikoen aldetik isiltasuna inposatu nahi izan zen Guatemalako populazioen aurka burutzen ziren krudelkeriak isilarazteko.

Hala ere populazio hauek nahiz eta beldurra, errepresioa, mina sentitu, gertatutakoa salatzeke eta ez ahazteko erabakia hartu zuten, justizia-sistema batek babestuko zituenaren itxaropenarekin.

Bidezko sistema baten zutabeak indartzea, banakako bidegabekeriak salatu eta ondo ezagutuak izatetik pasatzen da, ezagunak izanik, kolektiboki bere ardura hartu dadin, lehenago justiziarik egin gabe 'ondorengo orrira pasatzea' ekidinez.

Zentzu honetan Myrna Mack-en erailketaren 16. urteurrena gogorazi eta oroitu nahi dut, Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako unibertsitatetako antropologia eremuko antropologo espezializatua, zein 1982an Guatemalara itzuli eta Inforpress Ertamerikarrera sartzen baita, beranduago Gizarte Zientzien Aurrerapenerako Elkartearen fundatzailea, AVANCSO, zein 1990ko irailaren 11n exekutatu izango baitzen Lehendakariaren Estatu Nagusiaren inteligentzia-operazio batean, Guatemalako Gizarte Zientzien Aurrerapenerako Elkartearen bulegoaren aurrean. Ekintza hau botere hegemonikoen aginduagatik burutu zen itzultzailearen populazioek bizi zuten errealitate krudel eta jasangaitzari buruzko salaketa isilarazteko, zein Myrna-k ezagutzera ematen lagundu baitzuen.

Baina nahiz eta Guatemala oraindik gatazka armatuaren testuinguruan aurkitu, erailketa hau ez zen ezkutatu eta isilpean gorde duela gutxiko iraganeko beste kasu asko bezala. Aldiz, salatua izan zen.

Eta horrela Helen Mack, Myrna-ren ahizpa, atxikitako kereilari bilakatu zen, Myrna erail zutenetik hiru urte barru, ekintzaren autore materiala kondenatzea lortuz, eta 13 urteren ondoren, autore intelektualetako bat kondenatzea ere bai, Juan Valencia Osorio Koronela, zeinek atxilotua izan aurretik Guatemalako justiziari ihes egin baitzion.

Gaur egun Myrna jadanik ez da oroitzapen soil bat pertsona-talde txiki baten artean. Guatemalako historiaren atal bat da.



# **Xamán**

***Rigoberta Menchú Tum-en***

Hitzaurrea

Bakearen Nobel Saria



## **Oroitzapenak, pentsamenduak, ametsak eta halabeharrak**

Jende askok, toki ezberdinetan, esan dit inoiz hala oso gutxitan oroitzen dituela bere ametsak. Niri horrek harritu egiten nau txikitatik amets egiten dudana beti oroitzen naizelako, eta horri buruz pentsatu izaten dut. Nire Laj Chimel-eko gure etxetxoaren oroitzapen urrunetan, ziur aski nire ahizpa Anita jaio aurretik, oroitzen dut goizetan esnatzerakoan amets egin genuenari buruz hitz egiten genuela eta nire gurasoetakoren batek, batez ere nire amak, bere esanahia azaltzen zigun. Amets guztiak jendaurrean ez direla azaltzen erakutsi ziguten. Alegia hainbat amets pertsona hurbilenei soilik kontatu behar zaizkiela eta beste hainbat bihotzean gorde behar direla, oroitu eta bere ondorioak jasan. Zeren amets guztiak ezin dira interpretatu. Nire bizitza osoan zehar, ametsak garrantzitsuak izan dira eta maiz gogoetarako, kezkarako, eta itxaropenetarako arrazoi bilakatu dira.

1995eko urriaren 5ean, Estatu Batuen zehar lan-bidaia batengatik Madison-eko hirian nengoela, giharretako min jasanezin batekin jaiki nintzen, oroitu nintzen egunsentian amets ikaragarri bat izan nuela. Amets bat egin nuen, baina batez ere sentipen eta min oso handia neukan. Dorita ikustean, zein itzulian nirekin baitzegoen, esan nion: Auskalo zenbat haur jaio diren gaur gauean! Nik ez nuen heriotzan pentsatu, bizitzan pentsatu nuen. 'Auskalo zenbat haur jaio diren gaur gauean eta agian norbaiti nire izena jarri diote. Eta nork daki agian nik ama horiei haur horiek erditzen lagundu behar izan diet. Min handia nuen. Lanegun luze bat hasi genuen, beti bezala elkarrizketa, hitzaldi eta solasaldiz betea. Azkenean, lagun talde batekin bazkaltzera joan ginen.

Bat-batean errefuxiatuei buruzko elkarrizketa bat hasi genuen. Eta Juan Coc Jaunaz oroitzen hasi ginen, Guatemalara Xamán finkara itzuli ziren errefuxiatuen gidari errespetagarria. Kafea hartzen genuen bitartean Don Juan Coc jaunari buruz eta bizitzaren indar zoragarriari buruz hitz egiten hasi ginen. Berak gaixotasun ikaragarri bati aurre egin eta bere herriaren aurrean hau denbora luzez amestutako lurretara gidatu arte mantentzea nola burutu zuen oroitu genuen. Denbora oso gutxi barru hil zen, bere nebarrebeke jaso zuten lehenengo uzta dastatzeko ere denborarik gabe. Elkarrizketa luzatu egin zen. Une horretan, arratsaldeko hirurak eta lauren artean, sarraskiari buruzko lehenengo berria jaso genuen. Ni aztoratuta eta harrituta geratu nintzen. Gorputz osoan zehar hotzikarak sentitzen nituen. Ezin nuen sinetsi. Denbora gutxian, informazio mingarri hori, mundu osoan zehar zabaldu zen.

Nire erantzuna samintasun eta haserre sakonekoa izan zen. Sinetsi nahi izan nuen sarraskien istorioak, suntsitutako lurren istorioak iraganeko memoria tragikoak zirela. Aldiz, Guatemalako ejertzitoko militarren talde bat Xamán-eko komunitatean sartu zen eta, azaldu ezinezko zirkunstantzian, sua ireki zuen festa bat ospatzeko prestatzen zen jendearen aurka. 10 hildako baino gehiago eta 25 zauritu baino gehiago, baita haurrak, emakumeak eta zaharrak ere, basakeriazko ekintza honetako emaitza tragikoa zen, alegia nire herriko jenderik xumeenaren aurkako sarraski berri honetako.

Urte dezente dira, agian 12 ala 13 bat, Xamán-eko jendea ezagutzen dudala. Mexikora errefuxiatu bezala iritsi zirenean ezagutu nituen. Mendien zehar hilabete bat ala bi ibiltzen pasa zituzten, zapatarik gabe, janaririk gabe, itxaropenik gabe. Bere haur txikiak eta ondasun urriak beraiekin zeramatzen. Heriotzatik ihes egin berriak ziren. Pertsona ugari kontatzen zuten bere seme-alaben, bere senar-emazteen gorpuak lurperatuta utzi zituztela, batzuetan lurperatu gabe, oihanaren bihotzean, sakanen erdian. Jainkoak bakarrik daki zein alderditan geratuko ziren bere hildakoak. Samintasun handiz kontatzen zuten bere etxetxoak sugarrekin estalita nola ikusi zituzten, soldaduek nola suntsitu zuten berea izan zen guztia.

## **Juan Coc**

Horrela ezagutu nituen beraietako asko, iristen ari zirenean Mexikoko kanpamenturen batean tristuren, malenkonien, eta oroitzapen handien historia bati hasiera emateko. Bere duintasuna, bere egia eta bere bizitzeko gogoia baino ez zeramatzen gainean. Inoiz ez dut Juan Coc jauna ahaztuko, zein lider q'eqhí bat baitzen. Lider bat baino gehiago, gizon jakintsu bat zen, oso sentibera. Ez indigenei buruz jartzen diguten estereotipoaren zentzuarekin zeinen arabera guztiok naturalak eta sentiberak baikara. Bera espiritualtasun handi eta sakoneko gizon bat zen. Hainbat dohain berezi zeuzkan, zein guztiok ez baititugu ekartzen.

Bizirik geunden atzerriratu, gerrako biktima bezala, ez genuen beste aukerarik izan, urte askoren zehar etengabe lan egin eta borroka egitea baino. Biziraun eta duintasunez itzultzeko eguna iristeko zain egon. Bagenekien jende guztiak amets handi bat zuela. Lurrera itzultzea, Guatemalara itzultzea. 1992ko urriaren 8an errefuxiatuen itzulerarako hitzarmenak izenpetu ziren hauen ordezkarien eta errepublikako gobernuaren artean. Antolatutako itzulera bat, segurtasunez eta duintasunez burutzeko gure itxaropenak ireki

ziren. Juan Coc jauna hitzarmen horiek izenpetu zituenetako bat izan zen.

Juan Coc jaunarentzako ilusio bakarra bere jendea itzultzea zen, hauek bizitzeko eta lan egiteko lurra aurkitzea eta bizitza berri bati ekitea, egonkortasuna berriro ezagutzea. Guk lagundu egin genien Xamán finka aurkitu eta negoziatzeko, Verapaz Garaian, zein aho batez egokiena bezala hautatu baitzen. Azkenean, Gobernuak lurrak erosi zituen. Baina negoziazioa oso konplexua izan zen. Jendeak pazientzia handiarekin itxaron behar izan zuen, urtebete baino gehiagoz aldi baterako toki batean, bere jabegoko komunitatea fundatu ahal izan aurretik. Toki bat non bere biloben memoria geratuko baita, etorkizuneko belaunaldien memoria. Komunitateko emakumezko eta gizonezko gehienak toki ezberdinetatik zetozen eta askok bere jaioterrira itzuli nahi izango zuket. Han mam, q'eqchí eta q'anjobal jendea zegoen.

## **Xamán**

Azkenean Xamán finkaren jabe izan zirenean, 'Aurora 8 de octubre' (Aurora urriak 8) izenarekin bataiatu zuten eta itxaropen oso indartsua jaio zen. Zeren han Lur Santuak artoa, kafea, hulea, kardamornoa eta beste hainbat ohikoak ez diren produktu ekoizten ditu zeinek jendeari bizimodu duin bat eman ahal baitio. Batez ere gune honetako naturari kalterik eragiten ez dioten produktuak. Guk erabat gure gain hartzen dugu, Xamán-eko berreraikuntzan eta urbanizazioan laguntzeko konpromisoa, 'Médicos del Mundo' bezalako jende hain on eta solidarioarekin lan eginez, zeinek osasun-alderdiak artatu baitzuten, osasun-zerbitzu urgenteenak instalatzeko helburuarekin. Nola bermatu eta artatu haurrentzako nahiz nortasun hirukoitza duten nerabeentzako osasun eta heziketa egoki bat? Alde batetik hiru hizkuntza ezberdin hitz egiten dituzten maiak dira, guatemalar-mexikarrak ala mexikar-guatemalarrak dira. Baina bestalde, inon errorik bota gabeko errefuxiatuen seme-alabak baino ez dira. Mexikora iritsi zirenean haurrek galdetzen zuten: Eta noiz itzuliko gara etxera?. Bere gurasoek erantzuten zieten: denbora gutxi barru. Egoera pixka bat hobetzeko baino ez dugu itxarongo. Itxarote labur hori 12 eta 13 urteko atzerriratze-urte bilakatu zen. Agian familiaren indarrak eta komunitatearen balio garrantzitsuen indarrak, gure kultura maiaren indarrak, hauei haur eta gazte normalak izateko oinarria eman diete.

Mexikoko babesgunera itzuli ziren 200 familiek, Xamán-en 50 familia q'eqchí baino pixka bat gehiago aurkitu zituzten zeinek iraganean finkaren

hainbat lur okupatu baitzituzten. Negoziazio oso ona burutu zen han bizi zirenen artean erabateko hitzarmenera iritsi arte, zein inbaditzaitzat hartzen baitziren, eta lurraren jabe berri bezala iristen zirenak. Elkarrekin 'Batasun Maya' kooperatiba eratu zuten eta amets komunak oraindik handiagoak izan ziren. Eta hor egon ginen, zorionez, gure neba-arrebei itxaropen-bide horretan lagunduz. Berradiskidetze-mezua garbia eta zuzena zen, batez ere ejertzitokoek itzulitakoei gerrillaren euskarri izateaz akusatzen zietenean, altxamenduak bere kabuz pentsatu nahi zuenarekiko mesfidantza erakusten zuen bitartean. Honekin guztiarekin esan nahi dut Xamán-ekiko gure interesa ez dela sarraskiaren krudelkeriatik sortzen. Urteen zehar erailak izan ziren nahiz zaurituta geratu ziren gehienekin batera lan egin dugu. Agian horregatik min sakonagoa ematen du. Eta askotan berretsitako galdera berdina: zergatik? Xamán-ek 1985/86 urtetatik aurrera gatazka armatuaren gunea izateari utzi zion.

Eskuarki eskualde baketsu bat da eta babeslektutik itzuli zirenek bere bizilagun berriekin edonolako norgehiagoka ekiditen jakin zuten. Baina aldiz, bere baliabide urriak jarri zituzten; eskolatxoak eta klinika adibidez, hurbileko herrixkatak bere neba-arreben zerbitzura. Hau guztia nahiz eta ejertzitokoak errefuxiatuak itzuli aurretik tentsio eta norgehiagoka giro bat sortu izan, esanez Chisec-eko komunitatetan, udalerria zeinetakoa baita Xamán, gerra berpiztera etorriko ziren gerrillariak zirela eta, horrenbestez, etsaiak zirela. Baina sustrai komunak ahaltsuagoak izan dira. Gure jendearen apaltasuna eta bi komunitatetako pobretasun izugarria berdinak dira eta pixkanaka lurralde berdina banatzen duten komunitate maien artean harreman baketsuak eraikitzen joan dira.

Hala ere gauza txar ugari gertatu dira Xamán-en babeslekuan hainbeste urte pasa behar izan zituztenak itzuli zirenetik. Juan Coc Jauna bere gidariak, bere kama bese, besteren aurrean joaten dena, leuzemia zeukan, hainbat urte atzerago hil ahal zezakeen gaixotasun izugarri bat. Baina bere indarra bere herria Ama Lurreraino gidatzeko konpromisoan zetzan. Inor atzerritarra, errefuxiatua ala zerbaiten biktima izango ez zen tokiraino. Asko iraun zuen. Guk geuk ez genuen ulertzen nola nekazari apal eta pobre batek zeinek bere odola maiz garbitzeko modurik ez baitzuen, zeren leuzemiak gero eta gehiago egiten zuen aurrera, nola iraun zuen eta jasan zuen guztia iristeko indarrak lortu zituen unera arte. Jendea berriro finkatu zen eta orduan berak agurtu egin zituen. Xamán-eko kanposantuak bedeinkatu zuen lehenengo hildakoa da.

## **Beraiekin datozen ezbeharrak**

Hainbat hilabete beranduago ezbehar natural bat gertatu zen. Urakan-haize bat etorri zen zeinek etxe xumeetako sabai guztiak, jendeak zeuzkan gauza, xafla urriak altxatu baitzituen. 1995eko apirilaren 16an gaueko 8etan ekaitza hasi zen eta hiru ordu baino gehiagoz iraun zuen. Haurrek negar egiten zuten, txakurrek ulu egiten zuten eta jendeak oihu. Jendea harrituta zegoen, naturak bere handitasuna, bere agresibitatea, bere ahalmena erakutsi zieten. Erabateko babesgabetasun, beldur nahiz penaz betetako gau luze bat pasa zuten. Hori gertatu zenean, nik Xamán-eko hainbat liderrekin hitz egin nuen esateko agian han falta zena otoitza zela, bere lurrarentzako eskariak. Lur berri hori, komunitate berri hori ondartzeko guztien konpromisoa bezala zen. Badirudi apaltasun pixka bat falta zela lurra lehen gure herritan egiten zen bezala bedeinkatzen saiatzeko. Bere pom, bere kandelak erre eta bere cuxa eman. Eskatu baimena ama lurrari esaten zuten gure gurasoek.

Xamán aurrera ateratzen hasi zen. Hirigunea lurrez estaltzea amaitu genuen, jadanik zerbitzu telefonikoa instalatzen ari zen. Hule eta kardamomoarentzako, zein kooperatibak ekoizten baititu, merkatu hobego bat bilatzen jarraitu zen eta etxebizitza formal eta duinak eraikitzen lan egiten hasi zen.

Irailaren hasieran komunitateko hainbat liderrekin bildu ginen hauei bere lehenengo urteurrenaren festa, urriaren 8an, antolatzen laguntzeko. Festa handi bat burutzea kontenplatzen zen. Eskualde ezberdinetako itzulitakoen ordezkariak deialdia egitea. Herriko bizilagun kopuru handi bat gonbidatzea pentsatu genuen. Futbol partiduak eta beste hainbat kirol-joko planeatu ziren. Pentsatu genuen hurbileko komunitatetako hainbat marink festa horretan musika jo behar luketela eta festa oso handia izatea lortu behar genuela. Bataiatuak izango ziren 12 haur zeuden, erlijio katolikoan konfirmatuak izan behar zuten beste hainbat haur eta gazte zeuden. Guztia egun berdinean egin behar zen. Urriaren 7tik hasita urteurreneko egun handi hori eskertzeko zeremoniak hasiko ziren. Hau bezalako festak izaten direnean, komunitateak bere autoritateak aldatu eta bere liderren paperak berresteko aprobetxatu izan ohi du. Katekistak, emakumeak eta gazteak elkartzen dira. Guztiok ziur geunden data gogoangarri bat izango zela.

## **Xamán etorkizuneko eredia**

Analista eta erakunde ugari ulertzen zuten Xamán-eko esperientzia beste hainbat errefuxiatuentzako itzulera-eredu bat izan ahal zitekeela. Lehenengo, adiskidetze atalarengatik, bigarren, denbora-epe urri batean komunitatea antolaketa maila handi batekin altxatzen hastea lortu zelako. Eredu bat hurbileko beste hainbat komunitatetarako, zeren iritsi berriak azkar hasi ziren bere bizilagunei zerbitzu medikua ematen. Komunitate ugari medikamentu bila etorri ziren herrixka honetara eta ikusi zuten adibidea jendearen beraren kontzientzia nahiz esfortzuekin bizitza duin bat lortu ahal denarena izan zen. Jartzen ari zen itxaropena oso handia zen. Jende ugari bere biztanleek belarriarentzat atsegina gertatzen den Aurora Urriak 8 izendatutako komunitate berrira esperientzia itxaropentsu horietatik zerbait ezagutzera joan zen. Horregatik, sarraskia eta jende hain xumearen aurkako zitalkeria horrekiko 'zergatik' galdera errepikatuaren aurrean, egunero bizi duen krudeltasunetik eratorritako hainbat zauri ixtea bilatzen zuen komunitate indigena baten aurka, hor zitalkeri bat burutu zela baino ezin da pentsatu, gaiztakeri sakoneko ekintza bat.

## **Osteguna, urriak 5**

1995eko urriaren 5ean, osteguna, eguerdi aldera, Xamán komunitateko biztanle gehienak bere ohiko lanetan ari ziren bitartean, beste hainbat, enkargatutako komisiotakoak, izugarritzko galera bat eraikitzen amaitzen saiatzen ari ziren zeinek urteurreneko dantzaldirako balioko baitzuen, komunitatearen barruan soldatu armatuak zeudenari buruzko hasierako berriak iritsi ziren. Eskolatik irteten ari ziren haurrak izan ziren hauek ikusten lehenengoak. Militarrek azaltzen diren edozein tokitan, beldurra eragiten dute, batez ere jadanik bere bidegabekeriaren biktimak izanak direnei.

Ondoren hainbat emakumek informazioa egiaztatu zuten, alegia militarren talde handi bat kooperatibaren hirigunea inguratzen duen oihanean zehar ibiltzen zihola. Komunitateko lau gidari soldaduen bila irten ziren beraiekin hitz egin eta erretiratzeko eskatzera. Xamán-en urte beteko egoitza burutu ondoren hori zen lehengo aldia zeinetan ejertzitza finkara sartzen baitzen, eta hau kooperatibaren jabego pribatua da.

Minutu gutxi barru, oihanaren barruan, gidariek tenienteorde baten agindupean zeuden 25 soldadurekin egin zuten topo. Soldadu guztiak, burua

barne, indigenak eta gazteak ziren beraiek bezala. Ulertarazi nahi izatean finkara baimenik gabe sartzerakoan Guatemalako gobernu eta errefuxiatuen artean 92ko urrian izenpetutako hitzarmenetako bat bortxatzen ari zirela, Antonio Lacán Chaclán tenienteordeak, zein unitatearen buru bezala identifikatu baitzen, esan zuen beraiek bazekitela festa bat ospatzekoa zela eta parte hartzera zetoze. Gidariak militarrei kooperatibako lurretatik berehala irteteko eskatu zieten. Azaldu zieten komunitateak ez zuela bere presentzia onartuko eta honek gehien bat beldurra eta deserosotasuna eragingo zuela. Ofizialak esan zuen ezetz, esanez beraiek festara gonbidatuak izan zirela.

Hiru emakume nagusi bi taldeek hitz egiten zuten tokiraino iritsi ziren. Buru militarren argudioak entzutean, haserretuta esan zuten ez zela egokia gidariak soldaduekin tratatzen aritzea mendiaren erdian. Oso haserre exijitu zuten guztiak herriaren erdigunera joan zitezen eta komunitate osoaren aurrean hitz egin zedila. Eta horrenbestez komunitatearen erdigunera lekualdatu ziren.

Jadanik hirigunearen bihotzean, eskola eraikitzeko gordetako eremuan, jendea biltzen hasi zen, bere gehiengoan emakumeak eta haurrak. Gidariak bozgorailutik auzo ezberdinetako bizilagunei deika hasi ziren, non hizkuntza maia bera hitz egiten duten familiak elkarrekin bizitzen baitira. Pixkanaka taldea handitzen joan zen 250 ala 300 bat pertsonen osatu zuten arte. Emakume mam batek, zein oso ederra eta sortzailea baitzen, Rosenda Sales deiturikoa, argazki-kamera bat eraman zuen eta hainbat argazki atera zituen zeinetan soldadu armatuen inguruan ilargi erdia eratzen zuten haur, emakume, zahar eta gizon gazte gutxi ikusi ahal baitira. Argazki horiek oso tristeak dira. Guztiak, soldaduak eta biztanleak, neba-arreba indigenak dira. Ondoren burutu genuen ikerketan soldaduetako batzuk 14 eta 15 urte zituztenean erreklutatuak izan zirela jakin genuen. Militar gehienak oso gazteak dira, batzuk ia haur batzuk. Argazkitan gerrako armak ikusten dira, fusilak, metrailadoreak, granada-jaurtigailuak, desarmatuta eta babesik gabe zegoen biztanleria zibilaren aurka erabiliak izateko prest. Beldurtutako haurren begiak, jakin-minez begiraturaz minutu gutxi barru bere urkatzaileak izango zirenei.

Teniente ordeak bere argudioak berriro errepikatu zituen. Gidariak kooperatibatik berehala irten zitezen berriro exijitzen zuten. Emakumeek, hauek batzuk oso haserre, soldaduei oihu egiten zieten ez zutela irten behar Guatemalarako Nazio Batuetako Misioaren, MINUGUA, behatzaileak

iritsi arte eta paper batean idatzita geratu arte urriaren 12ko Hitzarmenekiko bortxatze hori burutu zela. Idatzita geratu zedila soldaduek jabego pribatu batean legez kanpoko sarraldi bat burutu zutela. Oroitzapen izugarri ugari kolpatzen ziren, duela 13 ala 14 urte, bere herrixketako sarrasketatik bizirik irten zirenen buruetan. Oihuak eta erreklamoak ugaltu ziren, bereziki emakumeenak. Batzuk exijitzen hasi ziren soldaduek armak lurrean utzi zituzaten MINUGUA-ko funtzionarioak iristen ziren bitartean. Giroa tirabiratsua jarri zen minutu gutxiren buruan. Lekuko batzuk esaten dute patruila militarreko burua iratiaren bidez norbaitekin komunikatzen ikusi zutela. Pertsona berdinek ziurtatzen dute une batzuk geroago lepoan zeraman zapi gorriarekin soldaduei seinale bat egiten zirela.

## **Sarraskia**

Eta horrela hasi zen sarraskia. Soldaduak bere fusilekin norabide guztietarantz tiro egiten hasi ziren. Hilda erori ziren lehenengoak militarren aurrean protesta egiten ari ziren emakumeak izan ziren. Pedro Medina, gidari gazte eta estimatu bat, zaurituta erori zen eta lurrean errematatu izan zen altxatzen saiatu zenean. Maurilia Coc Max neska txikia, zeinek ia 7 urte baitzitu, bizkarretik eraila izan zen bere aitak etsita babestu zedin oihu egiten zion norabiderantz korrika egiten zuen bitartean.

Estutasun eta beldurrezko oihuen erdian bi granaden eztanda entzun zen. Ikaraz beteta ihes egiten zuen jendearen erdian geratu ziren hiru soldadu, hanketan zaurituak izan ziren urrunago zeuden soldaduek jaurtikitako tiroengatik. Soldaduei jendetzaren artean galduta geratu ziren bere kideen zortea ez zitzaien axola izan. Balen azpitik korrika zihoazen emakumeen irudi izugarriak, bizkarrean seme-alaba jaio berri bat lotuta zutelarik eta beste bi haur txiki eskutxoetatik arrastaka eramanez. Guztiek alde batetik bestera korrika egiten zuten bizitza salbatzea bilatuz. Fernando Chop-ek, 17 urteko irakasle gazte bat, oso estimatua 14 urte zituenetik bere hezitzaile zaletasuna betetzen hasi zelako, bizkarrean 2 tiro jaso zituen korrika egiten zuen bitartean eta ia babesa aurkitu zuenean. Zaurituetatik hainbat lurrean errematatuak izan ziren, Lacán Chaclán erretiratzeko agindua oihuka ematen hasi zen unean. Bazirudien hiltzen ari zen norbait errematatzea suertatzen zitzaien lehenengo aldia ez zela.

Zauritu gehienak bere etxetan babesa aurkitzen saiatu ziren. Larrienetako batzuk 'Medicos del Mundo' ko klinikarantz arrastaka joaten ziren laguntza bila. Rosendak, zeinek hanka bat oso larri zaurituta izateaz gainera hanketan

ezpalak sartuta baitzituena, argazki baliotsuak zituen kamera salbatzea lortu zuen. Norbaitek ordularia ikusi zuen: egun izugarri bateko arratsaldeko 2etatik 10 minutu pasatzen ziren. Odolezko beste amesgaizto bat, herri maia baten oroimenean zauri berri bat. Soldaduek neurrigabe egiten zuten korrika, pasatzen ziren tokitan aurkitzen zituzten etxeetara tiro eginez. Sarraskiaren tokitik nahiko urruti, erretiratzeko zen militarren taldetako batek Santiago Tut Pop-ekin egin zuen topo, ia 8 urte zituen mutiko q'eqchí bat. Santiaguero erreka txiki batean arrantza eginez jolasten aritu zen eta eskuan haga bat eta hari bat zekartzan. Soldaduak ikusi zituenean bere etxeranzko bidean korrika egiten hasi zen. Lehenengo tiro batek eskua eta besaurrea erauzi zizkion, baina korrika egiten jarraitu zuen minez oihu egiteaz gainera bere amari deitzen zion bitartean; bigarren tiro bat bizkarrean sartu zitzaion eta beste batek burua txikitu zion. Santiago bidearen ertzean hilda erori zen. Bere aldamenen geratu zen ilusioen arrantzalearen hagatxo. Behin eta berriro bizirik ateratakoek eta lekukoek samintasun handiz behin eta berriro kontatu izan didate gertatutakoa; behin eta berriro komunitatearen eta biktimen negarrak ikusi eta entzun ditut.

Zortzi gorpu geratu ziren sarraskiaren tokian botata. Maurilia komunitateko klinikan hil zen non desesperatuta bizitza salbatzen saiatu baitziren. Santiagoren gorpu txikia, urruti, bidearen ertzean. Fernando Chop, haur irakaslea, hurrengo egunean hil zen lekualdatua izan zen ospitalean. Zitalkeriaren saldo izugarria: 11 hildako eta 26 zauritu, urriaren 5 hartan zeinek festarako prestakizunen pozarekin hasi baitzuten eguna. Gutxi gora behera bi ordu eta erdi beranduago, bat bestearen atzetik, helikopteroak iristen hasi ziren eta gure jendearen minaren irudiak mundu guztian zeharreko itzulia burutu zuen.

Gau horretan bertan, zaurituak helikopterotan hiriburuko ospitaletara lekualdatuak ziren bitartean, Gobernuak Defentsarako Ministroaren ahotik gertakizunen bere bertsioa jendarteratu zuen. Ahalik eta zinismorik handienarekin, Mario Enríquez Jeneralak esan zuen patruila militar batek Xamán-eko biztanleriaren erasoak jasan zuela. Hainbat emakume agresibok soldaduei armak nola kendu zizkietenari buruzko kontaketa zentzugabea burutu zuen, zeinekin kontrolik gabe tiro eginez hasi baitziren, erabiltzen ez zekizkitelako. Emaizta, Jeneral lotsagabearen arabera, biztanleriaren barruan hildakoak eta zaurituak izan ziren. Jeneralak sarraskiari buruzko bere egia, bera pertsonalki han egon izan bazen bezala, bere gain hartzen zuen. Noski bertsio hori ez zuela inork ere sinetsi eta ekintza makur eta basati honekiko gaitzeste-giroa sakontzeko baino ez zuen balio izan.

## **Nire presentzia Xamán-en**

Berehala Estatu Batuetako nire lan-itzulia ezeztatu nuen eta Doritarekin Guatemalara itzuliko gintuen lehenengo hegazkina erreserbatu nuen. Gustavo Meño-ri eskatu nion, zein gure Fundazioko Zuzendaria baitzen, berehala Xamán-era lekualdatu zedila eta beharrezkoak liratekeen neurriak hartu zituzala komunitatearekin genuen elkartasuna adierazteko. Hilak 6ko goizaren lehenengo orduetan, Gustavok sarraskia jasan zutenen gorpuak hilak izan ziren leku berean aurkitu zituen. Samintasun eta minaren irudiak erdigarriak gertatzen ziren. Familia osoak negarrez zeuden bere hildakoen aldamenean. Otoitz egin eta bere kandelak pizten zituzten bitartean. Haurrek eta gazteek bere oroimenean azalpenik ez zeukan ekintza odoltsu bat grabatzen zuten. Santiagoren gorpua areka berdinean botata jarraitzen zuen, bidearen parean, ejertzitoak egun batean abereak bezala indarrez erreklutatu zituen soldadu gazteen bihotzean erein ahal izan zuen gaitzakeri eta gizatasun ezaren maila ikaragarriaren lagin moduan, krudeltasunez entrenatuak izan ziren eta agian inoiz ezin izango dute bere herriarekiko duten bere zorra ordaindu.

Bitartean, Ministerio Publikoko Fiskalak eta Chisec-eko Bake-Epaileak frogak funtsik nahiz ganorarik gabe jasotzen zituzten. Komunitateari ez zioten inolako instrukziorik eman frogak nahiz sarraskiaren tokia kontserbatu eta babesteko. Ez zuten hesitu eremua non hildakoak baitzeuden. Poltsa baten barruan jendeak jaso eta modu inozentean entregatzen zizkieten balazorro ugariak nahasten zituzten. Gustavo Meñoek Fiskalaren izenagatik galdetu zuen eta Alcides izeneko gizon bat zenaren sorpresa hartu zuen, alegia, Epailea izanik, 1988an lehenengo aldiz nire lurrera itzuli nintzenean nire atxiloketa agindu eta kartzelan sartzen saiatu zen pertsona berdina. Gure bideak berriro gurutzatzen ziren, baina oraingo honetan zirkunstantzia izugarriagotan. Agerikoa denez epaile anker hau ez zen asko aldatu. Jendearen lekukotasunek adierazten dute berak ahal zuen guztia egiten zuela sarraskiari zegozkion begien bistakoak ziren gauzak ezabatzeko.

## **Lehenengo urteurrena**

Egun horretan Xamán-eko komunitatearen tenplea argi eta garbi islatzen duen zerbait gertatu zen; min orokorraren erdian, gidariek biktimen senideen iritzia hala nola gainerako komunitatearena kontsultatu zuten eta bere lehenengo urteurrenaren ospakizunarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu

zuten. Bizitzak heriotzari irabazi behar dio, esaten zuten, eta festa bere urkatzaileei Juan Coc Jaunaren herriaren fedea eta itzaropena hiltzeko bere saiakeran porrot egin zutela esateko modurik hoberena izango zela aldarrikatzen zuten.

Xamán-era jendaurrean salatzaile bezala komunitatearen eskaria onartzen nuela eta hastera zihoan prozesu judizialean zuzenean parte hartuko nuela aldarrikatu ondoren iritsi nintzen. Prentsaren aurrean esan nuen ekintza zital horren autore material nahiz autore intelektualen aurkako legezko zigorra bilatuko genuela. Jende guztiaren aurrean eta komunitatearen aurrean berretsi nuen itxarondako urriaren 7 hori iritsi zenean. Inoiz ezin izango dut ahaztu ospakizun hori zeinetan 12 haur txiki bataiatuak izan baitziren, erailen hilkutxak han zeuden aldi berean. Bidegabekeria eta heriotzarengatik minez negar egiten zen tokian, aldi berean Zeruko eta Lurreko Bihotzari eskerrak ematen zitzaizkion bizitzaren mirariarengatik. Hildakoen kutxak lorez beteta zeuden, kandelez eta beilariez inguratuta. Emakumezkoek eta haurrek oihuka negar egiten zuten bitartean beste batzuk ozenki otoitz egiten zuten, beste batzuek pom deiturikoa erretzen zuten, beste hainbatek himno erlijiosoak abesten zituzten, eta beste batzuk isilik zeuden. Eta guztia bereziki hain ederra zen toki hartan gertatzen zen: haran txiki hautsi bat, muino leun eta erreka ugariak zeharkatzen zuten haranean, oihaneko mendi-lepoez inguratuta zeinetan papagaien nahiz guakamaioen poza entzuten baita, tximu zaraguatzen ulu izugarriarekin batera. Han emakume maia apal honen eta ereduzko komunitate horren arteko anaitasun-konpromisoa zigilatuta geratu zen.

Salatzaile partikular bezala, 'atxikitako kereilaria' da izen teknikoa, parte hartzeko erabakia ez zen erraza izan. Banekien erantzukizun handi nahiz oso arriskutsua nire gain hartzen ari nintzela, zeinetan, alde batetik, sistema judizial ustel eta eraginik gabeko bati aurre egin beharko bainion, eta aldi berean ejertzitoarekin zuzenean borrokatu beharko bainuen. Askok pentsatzen zuten aldez aurretik galdutako ekintza bat zela. Justiziaren nahiz zigorgabetasunaren nahaspilen zehar ibiltzeko unea zen. Pentsatu egin nuen, iritziak entzun nituen, aholkuak eskatu nituen.

## **Kereilaria**

Nire erabakia garbi geratu zen. Arrazoi askorengatik egin behar zen: biktimek justizia bizitzeko zuten eskubideagatik; auzitegietara sarraski bateko

arduradunak eraman ahal ziren lehenengo aldia zelako; zigorgabetasunaren aurka borroka egiteko betebeharrak moralarengatik. Eta arrazoi garrantzitsuenetakoa, epe luzera, legezketasunaren bidea indartzeko beharri buruzko mezu hezitzaile bat transmititzea izan zen, zuzenbidezko estatuaren eraikuntza parte hartzeko. Nire bizitza osoan zehar nire ahotsa zigorgabetasunaren aurka egitearekin elkartu nuen. Baina oso ezberdina izan zen auzitegi batetik bestera egunak eta egunak pasatzeko ausardia izatea, memorial bat besteari atzetik aurkeztea, prozesu-kode penaltaren eta konstituzio nazionalaren artikulua paragrafoz paragrafo irakurri eta aplikatzea.

Gogoeta hauek idazteko unean jadanik zuzenbidearen denbora-epe bat pasa da sarraskia gertatu zenetik. Prozesu judiziala oraindik ez da bukatu eta ez da erabat ziurra honen amaieran justizia egingo denik. Mehatxuz, eragozpenaz eta tranpez betetako bide bat izan da. Foru Militarren aurka egiten gure burroka, zein ez baitzen militarrek estaltzeko erabiltzen zuten zigorgabetasunaren zapi zikina baino, eta irabazi egin genien. Bizitza oso zaila egin digute baina militarrek beraiek burututako hilketak ez epaitzea lortu gure. Orain epaiketa auzitegi zibiletan dago.

Aurre egin dugu eta egiten jarraitzen dugu, ahalduen mende egoten eta justizia gehien ordaintzen duenari saltzen ohitutako epaile eta auzitegien ustelkeriaren aurka. Abokatu defendatzaileen trikimailu guztiak banan bana gaitzetez suertatu zaigu, zeinek urteen zehar mehatxuak, eroskeria eta legearen bihurrikeriak konbinatu baitituzte bere defendatuen hilketak zigorgabetasunean utzi ahal izateko.

Gure ikerketa propioekin ejertzitoko organismoek hala nola justizia emateko ardura duten funtzionariotako batzuk burutu dituzten frogak desagertzea nahiz suntsitzea gaitzeten joan gara. Beharrezko aholkulari nahiz peritu teknikoak bilatu eta kontratatu behar izan ditugu dagozkien organismoen akatsak eta ez egiteak gaitzetez. Eta zorrez bete gara prozesu judizial luze eta konplexu baten kostu ekonomikoak estali ahal izateko. Omenaldia eskaini behar diet Ministerio Publikoko fiskalei eta epaile zintzoei zeinekin zailtasunei aurre egin baitiegu. Mehatxuek eta probokazioek eguneroko gauzak izaten jarraitzen dute.

Eta nahiz hori horrela izan, jarri genituen helburuak pixkanaka betetzen joan dira. Elkarri laguntza eman diogu, justizia lortzeagatik borroka berdinean dauden beste hainbat neba-arrebekin. Horrela jaio zen

‘Zigorgabetasunaren aurkako Aliantza’ eta elkarrekin aurrera ateratzeko indarra aurkitu genuen. Xamán komunitateak eta bereziki sarraskitik bizirik atera zirenek Juan Coc Jaunak transmititu zieten izpiritu bera mantendu dute eta, zoritxarren gainera, etorkizunean itxaropena izanik lanean jarraitzen dute. Urte eta erdi baino gehiagoren zehar eramatea suertatu zaien lege prozesu zailean justizia egingo denaren fedea dute. Sarraskia gertatu zen tokian 6 gelako eskola eder bat eraiki zen, non komunitateko hurrek egunero bi jardunalditan banatuta ikasten baitute. Sarraskia jasan zutenak ez ahazteko modu bakarra da.

### **Prozesu Judiziala eta justizia-itxaropena**

Esperientzia begi juridikoekin ikusten bada, gauza oso garrantzitsuak lortu dira. Foru Militarrean irudikatutako zigorgabetasunari emandako aurrez aurreko kolpea; kartzelara eramatea eta legezko epaiketa bati hasiera ematea, lehenengo aldiz Guatemalan, sarraski bateko arduradun materialei; lehenengo aldiz ‘exekuzio estrajudizial’eko delituaren kalifikazioa lortzea; epaile ustel baten aldetik baldintzapeko askatasunean utziak izan ziren hainbat soldadu kartzelara itzuli araztea. Epaile ustel hori bere aulkitik ateratzea lortu zen, nahiz eta legearen aldetik zigortua izatea ez genuen lortu. Eta irabazten joan izana banan bana defentsaren abokatu militarrek erabilitako legezko truku eta tranpa guztiak. Ziur nago esfortzu hau guztia hainbeste amestu dugun Guatemala eraikitzeke lagunduz doala.

Eta hori lortzeko jende askoren jakinduria, pairamen eta ausardia behar izan da. Bi pertsonen bide honetan aztarna oso sakona utzi dute. Altuera oso txikiko emakume bat, baina oso handia bere kemen nahiz inteligentziarengatik, alegia María Estela López Funes, Guatemalako abokatua, zeinek epaiketaren bideratzeari dagokion zama guztia bere gain izan baitu. Eta gizon bat, jaiotzaz Argentinakoa eta bokazioz Gure Amerikaren semea, Eduardo Salerno doktorea, zein oinarritzakoa izan baita bere eskarmentu eta talentuarekin hainbeste oztopo eta arriskuen erdian bide zuzena tratatzeko.

Beraiek bezalako kalitate etiko eta morala duten pertsonen, Juan Coc Jauna bezalako jendea, egunez egun mundu justu eta gizatasun handiagoko bat eraiki ahal izango dugunaren sinismena berresten laguntzen didate. Halaber kulturen arteko harremanaren utopia indartzen laguntzen didate. Ezin dut ziurtatu azkenean kasu honetan zigorgabetasunari irabaziko diogunik eta

biktimentzako justizia egongo denik. Ez dakit ziur Xamán-eko sarraskiaren autore intelektualak identifikatu eta epaitzea lortuko dugun ala ez. Ziurtasunez baieztatu ahal dudana da esfortzu honek guztiak pena merezi izan duela, asko garela, gehiengoa, zigorgabetasunarekin amaitu nahi dugun emakumezkoak eta gizonezkoak, indigenak eta ladinoak. Hori ere askotan amestu izan dut.





**Xamán-eko**

**sarraskia**



*'Han zegoen Pablo Coc Coc geratuta, zeini burezurra suntsitu baitzizaion. Halaber Francisco Hernández zegoen, zeini esku batetik odola baitzerion eta bere aldamenean soldadu bat zeinek bere kideei ateratzeko eskatzen baitzieten, eta honi tenienteordeak erantzun zion isiltzen ez bazen, berak pertsonalki errematatuko zuela une hartan bertan. Halaber gogoratzen naiz Pedro Medina Sánchez, zein pixka bat harantzago lanean ari baitzen, baita ere zaurituta erori zela; ondoren soldaduak tiro eginez hasi ziren eta altxatzen saiatzen ziren haiak guztiak errematatzen zituzten; oroitzen naiz Pedro Medina eta Juana Jacinta horrela errematatu zituztela'.*

### ***Isiltasunaren Oroimena***

#### **Nahigabetik itxaropenera**

1995eko urriaren 5ean, kokalekuaren fundazioaren lehenengo urteurrenaren bezperan, eta bakea sinatu zenetik urte bete barru, 26 soldaduk osatutako patruila militar batek **Aurora urriak Zortzi** komunitatera sarraldia burutu zuen, zein Chisec-eko **Xamán** finkan, Verapaz Garaia, kokatzen baita; eta hau Guatemalako ia lau hamarkadan zehar bizi izan zuen barne gatazka armatu luzearen azkeneko sarraski kolektiboa bilakatuko zen. Xamán finkako biztanleei eginiko eraso militar honen saldo makabroa hildako hamaika pertsonetako izan zen, hiru haur errugabe barne, eta horrez gainera hogeita zazpi zuritu baino gehiago zein, hainbat hilabeteen zehar, hiriburuko ospitale ezberdinetan artatuak izan baitziren.

Guatemalan erregistratutako zibilen sarraskien zerrenda luzearen erdian desegin ahal izango zatekeena, duintasunezko, indarrean zegoen zigorgabetasunaren pareta pitzatzeko borroka, hala nola justizia bilatzeko borroka amaiezinen kasu enblematiko bat bilakatu zen. Xamán kasuak hitzez hitz Guatemalako justizia-sistema probatzera etorri zen, aparatu judizial nazionalen akats sistematiko guztiak biluztuz, botereen arteko independentzia zaila ilustratuz eta Guatemalako bizitza publikoaren eremuetako asko eragiten dituen ustelkeri urratzailea nabarmenduz. Baina

Xamán kasua halaber gizonezko eta emakumezko ausarten agertokia izan zen, hala nola abokatu, fiskal eta magistratu etikoena zeinek erakutsi baitziguten justiziak, erresistentzia nahiz ergelkeriaren aurka, 1954an Jacobo Arbenz-en uzkailearen ondoren inposatu zitzaigunaren aldean ezberdina den Guatemala bat eraiki dadin lagundu ahal duela.

Sarraskiaren ondoren, komunitateko bizirik atera ziren kideen aldetik egia eta justiziaren bilaketa behar bat garatu zen, Guatemalan zehar gatazka armatuak erein zuen 200 mila biktima baino gehiagoren oroimenari omenaldi batean bilakatu arte, hala nola borondate oneko pertsona ororentzako zein, bere gune propiotatik, egunez egun, nazioaren proiektu berri bat bultzatzen saiatzen baitira, bizitzarekiko, gure ezberdintasunekiko eta guztion duintasunarekiko errespetuzkoa dena.

Prozesu luze honen historia, garrantzitsua da ezagutzea. Guatemalako historian lehenengo aldiz, biztanleria indigena eta nekazari batek militarrek epaitu eta hauentzako zigorra exijitu zuen biztanleria zibilaren aurka burututako delituengatik, foru militarra hautsiaz eta bere kasua auzitegi zibilen aurrera eramanez. *Hortik dator oihu hau: Xamán-en jaio zen itxaropena.*

## **Gerraren izuak eta atzerriratze masiboaren fenomenoak**

1954an Jacobo Arbenz Guzmán-en gobernuaren uzkailearen ondoren guatemalarrak gehienek adierazi zuten nahigabe handia, ondorengo hamarkadan zehar areagotu egin zen ejertzitoaren gazte ofizialen iraultza batera iritsi arte zeinek, 1962an, lehenengo mugimendu armatu matxinatua sortu baitzuten. Errepresio-estrategiaren mailakako igoera laster iritsi zen, baina matxinada-fokuak suntsitzetik urrun, estatuko indarkeriaren atsekabea piztu eta bere adierazpen antolatuen anizterea etorri zen.

70. hamarkadaren amaierarako, mugimendu matxinatuak presentzia oso handia lortu zuen herrialdeko alderdi askotan burutzen zituen bere jardueren bidez, eta halaber gizarte zibileko organizazioetan nahiz taldetan zuen eraginagatik, hala nola landa-eremuetako komunitate nekazari eta indigenetan, zeinetan egunez egun gorantz baitzihoazen.

Errealitate horren aurrean, Guatemalako botere-sektoreek, bere gobernu-aparatua eta ejertzittoa barne, matxinaden aurkako benetako politika bat diseinatu eta inplementatzea erabaki zuten zalantzan jartzen zetorren

mugimendu hau erabat suntsitzeko eta bere pribilegioen tradizio luzea eraberritzeko nahiari jarraiki. Erantzunaren handitasuna hainbestera izan zen ezen, gatazka armatua 1996. urteko abenduaren 29an formalki amaitu zenean, Nazio Batuek politika horiek **genozidak** bezala kalifikatu baitzituzten, gutxi gora beherako 200 mila biktima; 155 mila hildako, 45 mila desagertu, 500 mila errefuxiatu eta milioi bat baino barruko desagertu gehiago estimatuz.

1982ko martxoaren 23an estatu-kolpearen bidez Efraín Ríos Montt jeneralak gidatzen zuen triunbiratua boterera iritsi zenean, eta Etxe Zuritik Reaganek jasotako komunismoaren aurkakotasun bizi eta nagusiak suspertutako testuinguru kontinental batean, Guatemalako indar militarrek komunitate zibiletako sarraskiak aniztea hautatu zuten, batez ere landa-eremuan, sarraski-kanpaina zabal eta tragiko bat sustatuz, zein **lur suntsitua** bezala ezagutzen baita. Modu planifikatu eta sistematikoan, matxinaden aurkako eskema berritzaileei erantzunez, Guatemalako ejertzitoak, jadanik politika-briden nahiz brida militarren erabateko kontrolarekin, mapa nazionaletik 400 herrixka nekazari baino gehiago ezabatu zituen eta 626 sarraski kolektibo burutu zituen.

## **Babeslekua**

Errepresio-olatu izugarri honen aurrean zeinek 70. hamarkadaren amaieratik herrialdearen atal handi bat kaltetu baitzuen, familia eta komunitate ugari atzerriratzearen bide gogorrari ekitea hautatu zuten. Batzuk errepublikaren iparraldeko mendietan sartu ziren *'beranduago CPR, Erresistentziako Biztanleriaren Komunitatea, bezala ezagututakoak'*, beste hainbat herrialdearen barruan berriro kokatuak izatera behartuak izan ziren *'lekualdatuak'*, eta beste hainbat milakak Mexikon babesleku ziorra bilatu zuten. 1983ko urtearen amaierarako, genozidioak bere punturik gorena lortu zuen, Guatemalako gerrillak bide armatuaren bidez amestutako gizarte eraldaketak lortzeko itxaropen oro galdu zituen eta goi-lautadako biztanleria indigenaren hein handi batek indarkeri, beldur eta heriotzaren aztarnak jasaten zituen.

Mexikora ihes egitea hautatu zuten komunitateak, hasiera batetik nekazari mexikarren aldetik modu espontaneoan hartuak eta artatuak izan ziren, zein gehien bat indigenak baitziren. Aurrerago, 1980. urteko lehenengo iriste masiboak pasatakoan, eliza katolikoak San Cristóbal de las Casas-eko,

Chiapas, elizbarrutiaren bidez, Monseñor Samuel Ruíz-en ardurapean, lehenengo kanpamenduak antolatu eta bere oinarrizko beharrei arreta ematera pasa zen. Ondoren eta gehien bat 1981, 1982 eta 1983. urteen zehar iraun zuen fenomenoaren garrantziaren aurrean, babes-gaietan espezializatutako Nazio Batuetako Agentziak, ACNUR, eta Gobernu mexikarrak Errefuxiatuei Laguntzeko bere Batzorde Mexikarraren bidez, COMAR, bereziki larrialdiei erantzuteko sortua, kanpamentu horien laguntza profesionalizatu eta antolatua formalizatzerara etorri ziren, gobernuz kanpoko organizazio ugariaren laguntzarekin, bai nazionalak eta bai nazioartekoak.

Babeslekuan egoten hasi zirenetik, Chiapas-eko Guatemalako errefuxiatuak bere beharrik urgenteenak konpontzeko antolatu ziren, esaterako haurren heziketa, hala nola eskola adineko milaka haurren osasuna. Dinamika zailaren erdian prestatutako heziketa nahiz osasunaren sustatzaileen bidez, hala nola emaginen ohiko ezagutzak erabiliaz, komunitateko bizitza itxaropenaren inguruan suspertzen da.

Era berean, artisautzaren ekoizpen-batzordeak, nekazaritza-zereginen ardura duten batzordeak eta beste hainbat funtzio kolektibo antolatzen dira zein bizitza komunitarioaren laneko loturak izan baitziren. Bestalde, gobernuko instantzia mexikarrekin koordinazio on bat aurrera eramateko kezkarerekin, ACNUR-ek eta lehenengo hilabete hauek eskatzen dituzten zeregin anitzetan parte hartu zuten erakundeek, kanpamendu nahiz kokalekuen araberako bere lehenengo ordezkariak esleitzeko lehenengo hauteskundeak burutzeko ardura hartu zuten.

Antolaketa-dinamika honek erronka berri bat jasan zuen 1984. urteko apirilaren 30ean, Guatemalako ejertzitoak lurralde mexikarrean sarraldi berri bat burutu zuenean 'El Chupadero' bezala ezagututako errefuxiatuen kanpamentu batean eraso bat burutuz, Chiapas-eko Estatuan, hildako zazpi pertsonen saldoa utziaz. Guatemalako ejertzito batek bere ekintza militarretako muga-lerroa errespetatzen ez zuen lehenengo aldia ez bazen ere, gobernu mexikarrak, bere subiranotasun nazionalaren bortxaketa berri hau zela eta, populazio errefuxiatu hurbilenak Guatemalako mugara lekualdatzeko erabakia hartu zuen, horrela Campeche eta Quintana Roo-ko Estatuetan berriro kokatuz.

Hilabete tirabiratsu hauen zehar, Chiapas jadanik antzeko sarraldien agertokia izana zen. Baina gero eta gehiago areagotzen zen probokazio eta eraso maila, helikoptero, hegazkin, turismo-hegazkin eta mugatik hurbileko

patruiatzeen erabileraren bidez, gunean bizi ziren familia ugari beldurra eta kezka sortuaz. Termino taktikotan, Guatemalako ejertzitoak errefuxiatuen eremu hauek gerrillaren atzeguardia eta logistika nahiz errekrutatze base bezala kontsideratzen zituen, zein mugatik ahalik eta gehien urruntzen ikusi nahi baitzituzten.

Pasarte triste hau zein botere mexikar betearazlearen mailarik altuenera iristeko prest baitzegoen eta herrialde horretako ejertzitoaren esfortzuekin burutua, norbaiten aldetik Mexikoko Guatemalako babeslekuaren ereduak historian orban bakar bezala kontsideratua izan zen. Hamabost urte beranduago, Leonardo Franco zein 1984. urte horren hasieran bertan izendatua izan baitzen, Mexiko ACNUR-eko Ordezkar bezala, eta azkenean gobernu mexikarrarekin lekualdatze hau babesteko erabakia hartu baitzuen, ekintza hau *'babeslekuaren historia honen barruan eztabaida handia sorrarazi zuen pasarterik garrantzitsuenetako bat'* bezala gogoratzen zuen.

Nazio Batuetako agentzia honek, egoera eta autoritate mexikarren aldetik laguntza-eskaria aztertu ondoren, bere jokabidea definitzeko hiru ildo politiko nagusi hartu zituen aintzat: *'Lehenengo biztanleriaren babes bermatu behar zen; bigarren, honetara gizatasun arrazoiengatik bertaratzea ziurtatu behar zen eta, hirugarren, eskualdeko politikarekin koherentziaz jokatu behar zen. Errefuxiatu hauen babesak gatazka-eremutik urruntzea eskatzen zuen, mugatik ahalik eta gehien urruntzea, sarraldi berri posibleak ekiditeko zeinek, gainera, nazioarteko planoan ondorio larriagoak izango zituzketen erantzunak ekarri ahal zituzten. Bere segurtasuna, bizitza eta babeslekuaren<sup>4</sup> existentzia bera ere arriskuan zeuden.*

Une horretan ACNUR-ek bere ondorioa atera zuen, alegia arrazoi geografiko eta sozialengatik, une horretan ez zegoela epe luzerako norbere kabuz baliatu ahal izateko moduko proiektuak martxan jartzeko aukerarik, mexikar Errepublikaren federazio-erakunde horretan.

1984ko maiatzean, egoera ebaluatu ondoren, gobernu mexikarrak 11 puntuko programa bat aldarrikatu zuen errefuxiatuei arreta emateko eta Chiapas-eko kanpamentu batzuk Campeche eta Quintana Roo-ko Estatuetan berriro kokatzeko. Politika horretako jarraibide nagusienak ondorengoak izan ziren:

- Errefuxiatuei biztanleria mexikarraren antzeko baldintzak zituen babes eta laguntza bermatzea.

- Norbere kabuz baliatzeko eta errefuxiatuak garatzeko programak finantzatzeko nazioarteko komunitatearen laguntzarekin kontaktzea.
- Errefuxiatuak muga-lerrotik urruneko gunetan berriro kokatzea.
- Borondatezko aberriatzerako beharrezko erraztasun guztiak ematea, esaterako oinarrizko eskubide bat edo bestela errefuxiatu guztientzako aukerarik hobereena.
- Norbere kabuz baliatzea sustatzea, programa ekoizleen bidez, laguntzazko programekiko etengabeko mendekotasuna ekiditeko helburuarekin.

Egoera oso zail baten erdian, ACNUR-ek azkenean lekualdatzearen erabakia babestea erabaki zuen, zein 1084ko maiatzaren 29an hasi baitzuen. 46 mila errefuxiatu ofizialetatik, 20 mila baino gehiago *Maya Tecún* eta *Quetzal-Edzná*-ko kanpamendutan berriro kokatu ziren, Campeche-n, eta beranduago *Los Lirios*-en eta *Maya Balam*-en Quintana Roo-n. Gainerakoak Chiapas-en geratu ziren.

Egoera honek errefuxiatuen erresistentzia antolatu handi bat adierazi zuen, zeren gehiengoak ez zuen lekualdatu nahi, beti kontserbatu baitzuten Guatemalara itzultzeko nahia. Mugatik urruntzea, halaber bere jatorrizko lurretik gehiago urruntzea zen. Hasierako erresistentzia horren aurrean, Mexikoko gobernuak neurri zorrotz eta hertsatzaileak aplikatu zituen erabakia izan zen prozesua burutzeko, zeinek hainbat familia errefuxiatuentzako ondorio txar eta/edo mingarriak izan baitzituen. Hainbat kanpamendu erre egin ziren eta bere biztanleak kamioi militarretan lekualdatuak izan ziren, beraietako askorengan hilabete batzuk lehenago Guatemalan bizi zituzten oroitzapenak suspertuz, Guatemalako Goi-lautadan gobernu militarrek sustatu zuen *lur suntsituaren* kanpaina genozidaren ondorio bezala.

## **Itzulera**

Campeche-ko errefuxiatuen kanpamentura eginiko bisita batek, Vinicio Cerezo Lehendakariaren, 1985/91, zein gobernu militarren 30 urteren ondoren hautatutako lehenengo lehendakaria izan baitzen, Guatemalako gobernuaren ordezkari batzuk burutua, zein bere emazteak gidatzen

baitzuen, Raquel Blandón lizentziatua, errefuxiatuei Guatemalara baldintzarik gabe itzultzea eskaini zieten, zeren ziurtatzen zuen gobernuak itzuli nahi zuten familia guztiei harrera egiteko prest zegoela, aberriratu bezala. Informazio eta eskaintza horrek, itzuleragatiko interesa motibatu zuen eta gobernuaren planteamenduarentzako erantzun nahiz bide egoki bat aurkitzeko beharra sorrarazi zuen.

## **Biztanleria errefuxiatuaren antolaketa**

Itzuleraren eskaintza honek, errefuxiatuei egina, Campeche-ko Estatuan, 1987ko abenduaren 27an, asanblada handi bat burutzea sustatu zuen, zeinek beste puntu batzuen artean baldintzarik gabeko aberriratze-politikari buruz eztabaidatu baitzuen, Vinicio Cerezo-ren gobernuak sustatua eta horregatik beharrezkoa zen ponentzia bat elaboratzea, herrialdera itzultzeko gutxieneko baldintza batzuk behintzat... Antzeko asanbladak Quintana Roo eta Chiapas-eko estatuetan garatu ziren. Horrela asanblada bakoitzak hainbat hautagai izendatu zituen bere ordezkariak izan zitezten.

Lehenengo erantzuna, Mexikoko Guatemalako Errefuxiatuen Ordezkarien Batzorde Iraunkorren - CC.PP.<sup>6</sup> - sorrera izan zen, zein errefuxiatuak aurkitzen diren hiru estatuetan eratu baitziren: Campeche, Quintana Roo eta Chiapas, 1987ko abendua eta 1988ko martxoa. Comitán Chiapas-en, bere lehenengo asanblada handia burutu zen 80 ordezkarien bertaratze eta partaidetzarekin, errefuxiatuen itzulera kolektibo nahiz antolaturako Guatemalako gobernuarekin hitzarmen bat nola negoziatu eztabaidatzeko helburuarekin.

Mexikon errefuxiatutako biztanleriaren ordezkari-tza-instantzia honek, CC.PP.-ak, eratu zenetik, legitimotasun, legezotasun eta ordezkari-tzaz gozatzen du eta bere bidez errefuxiatuek gobernuarentzako planteamendu zehatzak egitea lortzen dute, zein itzulerarako oinarritzko sei baldintzetan irudikatuta baitzeuden: *borondatea; itzulien elkartzeko eta antolatze-askatasuna; laguntza; lokomozio askea herrialdearen barruan; bizitzeko askatasuna eta segurtasun pertsonala nahiz komunitate-segurtasuna; lurrarekiko eskuragarritasuna; prozesuaren bitartekotza, jarraipena eta egiaztatpena; eta hori guztia segurtasun eta duintasun baldintzetan burutua.*

Sei baldintza hauek, zein estatu bakoitzeko kanpamentu eta asentamendu ezberdinetako asanbladetan burututako kontsulta, eztabaida eta lortutako adostasunen ondorio baitziren, CC.PP.-ek lehenengo aldiz maila nazional

eta nazioartekoan ezagutzera eman zituzten, 1989an CNR-ak deitutako Elkarrizketa Handi Nazionalean, ondorengo batzordetan parte hartzerakoan: *talde etnikoak; adiskidetze-batzordea eta lekualdatu nahiz kaltetuenetan*. Jendaurrean, lehenengo aldia zen Mexikon Guatemalako errefuxiatuen existentzia nahiz egoerari buruz entzuten zena, eta bere ordezkariaren ahots propioaren bidez gainera.

Hortik abiatuta, errefuxiatuen eta CEAR-ek ordezkatuta, Guatemalako gobernuaren arteko elkarrizketa eta negoziazio txandei hasiera ematen zaie, ACNUR-en behatzearekin eta OIM nahiz GRICAR<sup>7</sup>-en partaidetzarekin; Alfonso Bauer Paiz lizentziatuaren aholkularitza juridikoarekin, 1992ko urriaren 8ko zazpi hitzarmenen sinaduran zehaztera iritsi arte CC.PP. eta Guatemalako gobernuaren artean, Jorge Serrano Elías-ek lehendakariitza burutzen zuelarik, 1991/93.

Urte horretako bertako abenduan, CC.PP. eta FONAPAZ, Bakearen aldeko Fondo Nazionala, Berrogeita hamar Familietako Talde Itzuli Handientzako Kredituak Emateko Araudia sinatzen da, zeinek berriro itzultzeko fondoan modalitatean kreditu baxuko sistema bat ezarri baitzuen.

### **Lehenengo itzulera 1993ko urtarrilean**

Lehenengo itzulera-mugimendu honek 1992ko urriaren 8ko hitzarmenak probatu zituen, zeren bere destinoa *14. Poligonoa* izan baitzen, Ixcán-en, Quiché, barne-gatazka armatuan elkarren aurka zeuden alderdien arteko borroka-gunea. Lehenengo mugimendu hori eratu zuten 480 familiek, muga 1993ko urtarrilaren 20an zeharkatu zuten, eta horregatik asentamenduaren tokiari ondorengo izena jarri zitzaion: Garaipena Komunitatea urtarrilak 20.

Lehenengo itzulera honek hasieran, logistika-zailtasun handiak erakutsi zituen, baina politikoak ere bai, alderdien artean; CC.PP.<sup>8</sup>/Gobernua, esaterako: ibilbidea definitu eta onartzeko borroka. Bereziki ejertzitoaren oposizioarengatik, zeinek badirudi ez zuela horri buruz ezer erabaki behar. Arrazoa zen, ejertzitoak ez zuela onartzen errefuxiatuak herrialdearen barrutik pasatzea, eta hauei pasabidea muga soilik ematea exijitzen zuten. Horrela errefuxiatuen existentzia, antolaketa eta negoziatzeko ahalmena ukatu nahi zuten, erabat politikoak ziren arrazoiengatik, baina azkenean, errefuxiatuen erabakia nagusitu zen eta herrialdea zeharkatu zuten.

## **Ixcán grande eta Reina de Ixcán gunetara eginiko itzulerak**

Alderdien artean oso lehiatutako nahiz etengabeko jarduneko agertokia izan zenez; URNG/Gobernua/Ejertzitza, halaber erresistentzia, lekualdatze eta babeslekurako biztanleria gehien mobilizatu zen lurraldea ere izan zen, itzulera burutzeko orduan, beste hainbat asentamendu-lekuekiko ezaugarri bereziak eta ezberdinak eskaintzen baitzituen.

Iparraldeko zerrendan asaldura nahiz gatazka bete betean zegoen bitartean, itzulitakoen iristea eragotziaz, hegoaldeko atala, bere heinik handienez nekazari pobreek okupatu zuten, zein hara ejertzitza eraman baitzituen eta PAC-etan, Autodefentsa Zibilerako Patruilak, antolatu ziren.

Ixcán grande kooperatiba osatzen zuten bost komunitateek eta reina del Ixcán gunearen partzelamendu ezberdinetan finkatutako komunitateek, bi konplexutasun hauek jasan zituzten.

Horrela, eremu hauetarako itzuleretan arazo eta eragozpen handiak saihestu behar izan ziren, hauek, gorakadarik handienarekin 1995. urtean burutu ziren, gobernua eta URNG-ren arteko Bake Hitzarmenak sinatu aurretik, 1996ko abenduaren 29an.

## **Itzuleraren lorpenak, ekarpenak eta ikaskuntzak**

### **Lorpenak**

- Gobernuak emandako kreditu nahiz finantza-ekarpen baten bidez lurraren eskuragarritasun nahiz lorpena, zeinen ordainketa komunitate berarekiko itzulera-izaerarekin burutu baitzen, eta ez gobernuarekiko nahiz banketxe batekiko.
- Elkarrizketa eta negoziazio-praktika duinek, arazo sakon eta zailak konpontzeko balio ahal dutela probatu izana...
- Prozesuak halaber maila pertsonalean nahiz erakunde mailan, aldaketak eragin zituen hiru segidako gobernutan, funtzionarioei herrialdearen errealitatea eta bere baldintzak ezagutzera behartuz, hala nola biztanleria errefuxiatu eta indigenaren ahalmena ...
- Itzulitako biztanleriak bere antolaketa-metodoak eta bere eskarmentuak komunitate bizilagunei transmititu zituzten... Eta beste hainbat esperientzia gehiago ere bai.

## **Ekarpenak**

Inpakturik handienekoa, eta horrexegatik alderdi beligeranteen artean gatazka-sortzailea, gatazka armatua desaktibatzen laguntzea izan zen, zeren itzulera ugari lehen gatazka-eremu izan zirenetara burutu baitziren, eta hitzarmenetan ezartzen zen eremu horietan indar militarren presentziarik ez egotea, zeinek eremu horietatik militarrek kentzen lagundu baitzuen, zeinetan gatazkaren zehar elkarren aurka zeuden indarrek kontrolatu ala eragiten baitzuten, eta hori guztia, alderdien arteko negoziazioaren erdian eta Bake-Hitzarmenak sinatu aurretik.

Zona Reina deiturikoaren lurren berreskuratzean, interesatuen artean negoziazio eta berradiskidetze bidea erabili zen, hala nola konpentsazioarena, lehen bereak izan ziren lurak uztea eta beste toki batzuetako beste hainbat hautatzea onartzerakoan.

Urriaren 8ko hitzarmenen indarrean egotean oinarritutako itzulera burutzearen jarraipena, hiru gobernuko administrazio ezberdinen erdian; Serrano Elías, Carpio de León eta Álvaro Arzú-renak, 1998an lekualdatzearen azkeneko etapan amaitu arte, hitzarmenen sinatzaileen artean alde zuzena negoziatua.

Itzulera-prozesuak erakutsi zuen, orokorrean herrialdearen barruan ez bakarrik itzulitako asentamendu-lekuetan, bide-azpiegitura eta oinarritzko zerbitzuen gabezia zegoela, bere biztanleen pobretasun-maila handia zela; errealitate honek laneko Agendan landa-garapenaren beharra barne hartzea eragin zuen eta, aldi berean berreskuratzea, komunitate-antolaketa beharra eremu lokal, municipal eta eskualdekoan gune politikoak berriro suspertu ahal izateko.

## **Ikaskuntzak**

Esperientzia arrakastatsuegatik nahiz porrotengatik, hala nola bien konbinaketagatik erakutsi zen, itzulera-prozesua aitzindaria izan zela alderdien artean nahitaez bete behar ziren konpromisoak hitzartu, hitz egin nahiz negoziatzeko bidea irekitzerakoan.

Garrantzitsua izan zen norbere haragitan egiaztatu ahal izatea gerra egitearen kostua handia dela, eta hobea dela gatazkak modu baketsuan konpontzea.

Emakumearen partaidetza ezinbestekoa bezala azaldu zen bizitzaren arlo guztietan, etxea, eremu lokaletik hasita eremu nazionalean erabakiak hartzeraino, bai maila pertsonaletik abiatuta nahiz bere organizazioenetatik.

Egiaztatu zen antolaketa, batasuna eta koordinazioa gatazkak gainditzeko atal giltzak direla, eta horrek CC.PP. eta prozesu berean sortu ziren errefuxiatuen gainerako instantzia ordezkarien artean, alegia ARDIGUA, CBRR eta CODEIC, hurbilketa eta lan koordinatua ekarri zuen.

### **Nekazari maia batek idatzitako duela gutxiko historia**

*Q'echí Printze Handia, Juan Coc jaunaren bizitza eta obra*

Beste hainbat herri maietan bezala, gatazka armatuan zehar, halaber ehunka Q'echí familiek, urte bete baino gehiagoz herrialdearen iparraldeko mendietan etsi behar izan zuten eta 1983. urtean, muga zeharkatu eta errefuxiatu bezala Chajul eta 'La Reforma' herri-lurretan instalatzeko erabakia hartu zuten, Lacantún ibaiaren marjinetan Marquez de Comillas-en, Chiapas, Mexiko, 1986. urtean, Quintana Roo-ko 'los Lirios' asentamendura lekualdatzea erabakitzeke.

Q'echí familia hauen zorionerako, bere gaztarotik bere heriotzaren ordua iritsi arte, beti Uspantán-en, Quiché, 1945eko urriaren 12an jaiotako jaun handi harengatik orientatuta, bideratuta eta ordezkatuta egon ziren, zeinek Juan Coc Jauna izena baitzuen.

Eskolara joateko aukerarik izan ez zuen nekazari bat zeinek Q'echí ez zen hizkuntza bat irakurri eta idazten ikasi baitzuen, bere aitak erakutsi ziona. Bere komunitateari eta jende ugariri zerbitzatu zion erantzukizun ezberdinetan, katekista lanak eginez, eskolaren batzordean parte hartuz, hobekuntzaren aldeko batzordean, osasun-arduraduna, kooperatibako lehendakaria izanik, etab. Santa María Tzejá lurren legeztatze-prozesuan lan egin zuen, non gero uztea nahiago izan zuen partzela lortu baitzuen. CC.PP.-ko lurren batzordean ekarpena egin zuen negoziatzaile bezala eta batzorde militarreko laguntzaile bezala eta une jakin batean matxinaden kolaboratzaile bezala ere kargu arriskutsuak bete zituen, eta horregatik 1976an bederatzi egunen zehar atxilotua, gordea eta kolpatua izan zen, honen ondorioetatik sendatzeko urtebete behar izan zuelarik.

Ezagutu zutenek esaten dute etikaren zentzu sakona zeukala; gizakiaren

garapen osorako potentzial ikaragarria, solidaritate eta lankidetzaren bere izaeratik eratorria. Bereizkeria nahiz arrazakeriaren edonolako adierazpenen aurrean errefusa sentitzen zuen, aniztasun etniko, kultural, politiko eta ideologikoekiko ulermen handia azalduz.

Quintana Roo-ko los Lirios kanpamentura bere herrikide Q'echí-ekin iristea burutu zuenetik, halaber gainerako familien bihotza, konfiantza eta errespetua irabazi zuen, jadanik ez asentamenduarena soilik, estatuko errefuxiatu guztiena baizik, zeren 1988ko martxoan, jadanik Comitán-en, Chiapas, CC.PP.-en lehenengo asanbladan parte hartzen ari zen, itzuleraren aldeko borroka antolatu eta prestatzeko.

1989. urteak bere familiari sakrifizio berri bat exijitzen dio, elkarrizketa nazional handian parte hartzen hasterakoan, talde etnikoen batzordean, zeinetatik ibilbide garbi eta eredugarri bat hasten baita, CC.PP-en batzorde negoziatzailean etengabe mantendua. Instantzia honetan nabarmentzen da, gogoeta ugari egiten zuen pertsona bat izateagatik, ez zela desesperatzen, gauzak esan aurretik ondo pentsatzen zituela eta oso kontuz erabiltzen zituen, halaber esateko moduan egokia eta zuzena izanik. CC.PP-en barruan, berari buruz esan zen eskuragarriena eta zentzudunena zela, hala nola isila eta sistematikoa eta erakundeen aldetik errespetatuenetakoa.

Itzulerari dagokionean, hau independentea zenaren irizpidea mantendu zuen, zeren errefuxiatuak ez ziren inoren gehigarri nahiz baliabide, berak esaten zuen, *ez gara itzuliko irteten garen bezala*, zeren lehenetsuna itzultzea da, lurra berreskuratzea, zeren gerraren eraginez neke handia dago eta bake nahi handia ere bai. *Ez militarismoa eta ez GG.EE.-ekiko errepresioa nahiz bortxakeria. Demokrazia eta bakea nahi dugu.*

Ezagutu, estimatu zuen eta berarekin denbora luzez lana egin zuen norbaitek, esan zuen: *Batez ere, berak ia ezer esan gabe zuen autoritate handia oroitzen dut: jende guztiak bere hitzak itxaroten zituen zein gainera gutxi ziren; baina oso ondo esanak.*

Juan Coc Jaunaren bizitza bere komunitate eta milaka pertsonen zerbitzura burututako entrega, sakrifizio eta lan ugarikoa izan zen, eta 1989. urtetik aurrera, zeukan gaixotasun hilkorraz konturatzen zen, baina inoiz ez zion beregandik hoberena jaso zutenen alde lan egiteari utzi.

*Aurora 8 de octubre-ko (Aurora urriak 8) gidaritzari eta komunitateari,*

ondare bezala utzi zieten: *Izan ezazue kontuan garapena; ez bilatu arazoak, ez dut esaten arazoak ez daudenik, gauza guztietan beti arazoak daude, baina irtenbide bat eman behar zaie, ahal den modurik hoberenean...* Merezki zuelako **Q'echí Printzea** izena jarri zioten.

Bere testamentua, Xamán finka bera, zeini hasieratik bilaketa- eta kokatze-lana dedikatu baitzion, bere jabegoa lortu arte, kalitatea, hedapena eta mendia baldintzekin, zeren mendia bizitza da.

## **Aurora Ocho de Octubre**

Aurora 8 de Octubre (Aurora Urriak 8) komunitatea, Xamán finkan kokatuta dago, Chisec, Verapaz Garaia, 1994ko urriaren 8an fundatua, Playa Grande eta Chisec-eko ibilbidetatik sarbidea dauka, hiriburutik 250 Km-tara, iparraldeko zeharkako zerrendan.

1993ko urtarrilaren 20ko lehenengo mugimendu handian itzultitako biztanleriak osatzen du, zein Q'echí, Mam eta Q'anjobal talde etnikoek eta beste hainbat txikiagok osatzen baitute: Ixil eta K'iché, hala nola Q'etché familietakoak, *Polochic* finkako lehengo kolonoak.

Lehengoen eta bigarrenen arteko antolaketa eta lan eskarmentuak ezberdinak dira, zeren itzultitakoek babeslekuan antolaketa-esperientzia nahiz gestio-eta negoziazio-ezagutza baliotsuak metatu zituzten.

Komunitatearen izena 1992ko urriaren 8ko hitzarmenetatik eratoritzen da, gobernua eta CC.PP.-en artean sinatuak, zeinek bereziki bizitzeko eskubidea eta osotasun pertsonal nahiz komunitarioa bermatzen baitzizkieten, hala nola segurtasun-indarrak ez zirela komunitatetan sartuko ziurtatu, eta ez zela presentzia militarrik egongo horietatik hurbil.

## **Sarraskiaren ekintzak**

1995ko urriaren 3an, patruila militar bat, Camilo Antonio Lacán Chaclán izeneko tenienteordearen esanetara, 26 soldadurekin, Rubelsanto-ko destakamendutik irten zen, 21. gune militarra, Chisec-ekoa, Verapaz Garaia, zeinek Xamán finkaren sarreratik pasatzea aurreikusia baitzeukan, *MINUGUA-ren laugarren txostena, 20. paragrafoa*.

Urriaren 4an eta 5ean, hainbat herrixka bisitatu zituzten bere programarekin ados. Hilaren 5eko goizean, *hule-pikaren*, *kautxu-eraztea*, langileak, zein herriko kideak baitziren, hauek finkatik pasatzen zirela ohartu ziren, eskolatik hurbil, lehenengo etxebizitzetatik hamar metro eskasera, halaber eskolako hainbat ikaslek ere ikusi zituztelarik.

Biztanleak, zein finka horretara iritsi zireneko bere *lehenengo urteurrenaren* prestaketak burutzen ari baitziren, komunitatearen erdiguneko galeran zeuden, eta ejertzitoaren espero gabeko presentziaz abisatuak izan ziren. Horren aurrean, hamar bizilagunen talde batek, gizonaek eta emakumezkoak, komunitateko autoritateekin eta komunitateko liderrekin, harrera egin zieten eta agintea zuen ofizialari galdetu zioten, zein zen han aurkitzeko arrazoa, zeren urriaren 8ko hitzarmenak bortxatzen ari ziren.

Tenienteordeak azaltzen du 'Limón Sur' erantz zihozela, komunitate bizilaguna, baina biztanleek adierazten diete hori ez zela ibilbidea. Lekuko batzuen arabera, hainbat soldaduk urteurrenaren jardueretan parte hartzera gonbidatuak izateko eskatzen dute eta biztanleek beraiek pasatzeko esaten diete. Beste batzuk adierazten dute pasatzeko esan zietela han zergatik zeudenaren azalpena emateko.

Pixkanaka bizilagun gehiago elkartuz joan ziren eta soldaduak finkan sartu izanagatik *protestatzen* hasi ziren, horrela sinatutako urriaren 8ko hitzarmenak bortxatu zituztelako, eta horregatik bere armak uzteko eskatu zieten hala nola bertan egoteko MINUGUA eta ACNUR etorri arte. Tenienteordeak, bitartean, alkate laguntzailearekin hitz egin zuen.

Ordu erdi beranduago, gutxi gora behera 12:30 eta 13ak artean, patruilaren burua eta soldaduen arteko agindu-emate batean, 'hauek tokitik irteten saiatu ziren jendea bere fusilekin bultzatuz', sartu ziren tokirantz joanez. Orduan, 'sarjentuak... patruilako beste kide bati tiro egiteko agindua eman zion, zeinek hori egiterakoan hurbil zeuden hiru pertsona hil baitzituen, hauetako bat bizkarretik ihes egiterakoan'..., *MINUGUA-ren Laugarren Txostena*, 23. paragrafoa.

Ekintza honek gainerako soldaduengan kateko erreakzio bat eragin zuen, zeinek bereizi gabe tiro egin baitzuten, ihes egiten saiatzen ziren hainbat pertsona zaurituz eta hiltzen eta, salatutakoaren arabera, hiru lurrean etzanda zeudenean errematatuak izan ziren, *MINUGUA-ren Laugarren Txostena*, 24. paragrafoa. Bestalde, MINUGUA-k burututako egiaztapenak,

ondorioztatu zuen patruilako hiru kide 'bere kideen kontrolik gabeko tiroekin zaurituta gertatu zirela'.

Tropak komunitatearen erdigunea utzi zuenean, 'sua ireki zeneko tokitik 200 metrotara, soldadu batek Santiago Pop Tut, zortzi urteko haurrari nahita tiro egin zion...', *MINUGUA-ren Laugarren Txostena, 26. paragrafoa*, bidean zehar arrantzarako bere kanaberarekin zihoanean; haurra zaurituta egonda bere etxerantz ihes egiten saiatu zen, baina soldadua itzuli egin zen eta, distantzia gutxira, bularrean eta buruan tiro egin zion, hilda utzirik.

### **Hurtzaro sakrifkatua**

Santiago Coc Pop, zortzi urteko adinekoa, eta Maurilia Coc Max, zazpikoa, Mexikoko errefuxiatuentzako eremu batean jaio ziren. Guatemalako beste hainbat familietako haurrean aldamenen hazi ziren zeinek 70. hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadaren hasieran Guatemalako ejertzitoak jaurtikitako matxinadaren aurkako operazio izugarrien eraginez bere herrialdea utzi baitzuten, operazio hauek Guatemalako bizilagunen milaka hamarrekoren bizitzarekin amaitu zuten eta herrialdeko ehunka herri suntsitu zituzten.

1994an, babeslekuan hamarkada bat baino gehiago pasa ondoren, familia hauek Guatemalara itzuli ziren. Guatemalako gobernuak 1992an errefuxiatuen ordezkariarekin hitzarmen bat sinatu zuen zeinetan herrialdera itzultzen zirenen eskubideak onartzen baitziren, bere segurtasuna bermatzen zen eta lurragintza agintzen zitzaizkien. Santiago eta Mauriliaren familiak Xamán finkan ezarri ziren, Chisec-eko udalerrian, Verapaz Garaiko departamentua.

Urtebete beranduago, 1995eko urriaren 5ean, Santiago Coc Pop eta Maurilia Coc Max hil egin ziren patruila militar batek finkan sarraldia burutu eta bereizkeriarik gabe sua ireki zuenean. Ekintzak militarren tiroen eraginez komunitateko 11 kide hildako eta 35 pertsona zauritu ekarri zituen, zeinen artean hiru soldadu baitzeuden.

Santiago finkara oinez itzultzen ari zen tiroketaren ondoren eta orduan soldadu batek eskumutur batean tiro egin zion, eta ondoren jarraitu egin zion eta buruan nahiz bularrean tiro egin zion, hilda utzita. Maurilia bizkarrean balarekin zauritua gertatu zen eta erabat argitu ez diren zirkunstantzien eraginez hil zen.

## Lehenengo erreakzioak eta jarduerak

Ekintza tragikoen ondoren, sarraskiak ekarri zituen iritziak adierazteko presa egon zen. Ez da ahaztu behar herrialdea adi-adi zegoen egoera batean aurkitzen zela, zeren jadanik hainbat hitzarmen sinatuta zeuden eta hauek 1996ko abenduaren 29an sinatutako Bake Hitzarmen Irmo eta Iraunkorrek izango ziratekeenaren bizkarrezurra eratuz zihoazen, Xamán-eko ekintzak gertatu eta urtebete geroago.

Aldi berean hainbat ekintza esanguratsu agerian geratzen ziren, esaterako errefuxiatuen itzulera, Guatemalako Gobernua eta CC.PP.-en, Batzorde Iraunkorrek, arteko hitzarmenen ondoren, erakunde hau itzulera beraren ingurunean sortu zen eta 1992ko urriaren 8ko hitzarmenak sinatzearekin formalizatu zen, eta horrek 1993ko urtarrilaren 20an, Mexikotik errefuxiatuen lehenengo itzulera kolektiboa ekarri zuen, 2.480 kopuruarekin, 'Garaipena urtarrilak 20' komunitaterantz, Ixcán-en, Quiché, zeinetatik pixka bat beranduago Xamán-era lekualdatu baitziren.

Ramiro de León Carpio-k, 1993/96, gobernatzen zuen Vinicio Cerezo-ren ondorengo garaian, zeinek errefuxiatuekin eginiko urriaren 8ko hitzarmenetan lagundu baitzuen, Mexikoko kanpamentuetara burututako bere bisitaren ondoren, eta horrek errefuxiatuen itzuleraren hasiera erraztu zuen. Segidan Álvaro Arzú Irigoyen-ek, 1996/2000, gobernatu zuen zeinek hamahiru hitzarmenak sinatuz amaitu baitzuen, Bake Irmo eta Iraunkorren Hitzarmena barne.

Puntu honetara CNR nahiz URNG-ko ordezkarien arteko lehenengo elkarrizketen eta topaketaren ondoren iritsi zen, Oslon, Norvegia, ospatutako 1990eko martxoaren 27tik 29ra bitartean.

Urrats hauek guztiak kontuan izanik, Xamán-eko sarraskiak Guatemalako barne-boterearen indarra proban jarri zuen, non ejertzitoak eratzen zuen oinarritzko elementuak, bazirudien bere desadostasuna adierazten zuela, Gobernuak errefuxiatuekin eginiko hitzarmenarekin adierazi zuen bezalaxe.

Xamán komunitateko biztanleek, pentsatzen zuten ejertzittoa bere komunitatean egoteak Nazio Batuek babestutako eta Vinicio Cerezo-k erraztutako hitzarmenak kaltetzen zituela, zein itzulitako errefuxiatuen nahiz pertsona lekualdatuen segurtasuna bermatzeko burutuak baitziren.

Testuinguru honetan, ejertzitoaren erreakzioa sarraskia gertatu eta hurrengo egunean burutu zen, eta ekintza honen aurrean, jadanik informatuta eta bere egoitzatik, Defentsarako ministroak, Mario René Enríquez Morales jeneralak erantzun zuen, adieraziaz: 'Ofizial batek eta troparen 25 elementuk, norbere defentsan tiro egin izanaren ardura izan zutela, Aurora 8 de Octubre (Aurora Urriak 8) komunitateko itzultako talde baten aurka'.

Horrela ejertzitoak, bere kideek burututako ekintzak ez onartzeko bere ibilbideari jarraituz, adierazten du, baietz, berak izan zirela, baina bere defentsan: '*Ejertzitoak onartu zuen, bere defentsan, soldaduek Aurora Urriak 8 komunitateko kideen aurka tiro egin zutela*'.

Baina ez zen hor geratu bere adierazpena, zeren esan zuen; 'Patruila, joateko zorian zegoenean, sei emakumek gonbidatu zutela komunitateko instalazioak ezagutzeko pasatzera, baina agintean zegoen ofizialak adierazi zieten toki hartan sartzea debekatua zutela. Emakumeek behin eta berriro esaten zutelako, Lacán Chaclán-ek, sartzea erabaki zuen eta bere gizonei agindu zieten, bere armak fusilaren kanoia beherantz zutela jarri zitzatela. Arazoa, patruila toki hartara sartu eta 300 pertsonengatik kopatuak izan zirenean hasi zen, gizonezko, emakumezko eta haurren artean, zein lehenengo irainka hasi zitzaizkien eta ondoren hiru fusil kendu zizkieten eta hauei tiroka hasi zitzaien. Honek soldaduei bere armak berreskuratu eta bizitza salbatzeko suarekin erantzutera behartu zieten'.

Ildo honetan berdinean jarraitu zuen esaten; 'Soldaduak herrixkatik berehala irten ziren eta, bidean, gertatutakoa MINUGUA-ren kideei kontatu zieten, zein, gertaeren berri izan ondoren, tokira joan baitziren egoera egiaztatzeraz.

Are gehiago, egun bat lehenago, Defentsarako ministroak berak, Mario René Enríquez Morales jenerala, Guatemalarako bisitari buruzko berria ezagutzeko, ONU-ko giza eskubideetako aditu independentearena, Mónica Pinto, zeinen helburua Guatemalako oinarrizko eskubideekiko errespetua nahiz hauen kontuan izateari zegokion aurrerapen-maila egiaztatzea baitzen, adierazi zuen: 'Bisita honekin, indarkeria komuna areagotu ahal da, baita jardura terroristak ere', beste hainbat alditan mota honetako bisitekin gertatu izan den bezala. ***Honekin bat etorriaz, hurrengo egunean Xamán-eko sarraskia gertatzen da.***

## Ondorengo urratsak

Egun berean, ekintzak gertatu eta gero, patruilak ihes egin zuen eta Rubelsanto-ko destakamenduan bildu zen zeinetatik irten baitzen 1995eko urriaren 3an. Urriaren 7an, patruila Cobán-eko, Verapaz Garaia, 21. zenbakiko gune militarra lekualdatu zen eta bertan bildu zen, Defentsa Nazionalaren Estatu Nagusiko, EMDN, aginte nagusiaren ardurapean, baina 23 soldadu soilik eraman ziren, zeren horietako hiru hiriburuko Zentro Mediku Militarrean hartu zituzten zaurituak izan zirelako.

Erasoan soldaduen aldetik erabilitako armak, gune militar berdineran eraman zituzten zaintzeko, eta horrenbestez bake-epaitegiak, jaso eta gordetzeko erantzukizuna saihesten zuen, horrela inplikatuak lagunduz.

Ejertzitoaren aginte nagusiaren jokatzeko modu hau Kode Militarrean babestuta dago, zein 1879. urtean igorri baitzen, eta Justo Rufino Barrios-ren garaitik hasita funtzionatzen du, orduan sortzen baita Guatemalako ejertzittoa. Kode honek CSJ-k, Justiziako Gorte Gorena, izendatutako epaile militarren interbentzioa baimentzen du, zein Defentsa Nazionalaren Ministerioari aurkeztutako hirukote ezberdinen artean hautatzen baitira, soldataren ordainketa bezala, base militarretako auzitegiek funtzionatuz.

Gobernuak, lehendakariaren beraren bidez erreakzionatzen du. Goi mailako Batzorde bat antolatzeko agindua ematen du, inplikatuak erruduntasun nahiz errugabetasun maila definitzeko, burututako ikerketen emaitzetan oinarrituz. Batzordea nork osatu zuten: Gobernazioko Ministroa; Fiskal Nagusia, MP-ko, Ministerio Publikoa, Burua; COPREDH-ko, GG.EE. eta MINUGUA-ko Lehendakari Batzordea, Lehendakaria, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretzak, ez zuen onartu batzorde horren parte izatea, gonbidatu izan arren.

Batzorde honen eraketa, berez irregulartasun bat da, eta jarduera-prozeduran akats larri bat suposatzen du, zeren fiskalari dagokio MP-ren, Ministerio Publikoa, buru bezala akusatuen karguei dagozkien ikerketa nahiz formulazioa gidatzea, eta ez Gobernuko Lehendakariari, zeren honi ez dagokio salatzaile bezala jardutea, Fiskal Buruari baizik, bere funtzioa hori baita.

## Ekintzen tokiko panorama

Hautsez betetako bidetan zeharkatuta, *Aurora 8 de Octubre (Aurora Urriak 8) komunitatearekiko gutxi gora behera 400 metroko eremu batean*, belekin inguratuta eta senideekin nahiz lagunekin batera, hilak 6an, osteguna, ejertzitoaren patruilako soldaduek eraildako hamar pertsonen gorpuei egunsentia iritsi zitzairen. Hamaikagarren biktima Salamá-ko, Verapaz Behea, Ospital Nazionalean hil zen.

Tokira prentsako elementuak iritsi ziren eta hildako pertsonen senideen negarraren lekuko izan ziren, zein komunitateko biztanle gehienek jarreraren aldean ezberdina baitzen. Inork ez zuen gaiari buruz hitz egin nahi. Guztiek bere iritzia garbi zeukaten, bazekiten zer adierazi. Zer gertatu zen galdetzen zitzairenean, Antonio Lacán Chaclán tenienteordeak gidatutako patruilaren soldaduei sarraskiaren egile zuzen bezala erantzukizuna ematerakoan bat zetozen.

Hilak 6an goiz erdian, Ramiro de León Cárpio lehendakaria, batzorde nagusiko beste hainbat kiderekin lagunduta, komunitatean aurkezten ziren eta burututako elkarrizketetan, eragina jasan zutenen bertsioak entzun zituzten. Ondoren Rubelsanto-ko destakamendu militarra lekualdatu ziren, zeren hor ekintzen ardura zeukan patruila militarra bildu zen. Bi orduren zehar, batzordeak patruilaren buruari galdeketa egin zion eta jadanik defentsarako ministroari eman zion bertsioa mantendu zuen.

Lehendakaria komunitateko ordezkariekin elkarrizketatu zenean, 'justizia egingo dela' agindu zuen; eta esan zuen, 'soldadu erantzuleak' justiziako auzitegietara kontsignatuak izango dira legeari jarraiki jokatu dadin. Are gehiago, erantsi zuen: 'Nire gobernuaren politika ez da giza eskubideen bortxaketak sustatzea' Komunitatera erretiratzerakoan, bertako nekazari batek adierazi zuen: 'Ikusiko dugu esan ziguna benetan betetzen duen ala ez'.

Ministerio Publikoa, fiskal nagusiak, Ramsés Cuestas Lizentziatua, batzordeko kidea, sarraskiaren ikerketa pertsonalki bere gain hartu zuen eta biktimen gorpuek hiriburura lekualdatzeko agindu zuen, 'autopsiak egiteko eta aurrerako prozesu judizialean balioko duten frogak edukitzeko', zeren gorpuek egunaren heinik handiena sarraskiaren tokian pasa zuten hurrengo eguna arte.

Ministerio Publikoa, buruak, bisitaren ondoren, bere esanetara zegoen pertsonalari eta Verapaz Garaiko fiskaltzako pertsonalari 'ekintzak erabat eta xehetasunez argitzera eramango zuten esfortzu guztiak agortzeko' aginduak eman zituen. Horregatik bizirik atera zirenekin elkarriketatzea aurreikusitako zuten, hauen aitortzak jasotzeko eta horrela ekintzei buruzko bere bertsioa ezagutzeko.

## **ACNUR eta MINUGUA**

Egun horretan bertan, ACNUR-ek eta MINUGUA-k, tokian talde berezi bat esleitu zuten biktimei giza laguntza emateko. Bere arretarako, zaurituak atera eta helikopterotan hiriburuko ospitaletara lekualdatzeko, bereziki San Juan de Dios ospitalera. Aldi berean gertatutakoa xehetasunez zehazteko ikerketa bat hasi zuten.

MINUGUA-ren behatzaile militarrek, ekintzen tokian Ramiro León Carpio lehendakariari adierazi zioten, 'beraiek hainbat ordu lehenago, patruila militarrekin gurutzatu zirela, eta deiari erantzunez etorri zirenean, berriro hainbat soldadu aurkitu zituztela herrixkatik nahiz garraio batetik hurbil mobilizatuz'.

Bai MINUGUA-k eta bai ACNUR-ek ekintza tragikoa gogor kondenatu zuten. Adierazpen baten bidez, esan zuten ONU-k Guatemalako giza eskubideen ekintza bortxatzaileak egiaztatzeko zereginetan jarraitzeko bere konpromisoa berresten zuela, hauek argitzeko helburuarekin eta zigorrik gabe mantentzea ekiditeko. Halaber baieztatu zuten, ikerketen asmoa ekintzak erabat argitzea zela, giza eskubideen bortxaketa nabarmen berri hau, zigorgabetasunean geratu ez zedin, 1995eko urriak 6.

## **Bizirik ateratakoak eta komunitatea**

Hilak seian San Juan de Dios ospitalean hartu zituzten sei lesionatuak: Martín Québec Ut; Santos Machac, Santiago Maquín, José Pascual, Efraín Grave Morente eta Pedro Mateo, MINUGUA, Ministerio Publikoa, GGEE.-tako erakunde nahiz beste hainbat autoritateen aurrean adierazi zuten, 15 soldaduz konposatutako ejertzitoaren pelotoi bat komunitatera sartu eta liderrak komunitatea biltzera behartu zituztela, eta horren ondoren gizonezkoek,

emakumekoeak eta hurrek osatutako jendetzaren aurka tiro egin zutela eta eztanda egiten zuten artefaktuak jaurti zituztela, horrela 28 pertsoneri zauriak eragin eta bertan beste hamar hil zituztelarik. Era berean, esan zuten beraiek Xamán finka finkatu zenetik bere lehenengo urteurrena ospatzeko prestaketak burutzen ari zirela.

## **Rosenda Sales**

Rosenda Sales Ortiz-ek, sarraskitik bizirik irten zenetako bat, esan zuen: 'soldaduek tiro egin ziguten; guk ez genizkien armak kendu'.

'Gu bakean geunden Aurora Urriak 8 komunitatean; soldaduek esan ziguten gure ospakizunean parte hartu nahi zutela eta esan genien ez genuela ezer nahi beraiekin, ezta gerrillarekin ere; ez dugu armarik nahi, eta orduan haserretu egin ziren eta tiroka hasi ziren'.

'Guk, gure komunitatean, itzulitako errefuxiatuak bizi diren guztietan bezala, ez dugu ezer jakin nahi jende armatuarekin, ez soldaduak eta ez gerrillariak, hala esan genien atzo haurrak, emakumeak eta zaharrak hil zituztenei'.

'Esan genien ospakizuna komunitateko jendearentzako soilik zela eta hori izan zen delitua; nola kenduko diogu ba guk soldadu bati bere arma eta honek hori egiten utzi hala nola besteek ezer egin ez'.

'Guztiok non ezkutatu bilatzeko korrika egin genuen, soldaduek tiro egiten zuten eta beste batzuk bonbak botatzen zituzten; lurrera erortzen ginen eta ahal genuen bezala arrastaka joan ginen toki seguruago batera iritsi arte, baina balek jendea hiltzen jarraitzen zuten'.

## **Marcos Colón Na**

Marcos Colón Na-k, une horretan suhiltzaile boluntarioen arreta jasotzen zuen beste lesionatu bat, esan zuen: 'guztiek bezala korrika egin nuen eta bonba lehertu zenean zaurituta erori nintzen, niregandik hurbil beste zauritu batzuk zeuden, nik uste dut hildakoak ere baietz'. Erantsi zuen: 'CEAR-eko jaun/andereak iritsi zirenean, esan genien gure kidetako asko soldaduei dieten beldurragatik ezkutatuta daudela, baina ez dakit zer gertatu zen bere zortearekin'.

## **Santos Choc Max**

Santos Choc Max, sarraskitik bizirik irten zena: 'ejertzitoak festan parte hartu nahi zuen; guk ez genuen arazorik nahi'.

'Ejertzitoak sua ireki zuenean ihesi irten zutenetik lehenengotako bat izan nintzen', hala ere, tiro-segida batek bere beheko gorputz-adarrak nahiz abdomenaren eskuineko alderdia harrapatu zizkion'.

'Festarako prestaketak burutzen aurkitzen ginen, ejertzitoaren presentziaz ohartu ahal izan ginenean'. 'Tenienteak esan zigun festan parte hartu nahi zutela, baina gu ez geunden ados, ez genuen arazorik nahi, baina beraiek komunitatera sartu ziren. Giza eskubideen sustatzaileek bozgorailuetatik komunitate osoari deitu zieten'.

'Gure kideetako batek esan zuen ez genuela ejertzitorik nahi eta armak kenduko zizkienaren abisua eman zieten; armak kentzen saiatu ziren eta ejertzitoak erreakzionatu egin zuen eta ez sartzeko esan zieten lehenengoari, hari bota zioten lehenengoa'.

Komunitatean Rigoberta Menchú Tum Fundazioko ordezkariak aurkitzen ziren hala nola 'Médicos del Mundo'ko kideak, zein lankidetzan ari baitziren eta biztanleriari bere garapen-planetan laguntzen zioten, eta zaurituei lehen sorospenak eman zizkietenak nahiz autoritateei gertatutakoari buruz abisua eman zietenak izan ziren.

## **Rigoberta Menchú Tum**

Bakearen Nobel Saria, Rigoberta Menchú, egun horretan Wisconsin-eko, Estatu Batuak, Unibertsitatean zegoen eta Fundazioak bildutako informazioari jarraiki, ekintza kondenatu zuen, foroan parte hartzen zuten lau mila bat pertsonen aurrean salatu zuen eta ejertzitoko kideak sarraski honen autore arduradun bezala hartu zituen. Halaber adierazi zuen, herrialde horretan gobernuaren aurkako kondena bat sustatuko zuela.

Herrialdera urriak 7an itzultzen da. La Aurora nazioarteko aireportuan, prentsurrekoan bere izena daraman Fundazioak burututako ekintzen berregituratzea ezagutzera eman zuen, ekintzak gertatu ziren toki berean. 'Badira hainbat aurrekari eta lekukotasun zeinek autore intelektual baten

existentzia garbia agerian uzten baitute, beraz arduradunek legearen pisu guztia jasotzen duten arte lege-prozesuak hasiko dira´.

Prensa nazional eta nazioartekoari entregatutako dokumentuan, zuzenean eta zeharka inplikaturakoak Samy Noé Vásquez Benavente koronela, 21. zenbakia duen guneko komandante militarra, zeinek Cobán-en egoitza baitauka eta Rubelsanto-ko destakamendu militarreko operazio-burua; Lacán Chaclán tenienteordea eta sarraskian parte hartu zuten elementu guztiak.

Rigoberta Menchú Tum Fundazioaren ondorioak hauek izan ziren: ´Lacán Chaclán-en agindupean zegoen pelotoiak hil egin zuela. 10:30ak, zeinetan soldaduak lehenengo aldiz ikusiak izan baitziren, eta sarraskiaren hasieraren artean, 3 ordu pasa ziren. Sarraskia jasan zutenen artean hiru gutxienez errematatuak izan ziren zaurituak izan ondoren. Halaber, komunitatera itzultzen ari zen zortzi urteko haur bat, arrantza egin ondoren, sarraskiaren tokitik 800 metrora garbitua izan zen; erretiratzerakoan autoreak Guatel instalatzen ari zen telekomunikaziotarako dorrea suntsitzen saiatu ziren; bertan zeuden lekukoek eta bizirik irten zirenek, ziurtatzen dute gezurra dela soldaduren bat komunitatearen aldetik desarmatua izan zenik´.

Izan ere, ejertzitoak bere informazio- nahiz dibulgazio-departamentuaren bidez, DIDE, ukatu egin zuen Xamán-en, Chisec, Verapaz Garaia, gertatutakoa alde aurretik pentsatutako ekintza baten ondorioa izan zitekeenik, Rigoberta Menchú-k ziurtatu zuen bezala.

## **Giza Eskubideetako Erakundeak**

Guatemalako Giza Eskubideen Batzordea, CDHG; Giza eskubideen prokuradoretza, PDHG; Guatemalako Eliza Ebanjelikoetako Konferentziak, CIEDEG; Giza eskubidetako lege-ekintzarako zentroa, CALDH; Mirna Mack, Fundazioa FMM; Jarduera sindikal eta popularraren unitatea, UASP; Artzapezpikutzako Giza Eskubideen Bulegoa, ODHA; Elkarriz Laguntza emateko Taldea, GAM; Guatemalako Alargunen Koordinadora, CONAVIGUA; Errefuxiatuen Ordezkaritzarako Batzorde Iraunkorrak, CC.PP., bezalako erakundeek adierazpenak burutu zituzten eta ejertzitoari buruzko kritika gogor orokorrak egin zituzten, eta halaber, Errepublikako Kongresua berak ere, adierazpenak burutu zituen. Batzuk taldeak antolatu zituzten bere ikerketa propioak burutzeko, esaterako: ODHA, PDHG.

## **Tristura, mina eta dolua: hildako biktimen gaubeila eta hobiratzea**

Urriaren 8an, larunbata, hildako lehenengo hamar biktimen gaubeila burutu zen, hiriburutik Rubelsanto-ko destakamendura bere lekualdatzea burutu ondoren eta hortik komunitatetako kooperatibara; Hamar hilkutxa metalikoak, 8etan (a.m.) ACNUR-eko helikopterotan lekualdatu ziren. Bezperan Carlos Fernando Choc Chic-en hondakinak lurperatu ziren.

Areto komunalaren barruan, gorpuen hamar kutxak ilaran jarri ziren, gaubeila egiteko. Ondoren meza bat ospatu zen, zeinetan biktimentzako eta bizirik irten zirenentzako justizia eta kalte-ordaina exijituko zirela jakinarazi baitzen. Mezaren ondoren, Rigoberta Menchú eta bizilagunak sarraskia gertatu zen tokira lekualdatu ziren eta hainbat nekazarik ejertzitoak sarraskia nola burutu zuen azaldu zuten.

Arratsaldean, 15:30etan gutxi gora behera, hobiratzearen segizioa herriko kanposanturantz irten zen hildakoei kristau hilobiratzea emateko. Emakumeek nahigabetuta egiten zuten negar, zeren hainbatek bere seme-alabak eta senarrak galdu zituzten. 'Senideek soldadu errudunentzako heriotza zigorra eskatzen dute, ez baita bidezkoa 1982an ejertzitoaren erasotik ihes egin eta orain besterik gabe gure familiak hiltzera etortzea'.

Oihu honekin pertsona gehiagok egin zuten bat, zeinek prentsaren presentziaren aurrean, adierazi baitzuten: 'ekintza honek ezin du zigorrik gabe geratu', bereziki militarren zuzeneko erantzukizunagatik, zeren hasieratik komunitatean baimenik gabe sartzeko asmoa ikusi zen.

## **Monika Pinto aditu eta GG.EE.ko kontalariak komunitatera eginiko bisita**

Sarraskiaren gainerako biktimen gaubeilan parte hartu ondoren, Guatemalarako ONU-ko GG.EE.-tako aditu eta kontalariak, Mónica Pinto, Xamán finkan finkatutako nekazariak nola bizi diren egiaztatu zuen. Esan zuen bisita ekintzen egiazkotasuna ezartzen lagunduko zuen informazioa lortzeko zela, baina MINUGUA-ren erantzukizuna izango zen txosten ofiziala idaztea. Hala ere, esan zuen: 'Berrito finkatutako talde honek egoera mingarri bat aurkezten du; gainera militarren inplikazioa egiaztatu genuen, zeini buruz Ramiro de León Carpio agintariaren eskaintza zuzena jaso

bainuen, esleitzeko'. Halaber, adierazi zuen: 'egiaztatuak esandakoa gaitzen du, inori, eta are gutxiago gobernuari, mesederik egiten ez dion egoera baten mina eta ondorioak egiaztatu ahal baitira'.

### **Sarraskiarekiko mundu mailako errefusa**

Errepublikako lehendakariari, Ramiro de León Carpio, zuzendutako adierazpen baten argitalpen eta zabaltzearen bidez eta Guatemalako GG.EE.-tako instantzietara nahiz nazioarteko mailan kopia bidalita, hainbat erakundek sarraskiarekiko bere errefusa eta kondena adierazi zuten, hala nola argitze, nahiz arduradunen atxilotze eta epaiketarako bere eskakizuna zigorrik gabe ez geratu arte'; Europar Batasunak, Estatu Batuetako enbaxadak, Hegoaldeko Ameriketako Herrialdeek eta C.A.-k adierazpenak burutu zituzten.

### **Ejertzitoaren aginte nagusiarentzako ondorioak**

Egoerak Mario René Enríquez Morales jeneralak, Defentsa Nazionalaren ministroa, bere karguari uko egitera eraman zion eta halaber lehendakariak berak 21. zenbakia zuen base militarreko, zeinek Cobán-en egoitza baitzuen, Samy Noé Vásquez Benavente koronela bere kargutik kendu zuen.

Jeneralak esan zuen: 'erakunde armatuari nahiz Guatemalari diodan maitasunagatik egiten dut uko'. 'Nazkatuta nago herrialdea barrutik nahiz kanpotik erasotua dela ikusteaz, eta gertatutakoak gertaera hori erraztu zuela sentitzen dut. Ez naiz akats baten errudun sentitzen, erabaki hori hartu izanagatik gustura nago'.

Beste neurria 24 soldadu, sarjentu bat eta Lacán Chaclán patruilaren tenienteordea atxilotzea izan zen, zeini Rubelsanto-ko destakamendutik Cobán-eko, Verapaz Garaia, base militarreko lekualdatu baitzitzaien Defentsaren Estatu Nagusiaren ardurapean. Inork ezin zuen aitortzarik burutu, zeren Fiskaltza Militarren aurrean agerraldia soilik egiteko instrukzioak baitzizuten, non erantzukizunak ondorioztatuko baitziren, 1879ko Kode Militarren arabera.

## **Akusatuei eginiko lehenengo ikerketa**

Urriak 8an Cobán-eko, Verapaz Garaia, bake-epaitegian Luis Peralta Flores epaileak, Xamán-eko sarraskiagatik akusatutako 26 soldaduetatik 24 ikertu zituen, Héctor May García sarjentua eta Lacán Chaclán tenienteordea barne, base militar horretako gerrako Auditorearen instrukzioak jarraituz, Kode Militarrek diktatzen duenaren arabera. Honek zauritutako eta zentro mediku militarrean hartutako bi soldaduak barne izan zituen. Soldaduek erasoan erabilitako armak ere, epaitegira eraman ziren, prozesuaren parte bat baitziren, gune militarrean gordetzen zituztela kontuan izanik.

## **Fiskaltza militarra, sarraskian inplikaturako militarrentzako prozesu militarra hasten du**

Zentzugabea iruditu eta bidegabea bada ere, zibilen aurka delitu bat burutu zuten militarrek, kode militarren arabera, fiskaltza militar batean epaituak izan behar dute, base militar batean eta epaile militar baten aldetik. Defentsa nazionalako ministerioak proposaturako hirukote batetik hautatzen da, eta epailearen soldata, ministerio horrek berak ordaintzen du. Horrela funtzionatzen du militarren aldeko justiziak.

Hori dela eta sarraskian inplikaturakoak, Cobán-eko base militarretik, Jalapa-ko departamentura lekualdatzen dira, ikertuak, itaunduak izateko, buruzagitza horretako auzitegi militarrean zeren 'Jurisdikzioa' hor dago. Nahiz eta, Jalapa-ko Lehenengo Instantziako Epaitegi Militarrek ere, jurisdikzioa, jarduera nahiz helmena izan, ondorengo departamentuei dagokienean: Santa Rosa, Jutiapa, Verapaz Garaia eta Behea. Baina oraingoan, akusatutako Jalapa-ko polizia nazional zibilaren estazioan egongo dira kartzelan eta ez departamentuko base militarrean.

Lekualdatzea hasi zenetik, ejertzitoak tropak mobilizatu zituen patruila ibilbide osoan zehar babesteko, gertaeraren bat jasateko beldur baitziren, ala itxurak egin behar zituzten. Tropa-hedatze honek, populazio bizilagunak adi jarri zituen eta Jalapa-ko giroa aztoratu zuen, are gehiago, Rigoberta Menchú Tum-en presentziarekin, kereilari bezala nahiz iritsi ziren kazetari nazional eta nazioartekoekin kopuruarekin.

Ikerketa, Jalapa-ko erreserba Militarretako egoitzan burutu zen, non Lehenengo Instantziako Epaitegi Militarrek funtzionatzen baitu, Saturnino

López Chanquín Lizentziatu Nagusiaren ardurapean. Epaille militar honek, ez zieten utzi sartzan MINUGUA-ko hiru ordezkari, abokatu defendatzaileak aurka egoteagatik, zein erakunde honek argitaratutako txostenagatik haserre baitzeuden, zeinetan sarraskiaren ardura ejertzitoari egozten baitzitaion. Programatutako bost ikerketen ondoren, epaille militarrek, bat soilik burutu ahal izan zuten, zeren beste laurak ez zuten abokatu defendatzailearik, horretarako legeak diktatzen duen moduan, horietatik hamarrek soilik gaztelera hitz egiten zutela alde batera utzita, eta gainerakoek Q´echí hizkuntza. Orduan soilik pasako da epaille militarra delitua tipifikatzera nahiz ebazpena burutzera.

Lacán Chaclán-ek, lehenengo ikerketa honetan bere adierazpenak berretsi zituen, adieraziaz biztanleak izan zirela eragin zutenak, eta ziurtatu zuten hauek bizirik erre nahi zituztela, baina nahiz eta hori horrela izan, berak ez zuela tiro egiteko agindurik eman.

Eginbide honetara, Rigoberta Menchú Tum aurkeztu zen, Rigoberta Menchú Fundazioaren zuzendariarekin batera, Gustavo Meoño, epaileari memorial bat aurkezteko asmoarekin zeinetan Aurora 8 de Octubre (Aurora Urriak 8) komunitateko sarraskiaren kasuan 'atxikitako kereilaria'ren kalitatea bermatua izan zekion eskatzen baitzuen, zeren egoera honekin lortu nahi duten gauza bakarra, justizia egitea da.

Hala ere, López Chanquín epailearen bilaketan zailtasun handiei egin zieten aurre, ez baitzen inon ere agertzen, eta non zegoen jakiteko saiakera errepikatuen ondoren kokatu zuten, eskaera entregatzeko presagatik, jadanik premiazkoa zeren egun horretan emate-epea iraungitzen baitzen. Honek Jalapa-ko erreserbetako gune militarrean, ikerketaren egoitza, pertsonalki bertaratzera behartu zuten, han, entzunaldia hasi baino ordu erdi lehenago, epaileak dokumentua jaso zezan.

### **MINUGUA-k, Guatemalako Nazio Batuen Misioa, eta PDHG-k, ejertzitoari botatzen diote errua**

Aurora Urriak 8 komunitatean burututako egiaztatzeko aurretiazko txostenaren arabera, unitate militarri egozten zaio ardura biztanleria zibilaren aurka neurririk gabe jarduteagatik. Bere aldetik, PDHG-k, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretza, bere txostenean, Ramiro de León Carpio lehendakariari errua egozten dio, sarraskiaren arduradun nagusi bezala, ejertzittoa kanpoan utzi gabe.

MINUGUA-k adierazten du eremuko ikerketak esaten duela: 'aipatutako dataren 13.30ak aldera, patruila komunitatearen erdigunera sartu zenean, 200 pertsonengatik inguratua izan zela. Soldadu eta itzulitakoen arteko negoziazio tirabiratsuak burutzerakoan 30 minutu pasa ondoren, nekazari batek sarjentu bati fusilaren kanoitik heldu zion, eta arma kentzen saiatu zen; une horretan militarrek gainerako pelotoiari biztanleriaren aurka tiro egiteko agindua eman zion'.

'Erasoa amaituta, soldaduek komunitatea utzi zuten eta, sarraskiaren tokitik 200 metrora, militar eraginkor batek, erabat identifikatua, Santiago Pop Tut adingabearen aurka tiro egin zuen, eskuan zauri bat eraginez; ondoren, militarrek jarraitu egin zion eta odol hotzez bularrera eta burura tiro egin zion, hilda utzi arte'.

### **MINUGUA-ren ondorioak:**

- 1.- Patruilak biztanleria zibilaren bizitzeko eskubidea bortxatu zuen.
- 2.- Nekazari bat sarjentu bati arma kentzen saiatu zen, eta horrek sarraskia eragin zuen.
- 3.- 26 soldaduak urriaren 6an Rubelsanto-ko destakamenduan bildu ziren.
- 4.- Soldadu batek odol hotzez Santiago Pop Tut haurra erailtzen du.
- 5.- Zibilen jarrerak ez du patruila militarren neurririk gabeko erasoa justifikatzen.
- 6.- Misiok pelotoia komunitatera zergatik sartu zen egiaztatzen du.
- 7.- Ejertzitoak gatazka-eremutan duen autonomia ikertu behar da, zeren matxinaden aurkako bere jardueran zigorgabetasunez aritzen da.
- 8.- Adiskidetze-kultura sustatzea beharrezkoa dela ikusten da Aurora Urriak Zortzi komunitatearen tragedia errepikatzea ekiditeko.
- 9.- Defentsarako ministroak sarraskia burutu zuten soldaduen jarduera babestu zuela egiaztatzen da, Estatuak gertaera ikertzeko duen eginbeharra eragotziaz, patruilaren erasoa justifikatzerakoan.
- 10.- MINUGUA-k Ramiro de León Carpio agintariaren eskuragarritasuna balioztatu zuen, gertaeran Estatuaren erantzukizuna bere gain hartzerakoan..

PDHG-ren txostenean ondorengo esaten da: 'errepublikako lehendakariak hasita, Ramiro de León Carpio lizentziatua, Defentsarako oraingo ministro ohitik pasata, Rubelsanto-ko destakamendu militarreko komandanteraino, Xamán-eko sarraskiarekiko erakunde errudunak dira'.

‘Ez zegoen goi mailako batzorderik eratzeko beharrik, ezta ikerketa sofistikatuei hasiera emateko ere, zigorrik gabeko sarraski, genozidio eta erailketa bat da zein Guatemalako ejertzitoak komunitate babesgabe baten aurka burutu baitzuen’.

## **Ejertzitoaren historia sarraskitan** **Q´echí etniarentzako kointzidentzia tragikoa**

**Bi ekintza tragiko etnia maia berarentzako;** lehenengo sarraskia barne-gatazka armatuaren barruan 100 nekazari baino gehiagoko saldoarekin, Panzós-eko sarraskian, 1978ko maiatzaren 29an eta azkeneko sarraskia Xamán-en, Chisec, 1995eko Urriak 5ean Q´echí-en aurka Verapaz Garaiko departamentuan bertan.

Lehenengoa gobernu militar batean burutzen da eta gerraren baten ondorengo egoera gordinaren hasieran, ejertzitoak jarritako enboskada baten bidez, zeinetan ehun nekazari baino gehiago erori baitziren, horien artean emakume garrantzitsu bat, Adelina Caal Maquín, Maquín Ama.

Bestea, azkeneko sarraskia, gobernu zibil batean burutzen da, gerraren amaieran, eta oraingoan, ejertzitoko kideek, Q´echí nekazarien finka hartu eta azkeneko sarraskia gauzatzen dute, 647. a, bake-negoiaziotako etapa bete-betean. **Kointzidentzia tragikoa: *Autore eta hiltzaile berdinak, ejertzito nazionaleko kideak biktima berdinen aurka: biztanle maia Q´echí-ak***

## **Xamán-eko prozesuaren zereginak**

### **Ikerketa; ofiziozko interbentzioa eta nahitaezkoa**

**Ministerio Publikoa:** Errepublikaren Fiskal Nagusiak, Fiskal Berezi bat izendatu zuen kasurako eta honek aldi berean, ikertzaileen talde berezi bat antolatu zuen ikerketa guztiak antolatu, zuzendu eta gidatzeko zereginak burutzeko. Talde honek eta fiskalak ikerketa-zereginetan PNC-rekin, Polizia Nazional Zibila, koordinatu eta parte hartu behar izan zuten, ekintzen tokian, ahalik eta azkarren, frogak, lekukotasunak, ebidentziak jasotzeko, frogak babestu eta zaintzeko. Hilketaren agertokia babesteko; frogak nahiz ebidentziak galtzea, lapurtzea ala desagertzea eta suntsitzea ekiditeko.

Eginbide eta izapide hauek burutzeko, Ministerio Publikoari denbora-epe zehatz bat esleitu zitzaion, zeinetan eskumeneko auzitegiaren aurrean inplikaturakoen aurka salaketa eta akusazioa sailkatu, antolatu eta aurkeztuko baitzuen. Ikerketaren ondoren, bitarteko etapa estali zuen, zein frogetako materiala sailkatu eta prestatzea nahiz hildako biktimen eta bizirik atera zirenen lekukoaren testigantzen antolaketa eta aurkezpena izan baitzen.

Ekintzen tokian autoritate mailan aurkeztu zen lehena, Chisec-eko Bake-Epailea izan zen, sarraskia bere lurraldean gertatu baitzen, baina honi ez zegokion kasua bere gain hartzea, maila gutxiagoko epaitegia izateagatik eta horregatik lehenengo ikerketak Cobán-eko Lehenengo Instantziako Bake-Epaitegira pasa zituen, zeren honek ikertu ahal zuen eta delituen kasutan prozesuak jarraitu ere bai, esaterako Xamán kasua zeinetan su-armekin hildakoak eta zaurituak egon baitziren, militarrek zibilen aurka eraginak, zeinek delitu bat suposatzen baitu eta ez akats bat.

Xamán kasuan, Cobán-eko Lehenengo Instantziako Bake-Epaitegia izan zen zeinek Chisec-eko bake-epaitegiko jarduerak nahiz dokumentuak jaso baitzituen, ondoren Jalapa-ko Lehenengo Instantziako Epaitegi Militarrean entregatzeko, epaitegi honek ez baitzuen ez eskumenik eta ez autoritaterik epaitzeko.

Horrela juzgatu militar honek ikerketaren urratsari hasiera eman zion; akusatuen ekintzei buruz galdetzea eta hauek erregistratzea; delitua izan zen ala ez kalifikatzea; akusatuen erruduntasun nahiz errugabetasun maila, eta akatsa ematea.

## **Ikerketaren akatsak**

Xaman kasuaren ikerketaren lehenengo fase honetan, Ministerio Publikoaren aldetik, fiskal bereziaren bidez; Óscar Alcides Sagastume Martínez abokatua, eta bere ikerketa-taldea, akats ugari egon ziren, zeinek adierazi zitzaizkionean, bere aldetik kasua uztea eragin baitzuten:

- Errepublikako Fiskal nagusiaren akatsa, zeinek moteltasuna erakutsi baitzuen kasuaren fiskal berezia izendatzeko nahiz ikerketarako taldea antolatzeko eta horrexegatik, moteltasuna ekintzen tokian aurkezteko.
- Atzerapena jaurtikitako balen kaskabiloak jasotzerakoan, erabilitako

armetatik, hildakoen eta zaurituen erropetatik. Inplikaturakoak nora ihes egin zuten, eta abarri buruz informatzerakoan.

- Zaurituen kasuan, mediku forenseen aldetik aztertuak izan ziren ala ez jakiterakoan eta txostena erreala den ala ez egiaztatzerakoan hala nola delitua frogatzen zuten elementuak igortzerakoan; komunitateko lekukoek nahiz sarraskian bertan zeudenen testigantzak biltzerakoan.

- Hildakoen kasuan, mediku forenseek eginiko autopsiak egiaztatzea, txostenek ez dute ezer adierazten bala motari buruz eta hildako biktimak hil zituzten proiektilak jaurti zituzten armari buruz ere.

- Eraildako inori ez zitzaion erradiografiarik burutu, zeren X izpien aparatuek ez zeukatela esan zuten. Burututako nekropsiek ere ez zieten erantzuten irizpide zientifikoei, zeren MP-k, balistikako oinarritzko ezagutzarik zuen talderik nahiz langileriarik ez zuela esan zuten.

- Hil zirenen eta zauritu batzuen arropa galdu egin zen, eta halaber ekintzen tokian aurkitutako kaskabuloak desagertu egin ziren. Akatsa larria da, zeren arropak hilketei buruzko ebidentziak aurkitzeko balio izango zuketena eta kaskabuloek, haurra hil zuen bala eta beste hildako biktimak hil zituzten balak zein fusiletatik irten ziren jakiteko.

- Fiskal bereziak, komunitatean azaldu zenean, hildako biktimen senideak gorpuak autopsiarik egin gabe lurperatzeko konbentzitzen saiatu zen, eta horrela, ebidentziak aurkitzeko aukera eragozten ari zen. Halaber militarren aldeko partzialtasuna adierazi zitzaion, ez baitzen ahaleginik egin frogak nahiz aurretiazko ebidentziak bildu eta elkartzeko.

Hau da, ikerketak ahulak, motelak, urriak eta eskasak izan ziren, ekipo tekniko berezirik erabili gabe; adibidez balistikakoa, odol-probak aztertzeko, hildakoei eta zaurituei erradiografiak burutzeko, etab.

Fase honetan PNC eta Fiskal Bereziaren taldearen artean lan koordinazio eta lankidetzaren estua egon behar du, ondo burututako ikerketa bat bermatzeko. Hala ere, PNC-k ez zeukan prestakuntzarik ikerketa-tekniketan, ezta ekipo berezirik ere eta era berean ez zeukan koordinazio eraginkorrik MP-rekin. Esan daiteke bakoitzak bere kontutik jardun zuela, ahal zuena eginez, nahi zuten bezala eta nahi zuenean.

## **Lege-esparrua eta sarraskiaren errealitate politikoa**

Sarraskian ejertzitoak URNG eta Gobernuaren arteko hitzarmen bereziak bortxatu zituen, esaterako: GG.EE.-tako hitzarmena, onartua eta indarrean zegoena; herri indigenen identitate eta eskubideena, sustrairik gabeko populazioenak, gobernuak eta Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Mandatari Nagusiaren, ACNUR, artean sinatutako akordio-gutuna, itzulerak antolatu, prestatu eta negoziatzeko eta 1992ko urriaren 8ko hitzarmen bera. Konstituzio Politikoaren 39. artikulua, zeinek jabego pribatua bermatzen baitu, zeren patruila baimenik gabe sartu zen Xamán finkara, komunitatearen jabego pribatua.

Sarraskia herrialde osoan hauteskunde orokorrak ospatu eta egun gutxi barru burutzen dute, URNG eta Gobernuaren arteko bake-negoiazioak gauzatzen ari zirenean eta biztanleria errefuxiatuaren itzulera garai nagusienean zein hurrengo hilabetetan ziur areagotuko baitzen. Gero baita ere aipatu behar da itzulitako en eremutan nazioarteko laguntzaileen presentzia ugaria zela, esaterako GKE, MINUGUA-ren behaketa, ACNUR.

Ziur aski sarraskia planifikatu eta gauzatzeko agindua eman zuten autoreek, ez zuten gertaeraren ondorio politikoak neurtu edo bestela, bere botere nahiz indarraren proba bat izan zen.

Sarraskiak ejertzitoaren aginte nagusiaren barruan itzulera gerarazteko asmoak eta planak zeudela erakutsi zuen; bake-negoiazioak gerarazteko; herrialdean behaketa burutzeko ONU-ko GG.EE.-tako adituaren Guatemalako iristea eta egonaldiari aipua kentzea eta hauteskundetan parte hartzen zuten partidu politikoei abisatzea ekiditeko, ejertzitoaren sektore bat ez zegoela prest gobernu eta autoritate zibilen esanetara erraz jartzeko, hala nola botere politikoak lortzen zutenena, zeinek kuotak ala guneak negoziatu behar baitzituzten ejertzitoaren sektore horrekin.

Horrexegatik, MINUGUA-k, FRMT-ek, ODHA-k, PDHG-ak, norbere talde ikertzaileak eratu zituzten, tokian egon, behatu, galdetu, ikertu eta gertaeren norbere txostena elaboratu eta ondoren jendaurrean ezagutzera emateko.

Ejertzitoak, bere ikerketa propioak egin zituen, biktimen aurkako frogak eta ebidentziak bilatu zituen, troparen barruan buruaren eta sarjentuaren testigantzak jaso zituen, abokatu defendatzailearen aholkularitzarekin prestatu zituen galdeketa egiten zieten unean ala ekintzari buruzko

adierazpenak eskatzen zizkietenean zer esan jakiteko. Bereziki, Lacán Chaclán-en kasuan. Helburua errugabetzea izan zen, partaidetza eta erantzukizuna norbere gain ez hartzea. Istripu bat bezala uztea, ezusteko ekintza bat, kasualitatezkoa, aginte nagusiaren asmorik nahiz planifikaziorik egon ez zela ematea.

### **Aginte-kate famatua: estaltzeko eta babesteko**

Xamán-eko sarraldia eta sarraskiaren erabakia erabat Lacán Chaclán-engan uzterakoan, aginte nagusiak ondorengoan aginte-katea estali eta babestu zuen: Errepublikaren Lehendakaria, FF.AA-tako komandante nagusia., Defentsarako Ministro Nazionala, Cobán-eko 21. gune militarreko Burua, Rubelsanto-ko destakamenduko burua, FBDLC-ko destakamenduko burua, troparen burua hala nola bere sarjentua.

Horregatik, zigorgabetasuna mantentzeko, ikerketen eta epaiketa penalaren unean, kate hau bere muinean eteten dute, beraz, inoiz ezin izango litzateke errudun intelektualak epaitu eta kondenatu. Horrela, jakiten da González kapitaina, destakamenduaren arduraduna zeinetatik irten baitzen patruila, modu misteriozuan hil zela. Ondoren Luis Roberto Paiz Porrás koronela, Fray Bartolomé de las Casas-eko destakamenduko arduraduna, eraila izan zen. Horregatik, ejertzitoak nahiz eta bere borondatearen aurka izan, epaiketa patruilako kide batzuk soilik barne hartzeko moduan bideratzen du.

### **Prozesu penal moldatu eta okerraren benetako historia**

95. urteko urriaren 5ean, sarraskia gertatzen da eta 1998ko apirilaren 1a arte, hiru urte eta 4 hilabete beranduago, ez da irekitzen ahozkoa eta publikoa izan zen epaiketa. Orduetik gaur egun arte, hainbat maniobra, tranpa eta amarru egon dira. Lehenengo bere erruduntasuna ez onartzeko, bigarren justizia zibilaren aldetik epaituak izatea ez onartzeko, eta hirugarren, auzitegien, epaileen nahiz are magistratu eta abokatu defendatzaileen laguntzarekin maniobratzeko, tranpa nahiz fartsa juridikoa nola burutu eta zehaztu pentsatzeko eta horrela kondenatu gabe geratu eta zigorrik gabe libre geratzeko.

## **Lehenengo borroka handia: auzitegi militar batetik zibil batera pasatzearen kasua**

Lehenengo urratsa Xamán-eko sarraskiak izaera militarrik ez zuela frogatzeko borroka egitea izan zen, militarrek kontsideratu eta inposatu nahi izan zuten bezala. Ekintza hau inoiz ezingo litzateke hala kontsideratua izan, zeren patruila militarra biztanleria zibil desarmatuaren baimenik gabe sartu zen, non sarraski bat burutu baitzuen eta bertan ejertzitoaren erabilera eskusiborako armak erabili zituen, zeinen emaitza 11 pertsona hildako eta 27 zauritu izan baitzen. Horregatik, Lehenengo Instantziako epaitegiari ere ez zegokion kasuaren espedientea edukitzea.

Rigoberta Menchú-k, kereilari bezala, beti esan izan zuen justizia-irizpideagatik, sarraski hau, ezin zela kode militarren arabera epaitu, zeren hau zerbitzuan dauden militarren artean delitu nahiz akats militarrek epaitzeko da, baina inoiz ez, militarrek zibilen aurka burututako delitutarako. Bere onurarako gertatzen ziren anomaliez gainera, esaterako: epaile militarren ezezkoa kereilariak eta abokatuak berrikusteko eskatutako espediente eta ebidentziak erakusterakoan.

Defentsako abokatuek, kereilariak aurkeztutako eginbide eta lege-planteamendu ala idazki guztiak oztopatu nahiz eragozteko hainbat manio-bra erabili zituzten, Xamán kasua auzitegi zibil bat epaitzea lortzeko, zeren lehenengo aldiz, Exekuzio Estrajudizialeko delitu bat burutu izanagatik patruila militar bat salatua eta epaiketa penalera eramana zen.

Faboritismoaren laginik garbiena. Delitua Chisec-en, Verapaz Garaia, burutzen bada ere, prozesua eta errudunak Jalapa-ra lekualdatuak dira, Lehenengo Instantziako Epaitegi Militarreko egoitza, Mynor López Chanquín abokatuaren ardurapean, zeinek gainera Verapaz Garaian eta Behean jurisdikzioa baitauka, el Progreso, Jalapa eta Jutiapa. Beraz, Cobán-en epaituak izan ahal ziren.

Epaile militar honek, ikerketaren ondoren, prozesamendu-autoa, epaiketa, eta kartzela prebentiboa diktatzen ditu patruilako 25 soldaduentzako zein hilketa eta zauri larriengatik akusatuak baitira. Ondoren, epaileak MP-ren, Ministerio Publikoa, Fiskaltzara, zeinek Cobán-en egoitza baitauka, espediente igorri zuen, non fiskal bereziak ikerketaren ardura hartu baitzuen.

Horrela azkenean, 1996ko otsailean, Jalapa-n egoitza zuen Apelazio-

Gortearen Bosgarren Aretoak, *Xamán kasua, auzi ez militar bezala ebatzi zuen*, eta horrenbestez, bere epaiketa ez zela auzitegi militarren kontua, eta ez zegokiola haiei. Ebazpen hori historikoa da, zeren lehenengo aldiz espediente judizial bat zeinetan militarrek parte hartzen baitute, kasu honetan patruila militarra, Cobán-eko Lehenengo Instantziako Epaitegi Penalera lekualdatua da, epaile zibil baten ardurapean.

Ekintza honen ondorioz, lege-ekimena planteatu zen epaitegi militarrek eraginik gabe uzteko. Eta ondorioz nahiz honen lorpen bezala, 1996ko uztailean, 51- 92 Lege Dekretua indarrean jarri zen, zeinek Foru Militarra baliogabetu baitzuen, justizia militarrean zain zeuden kasu guztiak auzitegi zibiletara transferituz.

## **Prozesu zibil penala**

*‘Demokrazia eraikitzeke modurik hobereana,  
legezkotasuna eraikitzea da’*

Etapu hau hastean, ejertzitoaren estrategia eta defentsa ondo definituta eta garbi zegoen: *zigorgabetasunagatik lan egitea eta kasua akusatuen kondenara ez iristea lortzea*.

Bere aldetik, Rigoberta Menchú-k, kereilari bezala jardunez, garbi zeukan espedientea eta Justizia Militarreko Kodearen kasua bera ateratzerakoan, borroka luze bat zetorrela justiziaren aplikazio nahiz administrazioaren eremu juridikoan, baina Botere Judizialaren jarduera justu eta egoki bat aurkitzeko itzaropena mantentzen zuen, egia argitu eta aurkitzeko eta horrela justizia egiteko bide bakar bezala.

## **Bigarren borroka handia burututako delituaren definizio nahiz tipifikazioaren aldeko borroka**

Bigarren borroka hau defentsaren abokatuek aurkeztu zuten gehiegizko errekurtsio-kopuruaren aurka burutu behar izan zen, ahozko nahiz publikoa den epaiketa atzeratu eta eragozteko helburuarekin. Justizia eragotzi eta tratatzeko helburuarekin.

Estrategia honekin jarraituz, Cobán-eko Lehenengo Instantzia Penaleko

Epaitegiko epaile titularrak, Apelazio-Gortearen Bosgarren Aretorearen ebazpena ezagutzean, zeinek Xamán kasuaren bideratzeari jarraipena ematea agintzen baitzion, modu maltzur eta zurian, goragoko organismo bati planteatu zion Justiziako Gorte Gorenaren Ganbera Penala, zalantzak bere eskumen, gaitasun ala autoritateari jarraiki bideratzeari jarraipena ematerakoan. Hala ere, Ganbera honek agindu zion Bosgarren Aretoko ebazpena bete eta prozesua bideratzen jarraitu behar zuela.

Epaile honek bezala, defentsaren abokatuek ere idazkiak aurkeztu zituzten Bosgarren Aretorearen aurka, Justiziako Gorte Gorenaren Babes-Ganberari, asmo berdinarekin. Ez zuten aurrera egin eta denbora asko barru eskaera erretiratu egin zuten. Taktika denbora irabazi eta prozesua luzatzeko soilik zen.

Epailearen portaera nahiz jarreraren beste adibide bat izan zen, 96. urteko maiatzaren 30ean, kasuaren espedientea irakurri ere egin gabe, zeinek ia 5.500 folio baitzituen, defentsaren abokatuak eskatuta, 8 akusatuen kartzela-egoera aldatu zuenean, patruilaren burua barne. Eman zieten, ordezkot neurri baten bidez, *diru gutxiko kuota bat*, etxe barruko arrestatzea zein Cobán-eko 21. gune militarrean bete behar baitzuen.

Hala ere, Ministerio Publikoak eta kereilariak, Rigoberta Menchú Tum, apelazio-idazki bat aurkeztu zuten Cobán-eko epailearen erabakiaren aurka, Auzitegien Gainbegiratzearen aurrean barne hartuta, beste hainbat kexa epaile honen beraren beste hainbat jarduera desegokiei dagokienean eginiko ikerketengatik. Honek Justiziako Gorte Gorenak bere kargutik kentzeko balio izan zuen, zein lorpen bat izan baitzen.

Akats honekin ados ez egoteagatik, epaileak Justiziako Gorte Gorenari idazki bat aurkeztu zion, zeinetan argudiatzen baitzuen bere independentziarako eskubidea bortxatu zela, Xamán kasuko akusatuen etxe barruko arrestatzearen neurriagatik. Baina larriena; kargura itzultzea eta berriro Cobán-eko epaitegira bidalia izatea eskatzen zuen. Garbi zegoen bere interesa akusatuei defentsan laguntzen jarraitzea zela.

Data horretan bertan, 1996ko maiatzaren 30a, epaile honek etxe barruko arrestatzea eman zuen, eta MP-k nahiz kereilariaren abokatuek, salaketa penala aurkeztu zuten patruila militar guztiaren aurka Exekuzio Estrajudizialeko delituengatik eta Exekuzio Estrajudizialaren ahaleginarengatik.

Ahozkoa nahiz publikoa den epaiketaren prestaketarako etapa honetan, giltza izan zen zerbait gertatu zen. Gertatu zen justiziaren goragoko organismo batek, Apelazio-Gortearen Hamabigarren Aretoa, hilketa eta zauri larrien delituan aldatu egin zuela lehen tipifikatuta zegoena, bere ordezkari Exekuzio Estrajudizial eta kalte oso larriak jarriaz.

Baliagarria da onartzea etapa honetan, justiziako goragoko organismoak egon zirela, zeinek eraginkortasunez, objektibotasunez eta inpartzialtasunez jokatu baitzuten, eta hori ez zitzaion akusatuen defentsari gustatu, ezta ejertzitoarenari ere.

Horren frogara da 1996ko uztailaren, defentsak luzapeneko eta eragozpeneko prozeduren praktika areagotu zuela epaiketara ez iristeko, esaterako:

- Hainbat idazki aurkeztea Apelazio-Gortearen Hamabigarren Aretoko magistratuak ezetsiaz, zeren bere defendatuen aurka jokatzen zutela kontsideratzen baitzuten. Errekurtso-idazki guztiak errefusatu zitzaizkien.
- Abokatu hauek beraiek, Xamán kasurako izendatutako epaile berria salatu zuten, Justiziako Gorte Gorenaren bidez, goi mailako organismo honi aginduak eramateagatik, kereilariaren eta MP-ren, Ministerio Publikoa, alde ebazteko, hala nola aurkezten zioten edonolako eskaera errefusatzegatik. Kasu honetan ere ezespina ez zen onartua izan.

Akusazio mota hauek eta defentsaren abokatuen portaerak, epaiketara ez iristeko adierazten zituzten seriotasun, erantzukizun falta eta borondate txarra frogatzen dute eta halaber Xamán epaiketaren zehar aplikatutako estrategia definitzen du.

### **Borroka erabakigarria, bigarren epaiketaren ahozko nahiz jendaurreko hasiera**

1998ko apirilaren batean, hasera ematen zaio bigarren prozesuari Cobán-eko Lehenengo Instantziako Epaitegian, Verapaz Garaian.

Parte hartzaileak dira, Sententzia-Auzitegia, hiru magistratu, lehendakari bat, eta bi bokal, zeinek ahotsa eta botoa baitute, osatua. Ministerio Publikoa, salatzaile bezala, Fiskal Bereziak ordezkaturik, Ramiro Contreras Valenzuela abokatua. Atxikitako kereilaria, Rigoberta Menchú Tum eta María Estela

López Funes abokatua. Akusatuen defentsarako abokatuak, Julio Cintrón Gálvez lizentziatuak zuzenduak.

Eztabaida bera hasi aurretik, prozesurako une giltza bat dago: Froga-Eskaintza. Alderdiek, salatzailea eta defendatzailea, bere frogak eskaintzen dituzten unea da Sententzia Auzitegiak espedientean erantsi ditzan ala errefusatu ditzan.

Sententzia Auzitegiaren aldetik inpartzialtasuna bermatzeko erantzukizuna handia da, ***zeren espedientea kutsatzeko arriskua dago froga faltua onartzerakoan ala baita ere kargu-froetatik hustekoa.***

Prozedura ebazteko: *lehenengo*, alderdiek bere frogak eskaintzen dituzte; *bigarren*, auzitegiak hauei buruzko iritzia ematen du; *hirugarren*, alderdiei ondo iruditzen bazaie, ekarritakoa argitu, hedatu ala errefusatu dute; *laugarren*, auzitegiak hauei buruzko bere azken epaia ematen du. Ez dago zigorgabetasunik, alderdietako bat ados ez badago. Azken hau, prozesu egokia bortxatzen duen akats bat da.

### ***Kargu-froga hustearen adibidea:***

Ministerio Publikoak eta kereilariak, kargu-frogak aurkeztu zituzten, onartuak hasiera batean, baina ondoren auzitegiaren aldetik errefusatuak:

- 60 argazki-sorta bat, ekintzak gertatu eta egun gutxi barru hartuak, zeinek ebidentziak ekarri ahal bailituzkete zaurituen azterketan 'M79 granada jaurtitzaila', arma erabiltzeagatik zein tropak zeramala ejertzitoak onartzen baitzuen, baina esaten zuen ez zela erabilia izan. Hau Auzitegiaren aldetik akusatuentzako eta zigorgabetasunarentzako ekarpen garbia da.

- MINUGUA-k tokian bertan, ekintzen lehenengo egunean, altxatako txostena errefusatu zuen, zeinek hurrengo egunetan bildutako informazioa barne baitzuen.

- ACNUR-ek elaboratutako ekintzen txostena errefusatu zuen.

- Mediku forenseen hamaika txosten bere hedapen argigarriekin, biktimen nahiz zaurituen argazkiekin.

- Errefusatutako dokumentuak: itzuleraren Egiaztapen Instantziaren diktamena, organismo nazionalak eta nazioartekoak integratua.
- Erabilera eskusibo militarreko 'full jacket' proiektil baten argazki bat.
- Ministerio Publikoak eginiko bideo-zintak.
- Patruilak zeramatzan armen berrogeita hamabi argazki.
- Ministerio Publikoko forenseak, Nájera Ochoa, hartutako hogeita bi argazki, zeinek 14 pertsonen zauriak dokumentatzen baitzituzten.
- Ekintzei buruzko Guatemalako Polizia Nazionalaren txostenak errefusatu ziren.
- Zaurituen hamaika erradiografia zein bere arretarako tokian hartu baitziren, San Juan de Dios Ospitala, Ministerio Publikoa, mediku forensearen aldetik.

Argudioa ondorengoa izan zen: '...desegokiak ziren eta ez zuten lotura zuzenik nahiz zeharkakorik gordetzen prozesu honekin...'

Kargu-froga hauen, beste batzuen artean, errefusak, Sententzia Auzitegiaren aldetik, zeinek onartzeko nahiz errefusatzeko autoritatea baitzuen, espedientea husteko egoera sortu zuen eta neurria akusatuen onurarako izan zen.

### **Defentsak aurkeztutako eta Auzitegiak onartutako frogak.**

#### **Espedientearen eta prozesuaren kutsatzea inplikatzeko baitute**

Ejertzitoko abokatuei baimenik eta gaitasunik ez zuten pertsonak, ezta gutxiago ere, elaboratutako frogak aurkeztea onartu zitzaizkien, aurretiazko auzitegiaren aginduarekin nahiz peritajea zein puntutan egin kontuan izatearekin kontatu gabe. Ejertzittoa bera izan zen ekimena izan zuena, puntua nahiz arloa hautatu zituen eta pertsonala ere bai; bere elaborazioa agindu zuen eta peritu hauen bidez aurkeztu zituen espedientearen eransteko. Auzitegiak onartu baino ez zituen egin. Legez kanpokoak dira.

Froga hauei peritajeak esaten zaie eta burutzen nahiz aurkezten dituzten pertsonen perituak esaten zaie. Legeak agintzen du peritu hauek peritaje, froga hauek alderdiei aurkeztu behar dizkietela eztabaidatu ditzaten eta onartzen badituzte, espedientean eranstean dira. Halaber legeak esaten du peritu hauek bere horretan jardun aurretik, auzitegiaren aldetik karguan zin egin behar dutela, eta batez ere, arloan espezialistak bezala kalifikatuak izan.

Kasu honetan, perituak ez zuten zin egin eta inoiz ez zuten auzitegi honen aldetik alde aurretik peritajeak burutzeko agindurik jaso, eta inoiz ez zuten peritu bezala bere espezialitatea nahiz gaitasuna egiaztatu eta hala ere, onartu egin ziren eta espedientean hala balira bezala erantsi ziren.

### ***Trebetasun hauen adibideak***

- Perituak, Jerez de la Cruz, 'Santiago Tut adingabearen lurpetik ateratzea frogan eta alde aurretiko balistika frogan hartu zuen parte.

Hala ere, peritu honek inoiz ez zuen bere aurrean izan, giza hondakinak analisia egiteko eta hiru urte barru ekintzei buruzko probak aurkeztu zituen gorpua lurpetik atera gabe eta baimenik izan gabe. Hau da, hildako pertsonaren frogak autopsiarik egin gabe aurkeztu zituen, duela hiru urteko argazki batetaz soilik baliatuz. Peritu honek inoiz ez zuen giza hondakinik aztertu frogak aurkezteko. Oroitu behar dugu ikerketako etapan, MP, Ministerio Publikoa, berak ere ez zuela sarraskiko gorpuen erradiografiarik hartu, X izpien aparatuek ez eduki izanagatik.

Balistikako frogaren kasurako, peritu honek esaten du haurraren erailketan ez zela bigarren balarik egon, hala ere, frogatuta dago berbertatik eta bizkarretik tiro eginiko proiektila, bularretik irten zitzaiola eta bularrezurra erabat suntsitu ziola eta bere eskuineko besoa ere bai. Proiektil baten potentzia suntsitzaile hori, ejertzitoaren erabilera eskusiboko proiektilena soilik da, eta, gehiago oraingo honetan, zeren biztanleek ez zuten armarik frogatuta dagoen bezala.

- Leal Flores perituaren kasuan, zeinek auzitegiaren agindurik gabe, arma ezberdinen peritaje bat burutzen baitu, kuartel baten barruan, ezkutuan eta alderdien partaidetzarik gabe. Eta peritaje honetatik, ondorio bezala esaten da ezin dela zehaztu zein arma mota zeramatzan patruilak, ezta zein izan ziren erabiliak ere. Beraz, ezin jakin zein arma eta zein kalibre

mota izan ziren tirokatutako proiektalak. Argudio honen helburua, patruilako buruaren aitortza irmo mantentzea da, zeinek ziurtatzen baitzuen kalibre ezberdinetako tiroak burutu zirela'. Peritu hau jarduneko militar bat izateagatik, legez ezindua zegoen zeregin horretarako, zein bestalde ez baitzuen auzitegiak agindu.

- Villacorta Cruz perituari, frogak marrazkien ala diagramen bidez fabrikatu eta aurkeztea suertatu zitzaion zeinetan hainbat emakume azaltzen baitira soldaduei armak kentzen saiatuz. Era berean, bizirik ateratakoen zauriei buruz nahiz eraildakoen heriotzaren arrazoiak emateko azalpenak burutuz. Argudio honekin, frogatu nahi izan zuen, lau emakume izan zirela soldadu kopuru berdinari armak kentzen saiatu zirenak eta bereizkeriarik gabe tiro egin zietela, Lacán Chaclán-ek esaten zuen bezala.

*Jarduera eta ekintza hauek, ejertzitoaren estrategia nahiz defentsa garbi ikusten uzten dute; epaiketa osoan zehar, tranpa nahiz fartsa juridiko bat eraiki eta eustea, zeinekin epaiketaren mendean zeudela, prozesu guztia amaiera arte jarraitzen zutela eta auzitegia errespetatzen zutela frogatzen baitzuten, baina jakinda espedientearen husten zihuan heinean hala nola auzitegia froga nahiz lekuko faltsuak onartzen, ziurtasun osoz, epaiketaren amaieran, ez zirela kondenatuak izango eta aske geratuko zirela.*

### **1998ko apirilaren 14ko ahozko nahiz eztabaidaren hasiera, abuztuan tranpan harrapatzen da**

Defentsa hasieratik akusatuen lekuko faltsuen bilaketa, prestaketa eta aurkezpenean prestatu zen. Presionatu eta konbentzitu egin zituen lurak eskainiaz zein Cintrón Gálvez abokatu defendatzaileak berak gestionatu baitzituen FONAPAZ-en aurrean, Bakearen Fondo Nazionala, erakunde horri sinatu eta aurkeztu zizkion eskaeretan azaltzen den bezala. Auzitegiak froga hauek errefusatu egin zituen atxikitako kereilariak aurkeztu zizkionean.

Lekuko faltsuak bere testigantzarako prestatuak izan ziren alde aurretik, halaber akusatuek burututako aitortzekin gertatu zen bezala, errugabetu nahi zuten, sarraskiaren erantzukizuna bere gain ez hartu, ustekabeko zerbait bezala aurkeztu, kasualitatez gertatutako zerbait.

Autoreen aitortzak, bizkarretik hildako eta errematatutako 8 urteko haurrari

tiro egin zion soldaduaren kasuan bezala, honek ere errugabetu nahi izan zuen, arduradun bezala ez azaldu, ustekabeko ekintza bat izango balitz bezala. '... ni han nengoen eta atzetik txaloka adoretu ninduten, itzuli nintzen eta tiro egin nuen... eta tiro egin nuen bitartean birak eman nituen... ez da egin nahi izan dudalako, beldurragatik egin nuen, bizitza defendatzeagatik... kartzelan hiru urte baino gehiago daramatzat, eta batez ere horregatik ez nuen oroitu...'

Bere lehenengo aitortzan bost ordu pasa zituen hitz egiten. Ez zuen galderarik onartu eta inoiz ez zuen aipatu tiro egin izana. Bere aitortzaren bigarren atalean oroitu zuen haurraren aurka tiro egin izana.

Tranpa eta fartsa juridiko honetan, bai perituengan, hala nola aurkeztutako bere frogetan, gehi akusatuen eta lekukoen testigantzak, garbi agertzen da orientabide-ildoak: erantzule bezala ez azaltzea, ustekabearen itxura ematea, kasualitatearena, ezusteko bat bezala, sarraskiari.

Hau guztia onartua da eta espedientean erantsia eta auzitegiaren prozesuan ere bai, zeinek erakusten nahiz berresten baitu epaile, defendatzaile eta akusatuen artean adostauna dagoela.

Honen aurrean, kereilariak auzitegiaren aurka idazki bat aurkeztu zuen jokatzeko moduarengatik eta Babes-Aretoak jaso egiten du, berehala, ia bi ordu barru, erantzuten du: '**...Babeserako Auzitegi Konstituzionalak ezin du erabaki legeari atxikitako justizia auzitegiek igorritako ebazpenei buruz, hirugarren instantzia bat ez izateagatik...**'

Laburbilduz, ahozko epaiketan, auzitegiak prozesu egokiaren arauak bortxatzen ditu, zeren espedientean defentsaren froga eta testigantza faltsuak onartu eta eransten ditu eta Ministerio Publikoa, nahiz kereilariaren alderdi salatzaileari txostenak, frogak eta sarraskiaren biktimen nahiz beste hainbat erakunde garrantzitsuren frogak eta testigantzak errefusatzen dizkio.

Baina halaber justiziaren ezeztapena dago, babeserako auzitegiak kereilariak aurkeztutako idazkia onartzen ez duenean eta errefusatzen duenean, eta horrela sententzia-auzitegiak eginikoa bermatu eta babesten du.

## **Zopan ilea azaltzen da eta maniobra agerian uzten du**

1998ko abuztuaren amaieran CIDH-k, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra, Guatemala bisitatu zuen, eta epaileak, Zina Elizabeth Guerra Giordano abokatua, zein Xamán kasuaren auzitegiko kidea baitzen, organismo honen aurrean salatu zituen, berak ejertzitoarekin lotzen zituen pertsonen aldetik jasaten zituen presioak eta mehatxuak. Bere partzialtasunagatik konpentsazio moduan txantaia onartu zezan presionatzen zitzaion.

Ezin da frogatu gaur egun arte, CSJ berak, Justiziako Gorte Gorena, nahiz Auzitegien Gainbegiratzeak kasu honen aurka ikertu eta jardun zuten ala ez. Egia esan, Guerra Giordano epailea bere kargutik banatua izan zen. Honek Organismo judizialaren aldetik partzialtasuna inplikatzeko du militarren onurarako eta zigorgabetasunari laguntzea da.

Baina halaber fiskal bereziak, Ramiro Contreras Valenzuela abokatua, berari eginiko mehatxuak salatu zituen. Bere lanerako azpiegitura-aukeretan nahiz baliabidetan murrizpena, zeinek bera prozesutik ateratzeko erabaki politikoari erantzun baitzion, zeren egia esan, kereilariarekin eginiko bere koordinazio eta lankidetzako zeregina, profesionala eta egokia izaten zetorren eta horrexegatik, prozesuak amarru eta tranpa horien artean egiten zuen aurrera.

Egoera hainbeste nahastu zen ezen kasuari uko egin zion, Ministerio Publikoa, lana eta herrialdea utzi zituen bere bizitza salbatzeko. Egoera honen atal ironikoa da 1998ko otsailean CIDH-ra bertaratu zela, Guatemalako Estatua Ordezkatzeko eginiko entzutegi batera eta urte horretako bertako azaroan, kasua utzi zuen eta MP ere bai eta herrialdea uzterako Xamán kasuari buruzko salaketa larriak adierazi zituen zein gaur egun arte ez baitira ikertu eta gutxiago, argitu.

Horregatik bidezkoa da onartzea eta txalo egitea. Bai Guerra Giordano epaileak eta bai Contreras Valenzuela fiskal bereziak zerbait dute komunean: 'duintasuna eta zintzotasuna'.

Egoera honek ahozkoa nahiz publikoa den eztabaida bertan behera geratzea eragin zuen, zeren Guerra Giordano epailearen eta Contreras Valenzuela fiskal berezi ohiaren bokal ordezkaria izendatu behar zen.

## **Eztabaidaren hasiera berria 1998ko azaroaren 25ean**

Fiskal berezi berri bat izendatu zen, zeinek kargua onartu baitzuen, nahiz eta hamar lanegun soilik izan kasuaren espediente osoa ezagutzeko, 8.000 folio, beraz, oso zaila da bere osotasunean irakurri ahal izana. Hau karguak esleitzen zion jarraipen penalaren jarduerarekiko bere lan eskas, urri eta erabateko utzikierian ikusten hasi zen.

Adibide bezala, eztabaida jarraitzerakoan, lehenengo entzutegian, 1998ko azaroaren 25ean, fiskala, salaketaren lekukoak aurkeztu aurretik jakinaren gainean jarriak izan ziren ala ez egiaztatu gabe, abokatu defendatzaileen eskaerarekin bat egiten du lekukoak auzitegira indar publikoaren bidez eramanak izan daitezzen. Neurria ez zen burutu, noski.

Aurkeztutako protestan, kereilariak frogatu zuen lekukoak ez zirela jakinaren gainean jarriak izan eta modu horretan eramatea, aldrebeskeria bat izango zatekeen. Fiskal bereziaren akats larria.

Beste gertaera bat honakoa izan zen: kereilaria akusatuen defentsa komunaren aurka jarri zenean. Guztiontzat abokatu berdinak, ba izan ere, patruilako guztiek ez zuten tiro egin eta denak ez ziren zaurituak gertatu, eta ez zituzten interes berdinak, zeren kasu ezberdinak zeuden. Jarrera horrek prozesu egokiaren arauak bortxatzen zituen, zeinek ezartzen baitu inputatu akusatu bakoitzarentzat abokatu defendatzaile bat egon behar duela eta ezin da defentsa modu komunean burutu, bera baliozkotzen ari zen bezala.

Hala ere, ez zuen ulertu kereilariak gertaera horri aurka egiteko izan zuen arrazoia, zeren horrela arrazoitu zuen: '... fiskal baten funtzioa eztabaida batean alderdietako inorekin, salatzailea eta defentsakoa, ez haserretzea da, ... eta bere barruan legearen aurkako jarduerarik burutu nahi izatea ere ez...'

Ejertzitoarekin lotutako defentsak aurkeztutako bi perituei dagokionean, ikerketaren ardura kereilariarengan utzi zuen berak salaketa hori frogatu zezan, fiskal berezi bezala bere gain hartu beharrean, zeren MP, Ministerio Publikoa, da zeini baitagokio jarraipen penala.

Adibide hauek fiskal berezi bezala bere funtzioan eskumenik eza eta ezagutza falta irudikatzen dute, Hala nola Errepublikako Fiskal Nagusiak fiskal mota hauek hautatzerakoan duen ardura. Bere funtzioa justizia moteltzeko eta eragozteko jardutea izan zen.

## **Auzitegi berriaren portaera**

Auzitegi honek berregituratze bat jasan zuen, zeren aurreko lehendakaria beste auzitegi batera lekualdatua izan zen eta Guerra Giordano bokala bere kargutik aldendu egin zuten. Lehendakari berri honek, heziketa juridiko tekniko urria zeukan, foro mota honetan eskarmenturik gabekoa izanik eta arrazoi berdinagatik, eztabaidetan. Bere ezagutza eskasa ordezkatzeko modu autoritarioan jokatu zuen eta ondoren prozesua edozein moduz aurrera eramateko bere nahia agerian utzi zuen, ez zuen axola zein modutan, nahasi zituen arazoak konpontzen saiatu gabe. Gehien bat militarren posizioak eutsi zituen, zeinek auziarekin edozein modutan amaitu nahi baitzuten, ahalik eta azkarren. Horregatik, pixkanaka epaiketaren militarrekiko bere partzialtasuna erakusten joan zen.

## **Defentsaren abokatuei, kereilariarenekiko tratu ezberdina**

- Hasiera batean kereilariari ez zion sarbidea izaten utzi Q'echí hizkuntzan aholkulari teknikari batengana. Aldiz akusatuei jadanik hizkuntza horretan hasieratik itzulpenak egin zizkieten, baina bere edukia ere ez zen banatu, behin baino gehiagotan eskatu bazen ere.
- Kereilaria ohartu zen prozesatuei ez zitzaiela egiten ari aldi bereko Q'echí eta Pocomchí hizkuntzen itzulpena eta auzitegian jakinarazi zuen. Lehendakariak defentsaren abokatuei galdetu zieten ea bere defendatuei bere ama hizkuntzara itzulpenak egitea nahi al zuten, hau prozesu egokiaren araua izan ohi denean, alderdien baimena eskatzeko beharrik izan gabe.
- Eztabaidaren erdian, kereilariak salatu zuen okerreko dokumentu bat irakurtzen ari zela eta auzitegiak, berrikusi nahiz ebaluatu beharrean, oharra errefusatu zuen eta bere irakurketarekin jarraitu zuen, ondoren abokatuari kargu hartzeko.
- Antzeko egoera gertatu zen kereilariaren aldetik epaiketaren grabaketak burutzeko kasuan. Ejertzitoko abokatuak beti egin izan zituzten, baina argudiatzen zuten kereilariaren abokatu laguntzaileak ez zuela hauek burutzeko baimenik. Are gehiago, abokatuak eskatu zuen auzitegiak egunero burutzen zituen grabaketak berari emateko, baina hauek ere ez zitzaizkion eman. Eskaini zizkieten baina epaiketaren amaieran. Ados

ez zegoenez, kereilariak ordaindutako hirugarren pertsona batek egin ditzan proposatzen du. Behin eta berriro esan izanagatik, proposamena onartua izan zen.

Auzitegiaren jarrera eta portaera hau epaiketa guztian zehar ekintza errepikatua izan zen: *prozesu-arauekiko aldaketak zilegi izateko bere eskuragarritasunari zegokionean militarren abokatuen borondateak hala ezartzen zuenean.*

### **Eztabaida orotan arazoak gertatzen dira zeini gertaerak deitzen baitzaie**

Auzitegia hauek konpontzeko gai ez bada, alderdiek goragoko beste organismo batera irago ahal dute

- Fiskal Bereziak planteatu zuen nola hainbat gertaera, esaterako aurreko faseko bi perituek eskainitako froga-baliabideak ez zirela onargarriak. Auzitegiaren aldetik errefusatuak izan ziren ondorengo argudioarekin: *'... ezin du hauek tratatzera sartu beste prozesu-etapa bateko atalak diren auziak izateagatik'.*

- Kereilariari, aurkeztu zituen zapi gertaerak, egun bakar batean adieraztea exijitu zioten, jarraipen-irtenbiderako aukerarik nahiz horretarako behar adina denbora izan gabe, **bost ordu**. Aldiz, defentsaren aldetik planteamendu hauei erantzuna eman zaienean, auzitegiak banan bana egin dezaten eta behar adina denbora hartuz burutzea zilegi egin du; *laurogei ordu erabili zituzten*. Tratu honekin berdintasun irizpidea bortxatu zen.

### **Beste adibide batzuk:**

- Defentsa komuneko gertaera: legeak ezartzen du inputatu bakoitzak, gutxienez defendatzaile bat izan dezala. 26 salatuek 5 abokatu soilik dituzte. Hau legez kanpoko da, desegokia eta estrajuridikoa, zeren salaketan bere kide propioek tirokatutako hiru zauritu daude, beraz gainerako akusatuekiko interes kontrajarriekin.

- Defentsa uztearen gertaera: 1998ko ekainaren eginbide batean, abokatu

defendatzaileetako bi ez ziren entzutez bertaratu eta bere ez agertzearen azalpenik ere ez zuten eman. Honen aurrean, epaileak beste abokatu bat izendatu zuen ordezkari bezala. Hau salatuari aitortza lehenengo aldiz hartzen zaionean soilik egin ahal da. Kereilariak bere desadostasuna adierazi zuenean, auzitegiak ez zuen bere jarrera aldatu.

- Ahozko eta publikoak diren entzutez gien garapenean zehar defentsaren lekukoaren presentziaren gertaera. Arauak esaten du hauek bere aitortzaren unean soilik egon ahal izango direla eta besterik ez. Ezin dute entzutegiak irauten duen denbora guztian egon. Hau adieraztean, auzitegiaren aldetik defentsaren lekukoaren presentzia ere ez zen akats bezala onartua izan, ahozko entzutez gien denbora osoan zehar.

Ondoren akusatuen testigantzen etapan hainbat gertaera burutu ziren. Lacán Chaclán-en kasuan, bost abokatu defendatzaileek patruilaren buruak izendatutako abokatuak balira bezala jokatzeko zuten. Ordenarik gabe eta fiskalak eginiko galderei errespeturik gabe, nahiz kereilariak Lacán-i egiten zion galderei aurka eginez. Ordena aldatu zen eta legeek ezarritakoa ere bai baldin eta ejertzitoko abokatuaren borondatea betetzea lortuko bazen. Auzitegiak egoera hori zilegi egin zuen. Protesta egiterakoan, argudiatu zuen beste era batera epaiketan defentsaren irizpidea bortxatzea litzatekeela.

Baina auzitegiaren partzialtasuna garbi erakuste duen gertaera, Lacán-ek bere aitortzarako toki berezi bat eskuratu zuenean gertatu zen non bere azalpenarako berak prestatutako mapa militarra eta diagramak jarri baitzituen, are gehiago, bigarren aldi honetan, lehenagoko hainbat ekintza planteatu zituen zein bere lehenengo adierazpenetan ez baitzituen aipatu.

Beste entzutez gien batean. Kereilaria berak azaldutakoari buruz galdetzen hasi zitzaion eta mapa berdina bat erabili zuen, baina zibila eta ez militarra, Lacán-ek ez du erantzun nahi. Orduan, auzitegiari eskatzen dio patruilako buruak erabilitako mapa eta diagrama berdina erabiltzen uzteko, zeren berak eginikoak baitziren, eta kontua da ezin direla erabili, 'zeren Guatemalako hirira eramanak izan ziren eta ezin izan ziren aurkitu'. Arrazoi horregatik patruilaren buruak, berriro, ez zituen eginiko galderak erantzun.

Sententziako auzitegiko kide bakar batek ere ez zekien azaltzen zergatik dokumentu horiek, prozesuaren atal osagarria, ez zeuden bere eskutan, hauen zaintzari dagokionean erantzukizunak agindu ohi duen bezala.

Entzutegi guztietan, defentsaren abokatuek, nahiz bezala eten zituzten kereilariak egiten zituen galderak eta auzitegiak dena hala izaten utziaz zilegi egin zuen. Halaber ez zuen ezer adierazi akusatuek abokatu defendatzaileengandik metro bat baino gutxiagoko distantziara egonda instrukzioak jasotzen zituztenean. Inoiz ez zen arreta deitzerik burutu, eta are gutxiago, zigorrik jarrera horrengatik. Fiskal bereziaren portaera egoera horren aurrean, 132egiten uztea eta pasatzen uztea rena izan zen. Erabateko axolagabetasuna.

Ezezko honek ez zuen zilegi egin ez fiskalaren aldetik eta ez kereilariaren aldetik galderak egiteko eskubidea burutzea. Halaber berez entzutegietakoa den beste elementu bat ere ez zuen entregatu nahi izan, hau da, filmazio ofizialak.

### **Eztabaidaren hasiera berria, 1999ko urtarrila**

Gabonetako festek eta urte amaierakoek eraginiko atzerapenaren ondoren, 1999ko urtarrilaren 4an eztabaidari berriro hasiera eman zitzaion Elías Choc Caal soldaduaaren aitortzarekin, Santiago Tut haurra bizkarretik hiltzeagatik salatua, zeinek oraingoan bi argazki eransten baititu zeinetan haurraren aurka tiro non egin zuen adierazten baitu. Kereilariak adierazten du egokia dela espedientean eta prozesuan eranstea.

Kereilaria urtarrilaren 5ean entzutegian parte hartzen hasten da, hainbat anomalia eta auzitegiak akusatuen onurarako adierazten duen partzialtasun garbia adieraziz. Auzitegian axolagabekeriarengatik protesta formala aurkezten du, prozesuko materialen zaintzan betebeharrak ez betetzerakoan, esaterako: Lacán Chaclán-ek azaldutako materialen desagertzea. Era berean, entzutegian hartutako bideoa aztertzen hasteko borondate falta eta bertan gertatzen ziren beste hainbat ekintza.

Zehazki, abokatu kereilariak auzitegiari adierazi zion: 'ez zela auzitegi independente bat ezta inpartziala ere, ezta halaber bere zeregina bete duen auzitegi bat, zeinek prozesu egokiaren arauak errespetatuko bailituzke; zeinek behar adina ezagutza juridiko profesional azaldu baititu'. Hau da, auzitegiaren lanarekiko zalantzan jartze funtzionalak ziren eta ez bere kideei eginiko inolako eraso pertsonala.

Baina auzitegiaren jarrera, bere lehendakariaren ahotik, zeren bokalek ez

zuten iritzirik ematen, berari eta auzitegiari errespeturik gabe tratatzen ari zitzaiela izan zen. Ez zuen ulertzen kereilariaren eskaera zertara zuzendua zegoen: 'lege-ekintzak hastea, eskumena duen epaile baten aurrean prozesu penal baten parte diren materialen desagertzeari buruzko ikerketa bat burutzeko eta horrela erantzukizunak argitzea'.

Egoera hau, Ministro Publikoa, fiskal bereziak halaber ez zuen ulertu, esan zuenean: '...Une honetara arte ez dut auzitegiaren aldetik inongo alderdirekiko begirunerik ikusi'... ' Eztabaidaren garapenean ezin dira norgehiagoka pertsonalak burutu, ezta banakako pasiozkoak ere'... 'Onartu behar dugu auzitegiko kideei legeak ematen dieten errespetu bat zor zaiela'.

Ez auzitegiak eta are gutxiago fiskal bereziak ez zuten ulertu eta asimilatu kereilariaren eskaera zela: 'jarduera penal bat sustatzea zeinek guztiok zekitena ikertuko baitzuen; **publikoa eta ahozkoa zen entzutegi batean dokumentazioaren desagertzea, zein prozesu penal bateko parte baitzen; Lacán-ek aurkeztutako mapak eta diagramak.**

Fiskal bereziak erakutsitako nahastea, baldarkeria ala partzialtasuna hainbestekoa izan zen, ezen horrez gainera ondorengoa adierazi baitzuen: '...auzitegiaren aldetik ohar bat egitea eskatzen dut eta kontsideratzen dut ez dela legezko arrazoirik existitzen eskatutakoari dagokionean'. Atxikitako kereilariaren abokatuari egiten dio erreferentzia. Horrela, ekintzaren ikerketa sustatu beharrean, zein kode penalean delitu bezala tipifikatuta baitago, abokatu kereilariarentzako zigorra eskatu zuen.

Horrela, auzitegiak diziplina-ebazpen bat igortzen du. Zigorra, abokatu kereilariaren aurka. Jarrera honekin, auzitegi osoak iraindua sentitzen denaren plantak egiten ditu zegokion bezala ikerketaren alde egon beharrean, zeren bazen legez kanpoko zerbait: dokumentuen desagertzea.

### **Kereilariak epaiketan eginiko azkeneko parte hartzea**

Ikusita auzitegiak abokatu idatziz zigortu zuela, zeinetan bere horretan epaiketako bere partaidetza mugatzen baitzuen, errekurso bat tartekatzen du, idazki baten bidez, auzitegiak hartutako ebazpenaren aurka. MINUGUARI, hauek epiketan behatzaile bezala zeudelarik, kopia entregatu zion.

Garbi zegoen auzitegiak, ebazpen horrekin, zigorrak berak eragiten zuen

funtsa saihesten zuela: *'entzutegiaren parte ziren elementuen desagertzeagatik ikerketa penal bat sustatzea'*.

Entzutegia ospatu eta hurrengo egunean, abokatu kereilaria parte hartzen eta idatzia irakurtzen saiatzen denean, auzitegiak interpretatu zuen Choc Caal akusatua argazkien frogei buruz parte hartu nahi zuela eta eten egiten dio... 'Abokatua ez daukazu hitza'

Rigoberta Menchú Tum-ek, entzutegian bertaratua, halaber behin baino gehiagotan parte hartzen saiatzen da, baina beti hitza kendu egiten zioten... azkenean esatea lortu zuen arte...

'Biktimen izenean... 'Auzitegiko kide zareten jaun/andereok, esan nahi nuke ezin dugula fartsa juridiko bat baliozkotu'.

'Hona ez gara etorri justizia erregutzero ere, beraz Guatemalako justiziaren izenean eta herrialde honetan zigorgabetasunari biderik ez emateko, bagoaz auzitegi honetatik, eta bagoaz auzitegi honetako jaun/andereok zuei esanez, ez dugula gure justiziaren bilaketarako gure jarrera bertan behera utziko'.

'Eskerrik asko hitzengatik. Gure epaiketako partaidetza murriztu diguzue. Partzialtasuna nagusitzen den auzitegi bat da, beraz ez gara gu izango partzialtasuna burutzen duen auzitegi bat baliozkotuko dugunak'.

'Hona bakea eraikitzen laguntzeko etorri ginen eta hori da gure sinismena eta munduko edozein auzitegira joango gara zeinetan justizia baitago, baina honetan, bere destinoa zigorgabetasuna da eta horregatik bagoaz mahai honetatik eta bagoaz auzitegi honetatik. Eskerrik asko'.

## **Iragarritako zigorgabetasun bat**

Epaiketa penal luze, erabili eta manipulatu zehar, pixkanaka eta urratsez urrats, militarrek, epaileak, baita magistratuak eta abokatu defendatzaileak ere, Xamán kasuan zigorgabetasunaren alde lana egiten joan ziren.

Atxikitako kereilari bezala jarduteko erabakiak ondorengo oinarriak zituen: sarraskiaren autoreak identifikatu, ezagutu eta ardurapetu. Ondoren prozesu judiziala hastea sententziara iritsi arte, hau kondenatzailea nahiz absoluziozkoa izan, baina prozesuarekiko errespetu egokiarekin, horregatik,

inoiz ez, baina inoiz ez, kereilari bezala Rigoberta Menchú Tum-ek, Fundazioa eta abokatua, jarraitu ahal zuten fartsa eta tranpa juridikoaren garapenean zeinetan bilakatu baitzuten epaiketa.

- Epaiketa uzteko erabakia, hala egiteko aukera eta bere komenigarritasuna, analisi serioen, gogoeta sakonen ondorioa izan zen, hala nola erantzukizun historikoaren ardura hartzekoa.
- Inork ez gintuen epaiketarik atera eta ez genuen bertan behera utzi. Esan daiteke ez ginela konformatu amarru baten mendean zegoen, nahiz manipulatu eta desegokia zen justizia batekin.
- Xamán kasuaren epaiketari Guatemalako justiziaren funtzionamenduan akats zehatzak antzeman genituen zein ezin baititugu bermatu eta babestu epaiketa egonda eta jarraituta.
- Joan egin gara epaiketak erabat partziala den auzitegi baten aurrean nahiz eraginik gabeko eta militarren zerbitzura dagoen fiskal baten aurrean sinesgarritasuna galdu duelako.
- Amaiera arte, auzitegiaren partzialtasuna bideratu ahal izateko itxaropena mantendu genuen hala nola prozesu beraren legezotasuna eta forma nahiz funtsari dagozkion arauak kontuan izanik.

### **Xamán kasua CIDH-ren aurrean, Giza Eskubidetako Batzorde Inter-amerikarra**

Kasuak nazioarteko organismoen aurrean aurkezteak, hainbat baldintza eskatzen ditu, ekonomikoak, politikoak eta pertsonalak epe luzerako jarraipena emateko.

Instantzia honek, zeinen egoitza Washington-en, Estatu Batuak, baitago, lehenago exijitzen du, GG.EE.-en bortxaketa banakako eran nahiz kolektiboan burutzen duen herrialdeari dagozkion autoritate judizialen aurrean gestio eta prozesu guztiak agortu direla frogatzea, eta ez dela justiziarik lortu, eta salatutako kasuak, zigorgabetasunean geratzeko arriskua duela.

Batzordeak kasua onartzerakoan, ikerketa-prozesu bat hasten du eta oinarri

honekin Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrera pasatzen duen ala ez erabakitzen du, zeinek egoitza Costa Rica-n baitauka, hor epaitu dadin eta Estatu arau-hausleari zigorra bilatu dakion. Bere ebazpena biktimei burutzen zaien ordain ekonomiko bat da hala nola Estatuari jartzen zaion zigor bat. Ez ditu errudun materialak nahiz intelektualak kartzelarekin nahiz penarik handienarekin zigortzen.

Xamán kasurako, salaketa Batzordean aurkeztu zen, kasua Guatemalan irekia izan eta berehala, justizia nazionaleko sistemaren mugak ezagutzeagatik. Mesfidantza erabatekoa zen, zeren inplikatuak Guatemalako ejertzitoko kideak ziren eta unera arte, historiak ez zuen erregistratu hauek justiziaren mendean egon direnik. Bere krimenak gehien bat zigorgabetasunean mantentzen ziren.

Prozesu penala burutzen joan den heinean, behar bezalako prozesuaren bortxaketa agerian uzten duten ekintzak metatzen eta sistematizatzen aritu da eta epaileek, magistratuek nahiz auzitegiek hala nola apelazio-gorteek ere sarraskiaren autoreak izan diren militarren alde azaldutako partzialtasuna, behar bezala dokumentatuta daude.

Prozesu oso luze honen zehar, Rigoberta Menchú Tum Fundazioa Batzordea dokumentatzen joan da, bistaren garapen, zailtasun, irregulartasun, frogen desagertzei dagokionean, eta honi COPREDEH-ren, Giza Eskubideen Zuzendaritza-Batzordea, maniobra erantsi behar zaio zeinek Batzordearen aurrean Xamán Kasuaren bista- eta bideratze-eskaria artxibatzea eskatu baitzuen, ‘zalantzegatik’ bere artxiboa eskatzen bada ere.

Maniobra honekiko erreakzioa berehalakoa izan zen, zeren sententzia ez zen irmoa dagokion Guatemalako auzitegiaren aldetik, bere apelazio fasean dagoelarik, bere largespena bidegabea bezala adieraziaz.

Gainera, eskaera honek Xamán-eko sarraskiaren autoreentzako behin betirako zigorgabetasunaren ezarpena suposatuko luke hala nola biktimen eskubideen bortxaketa ekidin ezina. Giza eskubideei dagokionean hainbeste bortxaketa ikusi dituen herrialde batean, bereziki biztanleria indigenarenak, zein zigorrik gabe geratu baitira, ekintza honek justizia egitearen alde dauden gizarte organizazioen borroka luzearen nahiz biktimen senideen aurkako zorigaiztoko beste aurrekari bat irudikatuko luke.

Aldez aurretiko hainbat kasutan ikusi den bezala, esaterako Juan Gerardi

Monsinorearen erailketa, sententzia zuten hainbat kasu burutu dira zein, irmoak ez izateagatik eta horrenbestez behin betikoak ez izateagatik, ezeztatuak izan baitira, eta horrek ere Guatemalako instantzia juridikoen ahultasuna erakusten du.

Xamán kasuaren sententzia irmoa izango denaren ardura hartuz, honek ez ditu biktimen eskubideak kontenplatzen, indarrean dauden legeek ezartzen duten bezala, hau da, Guatemalako Konstituzio Politikoa eta Guatemalako Estatuak berretsitako nahiz giza eskubideetako baliabide juridikoak.

Horregatik, gaur egun Giza Eskubideen Batzorde Interramerikarrak eman beharreko ebazpenaren zain daude, hau onartu eta Gortera pasatzeko, honek diktatu dezan, hala kontsideratzen badu, dagokion sententzia.

### **Xamán kasuaren sententziak eta apelazioak**

1998ko abuztuaren 13an, sententziako auzitegiaren aldetik bost urteko kartzela-sententzia diktatu zen, eguneko Q 5,00-rekin aldagarriak, patruilaren agintean zegoen ofizialaren nahiz bere tropako hamar elementuren aurka. Delitua hilketa erruagatik izan zen eta ez Exekuzio Estrajudizialagatik.

Patruilaren gainerakoei 137konplizitate delituagatik kondenatu zitzaizen, 4 urteko kartzela aldagarri inposatuz. Isunak ordainduak izan ziren nahiz eta errudunak baliabide urriak dituzten soldaduak izan.

### **Justiziaren bidegabekeriaren gaindia**

Ebazpen honen aurka apelazio-errekurtsoa aurkezterakoan, bidegabekeriaren gaindia da, Cobán-eko Apelazioen Hamalauugarren Aretoak apelazioari dagokionean sententzia diktatu zuela eta erabakitzen du: *'... ez zegoen frogaelementurik Camilo Antonio Lacán Chaclán tenienteordea kondenatzeko, zeinen burua baitzen'. Beraz lehenengo instantzian inposatutako pena baliogabetu egin zen, ABSOLUZIOA eta askatasuna emanez, gainerako beste 14 soldaduekin batera.*

Beraz, hamaika soldadu soilik izan ziren kondenatuak hamaika urteko kartzelara. Zigortu hauei, bederatzi urte aldaezin suertatzen zaizkie hilketa delituagatik eta beste hiru urteak lesioen delituagatik dira, zeren egiaztatu

zen tiro egin zutela. 'Guatemalako Zigorgabetasunaren eraginak, 75 eta 76. orrialdeak'.

Joan den apirilaren 28an, Justiziako Gorte Gorenak, CSJ, Verapaz Garaiko Sententzia Auzitegiak igorritako kondena baliogabetu zuen, zeinek 1999ko abuztuaren 12an hamar soldadu kondenatu baitzituen 12 urteko kartzelara eta 15 absolbitu zituen, horien artean Lacán Chaclán. Neurri honekin, 15 elementuak berriro atxilotuak izan behar izan zuten hala nola epaile berrien aldetik epaituak.

### **2003ko azaroaren 20a**

#### **Xamán kasuaren hirugarren prozesua**

Xamán kasuan, defentsak larritasun urriagoko delituak defendatzen ditu. Julio Roberto Contreras, patruilako buruaren abokatu defendatzaileak, krimena hilketa erruduna bezala kontsideratua izatea nahi du.

Xamán kasua deituriko epaiketak jarraitu zuen, San Pedro Carchá-ko areto munizipalean, zeinetan 14 soldadu salatzen baitira 1995eko urriaren 5ean hamaika pertsonen sarraski bat burutzeagatik.

Verapaz Garaiko Sententzia Auzitegian informatu zen asteartean eta asteazkenean, Ismael Guajaca García doktorea, Candelaria Xo, Magdalena Choc, César Augusto Díaz, Héctor Antonio González Castillo, Vicente San, Cornelio González Chan eta Eduardo Enrique España Hernández lekukoak espero zirela.

Entzutegi hauek hamaika pertsona eta gutxi gora behera 35 lesionatuen heriotza argitzeko dira, ekintza hau 1995eko urriaren 5ean Aurora Urriak 8 Komunitatean, Xamán, Chisec, Verapaz Garaia, burutu zela informatu zuen Pablo Eduardo Caal-ek, aipaturiko auzitegiko idazkaria.

Ahozko epaiketara aurkeztu ziren hainbat pertsonak adierazi zuten nola den posible soldaduak oraindik epaituak izan gabe jadanik kartzelan 8 urte eramatea.

Krimen hauek burutu zituen patruila militarren burua Camilo Antonio Lacán Chaclán tenienteordea zen. Hau ekinaren 3an hasi zenaren hirugarren epaiketa da, aurreko biak bertan behera geratu zirelako.

Auzitegia José Dávila, epaile lehendakaria; Manuel Quiroa eta Oswaldo Cuguox lizentziatuek eta bokalek osatzen dute.

### **Sarraskia gertatu eta zortzi urte barru, kasuak sententzia irmorik gabe jarraitzen du**

Cobán-eko sententzia auzitegia, 1995eko urrian, Xamán finkan, Chise-en, Verapaz Garaia, 11 pertsona, bi haur barne, hiltzeagatik tropa militar baten aurka jarraitzen den epaiketako ebidentzia dokumentalak ebaluatzeko gertu dago.

Hirugarren aldia da zeinetan patruila honetako kideak epaiketa publikoaren mendean jartzen baitita: Camilo Lacán Chaclán tenienteordea eta 13 soldadu prozesatuak dira exekuzio estrajudizial eta lesio larrien delituengatik, 30 pertsona zauritu zituzten.

Orain defentsak sarraski hura zein zirkunstantzian burutu zen kontuan hartzea defendatzen du: 'Badakigu ekintza deitoragarria dela, hau ezin dugu ukatu, baina epaileek ekintzak zein zirkunstantzian burutu ziren objektibotasunez ebaluatzea nahi dugu', esan zuen atzo Julio Roberto Contreras Quinteros-ek, zein Lacán Chaclán-en, patruila militarren burua, defendatzailea baita.

Contreras Quinteros-ek prozesatuak hilketa errudun, arduragabe ala zuhurtziagabearen delituagatik epaituak izatea defendatzen du.

Ministerio Publikoa, kasuaren hasieratik planteatu du, soldaduek bere gehiengoan hurrek eta emakumeek osatzen zuten komunitate bat erasotu zutela, zeinek armarik ez baitzuten.

Xamán kasua, duela gutxiko historia judizialean, prozesurik okerrenea da: hau auzitegiak epaiketa errepikatzen duen hirugarren aldia da, zein urtetan errekurtsio juridikoen mataza batean geratuta egon baita.

Egungo epaiketa, joan den ekainean hasi zen eta amaitzeko bi hilabete baino gehiago pasako direla pentsatzen da. Lekukoei, perituei entzuteak eta dokumentuak ebakutzeak gutxi gora behera bederatzi hilabete eramaten ditu, zeren eztabaida osoa Q'echí, C'achiquel eta Q'anjobal hizkuntzetara itzuli behar da.

Sarraskiak Ramiro de León Carpio-ren gobernua estuasunean jarri zuen, eta Bake-Hitzarmenen negoziazioak ere eragina jasan zuten.

Guatemalako Nazio Batuetako Egiaztapen Misioak, MINUGUA, prozesu giltza bezala kontsideratzera iritsi zen zeinek Guatemalako Estatuak gerra-ekintzak ikertu eta zigortzeko zuen ahalmena neurtuko baitzuen.

## **2004ko uztailaren 9a**

### **Poztasuna militarren aurkako sententziarengatik**

1992 Bakearen Nobel Sariak, Rigoberta Menchú Tum Guatemalako indigena ekintzailea, gaur bere poza adierazi du auzitegi batek 1995eko hamaika nekazarien sarraski batean errudun jotako hamaika militarren aurka diktatu zuen 40 urteko zigorrarengatik.

Kazetariei eginiko adierazpenetan, Menchú-k 'positibo' bezala kalifikatu zuen Verapaz Garaiko auzitegiaren akatsa; zein Guatemalako hiriburuaren iparralderantz 250 kilometrotara baitago, eta esan zuen 'pozten naiz Xamán Kasua amaierara iritsi eta sententzia bat egoteagatik'.

'Ez da merezia bakarrik, aldiz justiziak lehenbailehen egin behar lukeena da sarraski bat gertatzen den bakoitzean, aurrekari kementsu bat uztea, zigor kementsu bat', azpimarratu zuen Nobel Sariak.

Ejertzitoko teniente bat eta beste hamahiru soldadu kondenatuak izan ziren bart 40 urte aldaezineko kartzelara hamaika indigenen aukako sarraskiarengatik, horien atean bi haur, zein 1995eko urriaren 5ean Xamán komunitatean, Verapaz Garaiko iparraldeko departamentua, burutu baitzen.

Beste hamaika soldadu justiziaren iheslariak dira.

Xamán komunitatea Mexikotik itzuli ziren familiez osatuta dago, non gatazka armatuan zehar bere bizitzak salbatzeko atzerriratu baitziren, 1960/96, zeinek Guatemala odolustu baitzuen.

Menchú-k, zein bere izena daraman Fundazioaren lehendakaria baita, gogorarazi zuen prozesuan bere hasieratik sartuta egon zela eta aldi berean adierazi zuen 'biktimentzako borroka eta sufrimenduko nahiz inbertitutako

finantza-errekurtso oso handien hamarkada bat gertatu izanak tristura ematen dit'.

Lider indigenaren iritziz, biktimen familien iraunkortasunik gabe ez zatekeen zilegi izango Ejertzitoaren errepresioak eraginiko komunitate nahiz pertsonen alde justizia egiteko une honetara iristea.

Menchú-k adierazi zuen justiziak komunitatearekin zor bat duela, zein ordainketa baita, bai kolektiboa eta bai banakakoa, eraginak jasan dituztenentzat.

Ekintzaile indigenak ziurtatu zuen bere Fundazioak finantza-baliabide ugari gastatu zituela abokatuak, adituaren azterlanak eta ikerketak ordaintzeko.

1992ko Nobel Sariak izugarrikeria bezala kalifikatu zuen justizia militarrei kondena diktatzea ia hamarkada batez luzatu izana, baina halaber adierazi zuen 'hori Guatemalan nagusitzen den zigorgabetasunaren barne dago.

## **2005eko urriaren 22a**

Urriaren 22an Justiziako Gorte Gorenak, CSJ, 40 urteko kartzelako sententzia berretsi zuen Xamán, Verapaz Garaia, sarraskiagatik salatutako 14 militarren aurka zein 1995eko urriaren 5ean burutu baitzen. MP-ko, Ministerio Publikoa, Aurka-egiteen Unitateko fiskalak, Vielmar Hernández, adierazi zuen CSJ-k ebazpena igorri zuela zeinetan ez baitira onartzen akusatuen defentsak aurkeztutako kasazioak. Horrela, Cobán-eko Sententzia Penaleko Auzitegiak igorritako sententzia finkatuta geratzen da.

## **2006ko uztailaren 30a**

### **Sarraskiarekin zerikusia duten militarrek karteletara lekualdatuak izango dira zigorra betetzeko**

Wilfrido Porras, Exekuzio Penaleko epaile nagusiak, Xamán-eko, Verapaz Garaia, 1995ean burututako sarraskiarekin zerikusia duten 14 militar lekualdatzea agindu zuen, exekuzio estrajudizial eta lesio larrien delituengatik, zein 1995eko urriaren 5ean burutu baitziren, 40 urteko zigorra bete dezaten.

Zigortuetako bat Camilo Antonio Lacán Chaclán kapitaina da, zein sarraskia burutu zuen patruilaren burua baitzen. Canadá kartzelara, Escuintla, lekualdatua izango da.

Beste zigortuak Manuel Morán, Agustín Choc Caal, Elías Coc Pop, Florencio Juc Ixim, Ricardo Chub Cholom, Héctor May García, Marcos Can Quej, Pablo Poo Pop, Carlos Cuc Cacao, Ambrosio Max Cojoc, Ricardo Chub Pop, Eleázar Pox eta Francisco Chul dira eta zigorra kartzela ezberdinetan beteko dute.

### **Justiziaren funtzionamendu erreala eta zigorgabetasunaren mekanismoak**

Giza eskubideen bortxaketagatik jarraitutako prozesu ia guztietan eragozpen, akats eta estrategia berdinak antzeman dira; 'justizia-administrazioko botilalepoak' deiturikoak dira zeinek ekintza hauen arduradun material nahiz intelektualen aurka behar bezalako prozesu judiziala burutzea ez baitute zilegi egiten. Justizia-sistemaren funtzionamenduan azaltzen diren arazo nagusien artean ondorengoak dauzkagu:

a) Estatuko autoritateen aldetik ikerketak nahita eragozteak. Hau Ejertzitoak kontrolatutako egiturak ukitu gabe irauteari egotzi ahal zaio, zein auzitegiek eskatutako informazioa ezkutatu eta ukatzeaz arduratzen baitira. Epaille batek informazioa eskatzen duen bakoitzean, Defentsa Nazionalak ustezko 'Estatuko sekretuen' arabera desegokitasuna alegatuz erantzuten du; b) Ministerio Publikoak nahiz kereilak lortutako material frogagarriaren alterazioa ala 'galtzea'; c) Kanposantu klandestinotan gorpuak hilobitik ateratzeko dauden zailtasunak; d) Ekintza kriminal bati dagokionean justiziako langile nahiz lekukoei eginiko beldurrarazteak nahiz mehatxuak, zeinek batzutan erbesteratzera baitara eta kasurik okerreanean hauek erailtzera; e) Ustelkeria, zein sistema judizialaren maila guztietan errotuta aurkitzen baita; f) Epaille eta fiskalen partaidetza eza; g) Prozesuak bideratzerakoan justifikaziorik gabeko luzamenduak; h) Ministerio Publikoko ordezkarien aldetik burututako krimenekin lotutako ikerketa serio bati hasiera ematerakoan jasotzen den ezezkhoa.

## **Gertatutako kasuak**

**Myrna Mack** gizarte antropologo bat izan zen zeinek gatazka armatuaren eraginagatik lekualdatuen egoerari buruzko azterketak burutzen baitzituen, bereziki estatuaren aldetik jasotzen zuten tratamenduari zegokiona. Bere ikerketek Ejertzitoak burututako indarkeria larriak frogatu zituzten; Lehendakaritzako Estatu Nagusiaren Segurtasun Departamentuko kide batek erail zuen 1990ean. Ekintzaren autore materiala kartzelako 30 urtera kondenatua izan da eta krimenaren autore intelektualen aurkako prozesuarekin aurrera jarraitzen da.

**Juan Gerardi Conedera Monsinorea** Oroimen Historikoaren Berreskuratzeari dagokion Elizbarrutiko Proiektuaren bultzatzailea izan zen. 1998an eraila izan zen, txosten hau jendarteratu eta handik bi egun barru.

**Jorge Carpio** lehendakaritzarako nahi handia zuen gidari eta ekintzaile politiko bat izan zen, zein segada batean eraila izan baitzen. Orain arte bi pertsona kondenatu dira, zein ekintzaren ustezko autore materialak baitira. Epaminondas González Dubón Konstituzionaltasun Gorteko lehendakaria zen. Bere erailteza oraindik ez da argitu eta honi buruzko hainbat bertsio existitzen dira.

**Pedro Sas Rompiche** esne-saltzaile bat zen, ustekabean, lehendakaritza-batzordeko kide bat harrapatu zuen eta beldurtuta ihes egiten saiatu zen, Lehendakaritzako Estatu Nagusiko kideek geratu arazi egin zuten eta su-armaren hainbat tiroen bidez eraila izan zen erabat babesgabea aurkitzen zenean. Gaizkilea oraindik aske dago zeren hilketa errudunagatik kondenatua izan zen, eta askatasuna lortzeko fidantza txiki bat ordaindu behar izan zuen.

**Mario Alioto** unibertsitateko ikaslea zen; su-armek eragindako zauriengatik nahiz igarobideak altxatzearen aurkako manifestazio publiko batean zegoenean indar polizialen aldetik jasotako kolpeengatik hil zen. Prozesu judizialean su-armen erabilera agindu zuten autoritateak aske utzi ziren.

## **Estatuko sekretua, ala informazioa emateko betebeharra ez betetzea**

Biktimen senideek organizazio ezberdinetara bideratzen dituzten prozesu judizial ugaritan, bereziki Estatuko autoritateek burututako giza eskubideen

bortxaketetako legez kanpoko ekintzak direnean, Ejertzitoko kideen antolaketa, txanda, kargu, izen eta ohiturei buruzko informazioa oinarrizkoa da erantzukizunak zehazterakoan. Kasu honetan, Ejertzitoak berak soilik eman ahal duen informazioa da. Hala ere, honek ez du agindua bete nahi eta datu horiek emateari ezekoa erantzuten dio. Erakunde armatuak burutzen duen botereak ikerketa-prozesuan kalte larriak eragiten ditu.

Arazo hau bereziki Ministerio Publikoko ordezkariak burutzen duen ikerketan zehar adierazten da, zeinen zeregina epaiketari zehar aurkeztuak izateko ahalik eta frogari gehien biltzea baita. Ejertzitoko kideak nahiz beste hainbat segurtasun-aparatu inplikaturik dauden giza eskubideen bortxaketetako kasutan, estatuko salatzailerik nahiz partikularrek Estatuko sekretuaren pareta ekidin ezinarekin egin dute topo. Kode Prozesal Penal (CPP) berria indarrean egon arte, ez zegoen honetarako araudi-irtenbiderik. Gaur egun, halaber ez dago doktrina-interpretazio nahiz jurisprudenzia orokorik ere honi dagokionean; hala ere, prozesu-ordenamendu berria indarrean egotearekin gutxienez honi aurre egiteko mekanismoak finkatzen dira.

Guatemalako CPP berriak modu argi eta nabarrian ezartzen du dokumentuen izaera sekretua auzitegi batek adierazi behar duela, eta ez Ejertzitoko kideek, zein kasu honetan, hain zuzen, ikertuak baitira. Zentzugabea litzateke, bestalde, legeak susmopean dagoen estatuko organismo bereko kideei dokumentu baten izaera sekretua alegatzea zilegi egitea. Nahiz eta hori horrela izan, Defentsarako Ministerioak sistematikoki ezezkotzat erantzun izan du autoritateei informazioa emateari dagokionean, sekretua bezala kalifikatutako informazioa denaren aitzakiarekin eta bere hedapena segurtasun nazionalaren aurka joango litzatekeela esanez. Azpimarratu beharra dago jarrera hauek askoz ere larriagoak gertatzen direla ebazpen judizialean oinarritutako eskaerak izan ohi diren kasutan. Honek justiziak legearen inperioa inposatzeko duen botere eskasa frogatzen du.

Alderdi honekin lotutako puntu bat Ejertzitoak Argitze Historikorako Batzordeari (CEH) informazioa emateari dagokionean azaltzen duen ezezkotzat da, zeinen ordezkariak behin baino gehiagotan jendaurrean adierazi baitzuten jasotako dokumentu urriek garrantzirik ez zutelako argitze historikoaren bere zereginerako. Nahiz eta eskaerak behin eta berriro burutu beti ukatu zitzaizkien informazioa.

## **Frogen aldaketa**

Giza eskubideen bortxatze-kasuen ikerketarako beste eragozpen serio bat estatuko autoritateek burutzen duen froga-elementuen aldaketa engainagarria da, zeinek hainbatetan justizia-sistema integratzen baitute. Egoera honek, lehenengo, Ministerio Publikoko kideek ikerketa egokia burutu ahal izatea eragozten du, eta era berean Organismo Judizialeko kideek behar adina froga ez edukitzea eta eskainitakoak modu egokian balioztatu ezin izatea ere eragiten du. Baina aldi berean badira beste hainbat aukera zeinetan Ministerio Publikoak emandako ikerketak misterioetsuki ‘galtzen’ baitira.

## **Kanposantu klandestinotan burututako gorpuen lurretik ateratzea**

CEH-ren Txostenari jarraiki, estatuko indarrek burututako 626 sarraski baino gehiago antzeman dira. Kanposantu klandestino ugari daude zeinetan gizonezko, emakumezko eta haurren hondakin elbarri eta kiskaliak gorde baitziren. Ugariak dira autoritateen aurrean aurkeztutako salaketak; hala ere, unera arte prozesu judizial bakarra iritsi da ahozko epaiketaren fasera.

Hau faktore ugariengatik gertatzen da, nagusien artean Ministerio Publikoko ordezkarien gaitasun urria eta borondaterik eza daude, zeinek mekanismo egokiak ukatu eta eragozteaz gainera hauek ez jarraitzea hautatzen baitu. Halaber gorpuen hilobitik ateratzearen praktika bizirik ateratakoei eginiko etengabeko mehatxuen bidez burutzen da, hauek aitortzarik burutu ez dezaten. Horregatik, gorpuen hobitik ateratze ugari Guatemalako Auzitegiko Antropologia Fundazioak burutu baditu ere (zeinek duela hainbat urtetik hona kanposantu klandestinoak aztertzeaz gainera erantzukizunak ikertu baititu), hauek ez dira prozesu penal batera eramanak izan.

## **Hainbat lekukorekin nahiz justizia-administrazioarekin lotutako beste hainbat subjektu prozesalei eginiko beldurrarazte eta mehatxuak**

Ikerketa eta prozesu judizialaren garapen normala eragoztearen ondorioz sortzen diren beste arazo larrietako bat, lekukoei nahiz justizia-sistemako operadoreei eginiko mehatxuekin lotzen da. Praktika hau nahiko orokorra da eta portaera horien berri ematen dute fiskal, epaile nahiz magistratuentzako babes-eskaera ugariek, hala nola jendeak ezagutzen dituen kausetako lekukoaren erailketa nahiz erbesteratzea. Azkeneko kasu honetan,

bere segurtasuna bermatzea lortzen ez den bitartean, zaila dirudi hiritarrek prozesutan parte hartzea, bereziki eremu penalean mehatxuak gauzatuko direnaren beldurragatik. Unera arte segurtasuna eskaintzeko esfortzuak ez dira eraginkorrak izan, isolatutako hainbat kasutan izan ezik.

1999ko martxotik hasita Ministerio Publikoko nahiz Organismo Judizialeko kideen aurkako mehatxuen areagotze bat burutu da. Epaile andere batek El Quiché-n bere bulegoan granada bat jaso zuen eta indar publikoak esku hartu behar izan zuen desaktibatzeke. Beste asko zuzenean mehatxatuak izan dira eta autoritateak berehalako segurtasun-hedatze bat eskatu beharrean aurkitu dira. Gauza bera gertatzen da Ministerio Publikoan, erakundea zeinen barne baitzegoen Retalhuleu-ko fiskal anderea, Shilvia Jeréz, eta iaz eraila izan zen mehatxu ugari jaso ondoren.

Egoera hauei aurre egiteko, Kongresuak subjektu prozesalenzako eta justizia penaleko administrazioarekin lotutako pertsonentzako babes-Legea igorri zuen (70-96. dekretua), zein indarrean jarri baitzen 1997ko urtarrilean. Hala ere, giza eskubideen GKE-tatik jasotako informaziotik, ondorioztatzen da hauetako inolako organizaziok ez duela onurarik jaso Lege horren aplikazioa dela eta. Bestalde, Babes-Zerbitzuak ez du erabat ziurtatzen pertsonaren osotasun fisikoa. Pedro Motta-ren erailketa aipatu behar da, zein erakunde polizialaren zaintzapean egoteaz gainera erailketa eta botere-abusuagatik salatutako polizien aurkako prozesu batean lekuko giltza baitzen. Era berean, Legea jardunean jartzeko ardura duen bulegoak jasotzen dituen fondoek ez dituzte dauden beharrak asebetetzen.

## **Sistemaren erakundetako ustelkeria**

Nagusitutako ikuspegia da ustelkeriaren fenomeno justizia-erakunde guztietara zabaltzen dela. Hala ere, bere hedapena eta bere adierazpen zehatzak nahiz inplikazioak zehazki determinatzea konplexua gertatzen da. Zentzu honetan, Justizia Indartzeko Batzordearen baieztapena baliagarria da adierazten duenean ustelkeriako kasu zehatzak frogatzea zaila bada, zilegi dela hau sustatzen duten sistemak antzematea. Hortik dator sistema hauen diagnosira zuzendutako metodoak martxan jartzearen eta fenomeno honetarako prebentzio-politikak definitzearen nahiz berarekin amaitzearen garrantzia, zeinek justiziaren zeregina eragozten baitu. Bereziki, antzeman da Organismo Judizialean epailearen laguntzaileak direla prozesuaren bideratzea ‘arintzeko’ nahiz ‘eskatzailearen’ onurarako beste hainbat jarduera mota

burutzeko hobariak onartu ala eskatzen dituztenak. Honek Gorte Gorenaren aurrean salaketa ugari sortu ditu, baita epaileen aldetik ere. Beste hainbat kasutan egoera hau epaile eta magistratuen artean antzeman izan da.

### **Fiskal eta epaile nahiz sistemaren gainerako agentzien aldetik gertatutako kolaborazio eza**

Giza eskubideak bortxatzea adierazten duten kasuen garapenerako beste eragozpen bat bere zereginak betetzen ez dituzten hainbat epaile eta fiskalen jarreratik pasatzen da, eta ikerketen garapen erregularra zaildu eta eragozteko soilik esku hartzen dute. Jarrera hau salatua izan da Mack kasuan, Xamán kasuan, eta, adibidez, Conavigua-k eta Caldh-ek burututako sarraskien kasutan. Amaitzeko, adierazi behar dugu Guatemalako zigorgabetasuna sustatzen duten mekanismoen azterketa bat burutzeko unean kontuan izan behar diren bi arazo handi daudela, horietako lehenengoa Adiskidetze Nazionalaren Legearen indarrean egotea da, eta bigarrena oraindik boterearen aparatu klandestinoak existitu izatea da. Abiapuntu bezala Guatemalako Iraultza Nazionaleko Unitatea Legezkotasunera Sartzeko Oinarriari buruzko Hitzarmena kontuan izanik, Kongresuak, 1996ko abenduaren 18an, 145-96. Dekretuari jarraiki, Adiskidetze Nazionalaren Legea deiturikoa ebatzi zuen, zeinek gerrillariak gizarteratzeko ezinbesteko jarraibide juridikoak baitauzka.

Lege honek ezartzen du delitu politikoak ala komun lotuak burutu dituzten gerrilla ohiko kideei erantzukizun penala ezabatzearen onura emango zaiela. Hala ager dadin, delitu horiek zeintzuk diren zehazki adierazten ditu, zein kode penalean eta arma nahiz munizioen legean araututa baitaude. Era berean edonolako delitu burutu ahal izan duten Estatuko segurtasun-indarren kideei onura ematen diete beti ere Lege berari jarriki politikoak bezala hartutako delituak aurreikusi, eragotzi, jarraitu ala erreprimitzeko asmoarekin burutu badira. Lege honek epailei aurkeztutako eskariaren azterketa bat burutzeko ahalmena ematen diete, ondoren bertan kontenplazten den onura aplikatu ala ezari dagokionean erabaki dezaten. Horrela, formalki behintzat, Legeak behar bezalako prozesu baten bermeak biltzen ditu.

Arauaren edukia giza eskubideen organizazio ugariaren aldetik amnistia orokor bat bezala katalogatu zen, azkeneko urteotan burututako lesa gizatasuneko krimen ugari zigorrik gabe geratu ahal izanik. Horregatik, inkonstituzionaltasun-errekurtso bat aurkeztu zen zein Konstituzionaltasun-

Gortearen aldetik desegokitzat hartu baitzen. Arrunta da entzutea Adiskidetze Nazionalaren Legeak giza eskubideei eginiko bortxaketa larrien zuzeneko arduradunen zigorgabetasunak irautea ekidin duela, kasu horietan aplikatua izan ez den bitartean. Hala ere ondorio hori onartezina da, zeren pertsona horiek ez dute araudian aurreikusitako erantzukizun penalaren salbuespena jo beharrik izan, praktikan bortxaketengatik eginiko prozesu judizialak geratuak izan direlako eta hainbat kasutan amarruz bete direlako.

Aurkeztutako erantzukizun penala ezabatzeko eskaeren azterketatik, egiaztatu ahal izan da Adiskidetze Nazionalaren Legearen onura bilatu dutenak delitu komunengatik kondenatuak nahiz prozesatuak izan diren patruilari ohiak nahiz mandatarari ohiak direla, zeinen kasuek orokorrean ez baitute zerikusirik gatazka armatuarekin. Errepresio handieneko garaian zehar Guatemalan gertatutako ekintza larriengatik ez da inor kondenatu. Horrek azaltzen du zergatik aipatutako Legean aurreikusitako ondorio juridikoak ez duen garrantzirik izan Guatemalako zigorgabetasunaren adierazgarri bezala. Esan genuen bezala, arau honek ez du adierazten zigorgabetasuna suntsitua izan denik. Hobeto esan adierazten duena da zigorgabetasuna hain indartsua dela ez dela beharrezkoa izan Legea erabiltzea bortxaketa larrien autoreen erantzukizun penala ezabatzeko.

## **Ondorioa**

Nahiz eta giza eskubideen egoera lehen bizitzen zenetik ezberdina izan, arduradunak estaltzen dituen zigorgabetasunaren paretari irabazteko eragozpen serioak daude. Estatuak bere horretan hiritarraren bizitzaren aurka atentatzeari utzi badio ere, ez da gai ekiditeko beste hainbat pertsonak nahiz organizazioek egin dezaten. Bere akatsen arrazoia ez dago ekintzetan, ez egitean baizik, eta hainbat kasutan delitu-ekintza hauen ikerketaren ardura duten erakundeek burutzen duten zeregina eragoztean.

Estatuak ez ditu ikertu, ezta zigortu ere giza eskubideen bortxaketetako arduradun nagusienak eta ez da antzematen hori egiteko benetako borondate politikorik. Gainera, estatuko erakundeak antolatutako delinkuentziarekin amaitzerakoan ez dira eraginkorrak azaldu, zeinek bere eguneroko jardunean pertsonen eskubideak nahiz behar bezalako prozesuaren bermeak bortxatzen baitituzte. Bestalde, boterearen lurpeko egiturak zein guatemalarren eskubideek zapalkuntza handiena jasan zuten garaian zoritxarrez ospetsuak izan baitziren, oraindik bere horretan dira. Behar adina botere mantentzen

dute hainbat kasutan eragozteko eta desitxuratzeko, bestetan, gizarte zibiletik gune demokratikoak finkatzeko burutzen diren esfortzu guztiak. Hau segurtasuneko aparatu klandestinoen etengabeko jarduera, komunikazio telefonikotan burututako legez kanpoko esku hartzea, giza eskubideen defendatzaileen kontrola eta zaintza, gobernuaren ekintzei buruzko informaziorako sarbideari nahiz inteligentzia-zerbitzuen kontrol juridiko bat burutzeari dagokionean ezezko sistematikoarekin agerian geratzen da, aparatu hauek, bere egitura klandestinoak ukitu gabe mantentzen dituztelako, inolako kontrolik gabe legez kanpo jarduten dutelarik.

### **Prozesu judizialaren ondorioak**

1. Lehenengo aldiz, lesa gizatasuneko krimenetako biktimek zeinen hiltzaileak ejertzitoko kideak baitira, hauek epaiketa penalera eramateko eta epaiketa auzitegi militar batean burutzeko erabakiaren aurka borrokatzeko erabakia hartzen dute.
2. Biztanleria indigena nekazariak, zein sarraskiaren biktimak baitira, militarrek auziperatzen dituen.
3. Bakearen Nobel Sariaren, Rigoberta Menchú Tum, erabakia, biktimek hala eskatuta, Xamán kasuan berak lehendakaritza lanak burutzen dituen Fundazioaren laguntzarekin atxikitako kereilari bilakatzeko.
4. Delitua Exekuzio Estrajudizial bezala eta ez hilketa errudun eta lesio larrietakoa bezala tipifikatzea lortu izana, hala nola kasua foru militarretik atera eta auzitegi zibilera pasatzea.
5. Xamán kasuak militarren auziperatzea oraindik prozedura ilun eta tranpen multzo bat dela behatu eta egiaztatzeko aukera eskaini zuen, zein militarren zigorgabetasuna bermatzera bideratuta baitaude.
6. Epaietako gure presentzia eta iraunkortasunarekin militarrei eginiko epaiketa honetan defentsak eta ejertzitokoak burututako fartsa eta tranpa ez baliozkotzea.
7. Egiaztatzea Guatemalan, justiziak zuzenbidearen profesionalen jardueran zeregin handia duela, zeren oraindik abokatu ugari daude zeinen leloa baita: '...guztia defendatu ahal da; guztia argudiatu ahal da eta

edozein jarrerak balio du bere babestutakoen interesak defendatzeko´

8. Justiziaren hainbat jarrera nahiz portaerek, Xamán-en ikusitako epaiketan bezala, ez dutela hau indartzen laguntzen. Gehien bat ahuldu egiten dute eta ezintasunera kondenatzen dute.

9. Baieztatzea ez garela joan eta ez garela joango. Justizia bide bakarra dela sinisten jarraitzen dugu, baina benetako justizia eta ez bere imitazio bat.

10. Kasu eta egoera hau, borroka handiago baten pasarte soil bat da: egia eta justiziaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako borroka.

11. Prozesu judizial motel, luze eta amaiezinak, legeak kontenplaten dituen mekanismo propioengatik elikatuak; aurkako errekursoak tartean sartzeko gehiegizko aukera.

12. Legezko neurriak, baliabideak, halaber zigorgabetasun elementu bilakatu ahal dira eta justiziaren sisteman mesfidantza sustatzen laguntzeko joera dute.

### **CEH-ren, Argitze Historikorako Batzordea, ondorioak**

CEH Aurora 8 de Octubre (Aurora urriak 8) Komunitateko hamaika biztanle, bi haur barne, Guatemalako Ejertzitoaren pertsonen aldetik exekutatuak izan zirenen erabateko sinismenera iritsi da, ekintzan beste hogeita zortzi pertsona zaurituak gertatuz. Ekintzek bizitzarako eskubidearen bortxatze larria suposatu zuten eta ez da existitzen burututako krimenaren justifikazio-kausalik, ezta legezko defentsa ere biktimen agresibitatearen aurrean, zeren soldaduen erantzuna erabat gehiegizkoa izan zen.

CEH, bere agintearen aldi baterako mugen barruan, halaber sinistera iritsi da, sarraski honi buruzko prozesu judizialean, Guatemalako Estatuak ekintzak arduradunei zigortzeko helburuarekin bere betebeharrari modu larrian huts egin ziola, horrela justiziarako eskubidea bortxatuz. Ikertzeko betebeharraren honen behatzea, bereziki, epaileen independentzia faltan eta Guatemalako Ejertzitoaren kolaborazio faltan oinarritu da, eragozpenak ezartzean ez esateagatik.

CEH-k pentsatzen du sarraski salagarri honek ez ziola aurretiazko planifikazio bati jarraitu eta ez zela goragoko agindu baten esanetara egon eta bere jatorria patruilaren ibilbidearen programazio zuhurgabea aurkitu ahal dela, zeinek komunitateko kideen jarrera agresibo bat eragin baitzuen, zeini soldaduek gehiegikeri kriminal batekin erantzun baitzioten. Hala ere, ibilbide horrek bere pentsamendu militarrean errefuxiatuak eta itzultitakoak gerrillarekin identifikatzeko dagoen iraunkortasuna irudikatzen du. Aldi berean, CEH-k kontsideratzen du kasu honek irudikatzen duela zenbateraino, baita norgehiagoka armatuaren ondorengo urtetan ere bakea sinatzeko norabidean aurrera egiten zenean, Mexikoko lurrian babesa bilatu behar izan zuten nekazariak Guatemalako Ejertzitza erakunde arrotz bat bezala ikusten zutela, bere oroimenean sistematikoki bortxakeria aplikatu ziren urteek irauten zutelako.

Bestalde, CEH-k kontsideratzen du kasuak justizia administratzeaz arduratzen diren erakundeek giza eskubideak modu larrian bortxatzen diren kasuak independentziarekin eta eraginkortasunez ikertzeko duten ezintasuna eta Ejertzitza erakunde horiengan, nahiz eta laurogeita hamargarren hamarkada aurreratuta egon, kontserbatzen zuen eragin handiaren artean zegoen lotura adierazten duela.

CEH-k kontsideratzen du kasua Nazio Batuen Misioaren aldetik berehala egiaztatua izateak, errepublikaren lehendakariaren erreakzio positiboak, Defentsako ministroaren uko egiteak, espediente judiziala ohiko auzitegiara lekualdatzeak eta sarraski honen aurrean gizarte zibileko erakundeen erreakzioak, bere momentuan, Guatemalako giza eskubideak errespetatzeko beharrari zegokionean bake-prozesuaren eragina erakutsi zutela.

Amaitzeko, CEH-k sentitzen du Defentsa Nazionaleko Ministroak kasu honetan bere eskaerarekiko bizi izan zuen erantzunik eza, zein Adiskidetzeko Nazionalaren Legearen 10. artikuluan hitzartutakoaren aurka baitago eta ez baita batere lagungarria elkartasun nazionalerako.



### **Exekuzio arbitrarioa**

Abel Pérez Ramírez  
Andrés Miguel Mateo  
Carlos Fernando Chop Chip  
Hilaria Morente de la Cruz  
Juana Jacinto Felipe  
Manuela Mateo Antonio  
Pablo Coc Coc  
Pablo Coc Coc  
Pedro Diego Andrés  
Pedro Medina Sánchez  
Santiago Pop Coc  
Maurilia Coc Max

### **Atentatuan Zaurituak**

Aurelio Hernández Morales  
Carmen Caal Saquiq  
Efraín Grave Morente  
Eliseo Hernández Morales  
Francisco Hernández  
Gerardo Maldonado Sales  
Jacinta Matón  
Josefa Mendoza Aguilar  
Juan Medina Toma  
Juana Andrés Maldonado  
Juana Felipe Velásquez  
Marcos Jolomna Yat  
Martín Quip Mocú  
Mateo Pedro  
Micaela Pascual  
Natividad Sales  
Pascual José Pascual  
Pedro Daniel Carrillo López  
Ricardo Pop Caal  
Rolando Hernández Maldonado  
Rosenda Sales Ortiz  
Rosendo Morales Ortiz  
Santiago Cajbón Quip

Santiago Maquin  
Santos Choc Max Coc  
Tomás Grave Morente  
V́ctor Carrillo





**Xamán-eko sarraskia**

**ikuspegi psikosozial batetik**

María Luisa Cabrera



## **Zigorgabetasunaren eragin psikosozialak Latinoamerikan**

Eragin psikosozialak aztertzeke, zigorgabetasunaren kultura politikoa berrikusiko dugu, Guatemalako nahiz beste hainbat herrialdetako indarkeriaren eragina jasan duten talde nahiz kolektiboekin aztertuta.

Zigorgabetasuna justiziara sarbiderik ez izatea nahiz justizia ukatzea bezala ulertuta, (Sveass, 1995), krimena ez dela jarraitzen eta ez dela zigortzen inplikatzeko du. Horrek inpaktu psikosozial sakona eragiten du zeren alteritate kontzeptua hausten da, zein hiritarren eskubide politikoen oinarria baita. Besteekin izaten diren harremanak mesfidantzazkoak dira beldurra berrezartzen baita, diktaduraren ondorengo hiritarrak izoztuta geratuz subjektibotasuna manipulatu egiten delako.

Gizartearen kontrolak identitateak baztertzen ditu eta solaskideak nahasten ditu, biktimak eta gaizkileak antzeko plano batean kokatuz, ezberdintasun etnikorik gabe, (Pantoja, 2000). Halaber identitatea eta oroimenaren arteko loturak aldatzen dira, (Piper, 2000), maila indibidualean zeren ekintza traumatikoek barrera bat eratzen dute iragana eta etorkizunaren artean; gizarte mailan, identitaterik gabe oroimenik ez dagoelako, honek oroimenak bere integritatea mehatxatzen ez duen hura oroitzea zilegi egiten baitu, (Tocornal eta Vergara, Piper-en aipatua, 2000:101). Zigorgabetasunak trantsizio politikotan botere-tresna bat suposatzen du, boterea ahanzte eta biktimen oroitzapenaren artean norgehiagoka bat burutzen delako, (Pantoja, 2000).

Argentinako Maiatzako Plazako amonen nahiz amen oroimen kolektiboaren dinamika eta sinboloei buruzko azterketa batek, (Silva Catela, 2001) erakusten du desagertuen kategoriaren gizarte nahiz politika mailako erakundeak biktimen aldetik zalantzan jartze sakon bat adierazten duela, Estatuko erakundeetan sinismena izateko garaietan. Gainera, desagertuei dagokien etengabeko oroimena jendaurrean aldarrikatzeko erabilitako gizarte estrategia sortzaile eta zorrotza azaltzen du.

Esandako guztiarengatik, zigorgabetasunak eraso bortitz eta zentzugabeari sinismenen eta balioen suntsiketa nahiz gizarte elkarbizitzarako arauen alterazioa erakusten dizkiola dirudi. Trantsizio politikorekin, iragana nahiz justizia argitzeko itxaropena desagertzen joan zen, boterearen jarreraren eraginagatik; errepresioaren beldur-minaren garaiari zentzugabekeria, nazka, lotsa eta harridura erantsiaz, (Rojas Baeza, 2000).

Zigorgabetasunak besteekin ditugun harremanak bideratzen dituzten arauak eta balioak hausten ditu. Bere ondorio politikotako batzuk gizarteko giroan eragina duten gizartearen adierazgarri bezala burutzen dira, (Edelman eta Cordón, 1995):

- a) Gertatutakoaren gizarte ukapena;
- b) Biktimaren erantzukizuna;
- c) Errepresio politikoari dagokion biktimen psikologizatzea: demokraziara iraultza eta desoreka dakartenak (maiatzeko Plazako amonak);
- d) Erantzukizun publiko-instituzionalak ezabatzea;
- e) Eztabaida publikotan arazo etnikoak azaltzea; amnistia-legeak, indultuak..
- f) Norbere konturako justizia; hau da, Estatuaren moteltasuna dela eta segurtasuna pribatizatzeke beharraren gizarte eraketa; lintxamenduak, bahiketak....
- g) Boterearen indarkeria legezkotzat jotzea errepresio-indarkeriaren prebentzio-eredurik ez egoteagatik;
- h) Gizarte adostasunaren manipulazioa.

Sveass-ek ondorio politikoak eta inpaktu psikosoziala lau dimentsiotan lotzen ditu: a) zigorgabetasuna vs. justizia; b) ukapena eta isiltasuna-beldurra vs. ezagutza eta jakinaraztea; c) lotsa eta errua vs. egiaren lana birgaitzea; y d) iraganean harrapatua vs. etorkizuna eta integrazioa. Ondorio hauek guztiek bere kabuz eusten den zigorgabetasunaren gizarte ordezkariarako baldintzak sortzen dituzte, (Kersner 1995), ekidin ezina justua bezala justifikatzeko dagoen gizarte joera dela eta (Bourdieu, 1996), nahiz eta ezintasun-sentimenduak eragin izan.

## Txile eta Guatemalaren trantsizioen konparazioa

**Txileko trantsizioaren  
testuingurua Páez, (1999)**

**Guatemalako trantsizioaren  
testuingurua (2003)**

<p>* Giza baliabideen jendaurreko diskurtsoa ezabatzea, kasu enblematikoekiko ekintza eta ez aipatze giltzen bidez.</p>	<p>* Zigorgabetasunaren aurkako borrokako kasu enblematikoetako lorpen juridiko politikoen geratzea eta atzerapena.</p>
<p>* Desorekaren mamuarekiko beldur traumatikoa.</p>	<p>* Krisialdi politikoa (FRG), desoreka eta gobernatzeko ezintasunezko pasarteak. Pobreak aberatsen aurka gizarte irudimenak nahiz hauteskunde aurreko borroketan gatazka etnikoaren mitoak berraktibatzea: indioaren mendekua (indioak ladinoen aurka).</p>
<p>* Inposatutako zentsuratik areagotuz doan zentsurara.</p>	<p>* Zentsura publikoa areagotzea eta adierazpen-askatasunaren inguruko polarizazio politikoa.</p>
<p>* Erabakiak hartzerakoan sistema politiko nahiz partaidetza publikoarekiko areagotuz doan interes falta.</p>	<p>* Hiritarren aldetik, Estatu eta erakundeekiko politika- sinesgarritasuna galtzea. * Eszeptizismoa eta desilusio politikoa. * Ahal den neurrian Estatutik auto-marjinatzea.</p>
<p>* Bakea eta hazkundearen truke justizia-hitzarmen batekin isilarazitako demokrazia, zein Pinochet-en atxilotze nahiz biktimen justizia-presioekin hausten baita.</p>	<p>* Guatemalan demokrazia ez dago babestuta, modu formal eta ahulean existitzen baita. Giza eskubideen bortxaketa areagotuz doa. * Biktimen justiziaren aldeko borroka mantentzen dute nahiz eta hauteskunde aurreko egoeratik eta eremu publiko askotako zigorgabetasunak eraginiko babesgabetasun nahiz gizarte ezjakintasunagatik ahulduta izan.</p>

**Kersner-en arabera, (1995), legeek bi jarduera psikosozial mota betetzen dituzte:**

- a) hartu-eman sozialak antolatu eta arautzen dituzte eta,
- b) berragertze sinbolikoa, gizarte kohesioa eta zuzentasuna zilegi egiten dute. Hala ere, zigorgabetasuna legezketasunaren gainetik eta barruan gailentzen denean, lege-sistemaren legezketasuna zalantzan jartzen da.

(Cordón, Edelman, Lagos eta Kersner, 1995)-en aldetik adierazitako zigorgabetasunaren ondorio psikosozialak, zeinek biztanleriaren osasun mentalean inpaktu larri bat baitute, ondorengoak dira:

- a) Eredu soziokulturalekin haustea indarkeria eta guztiahaltasun ereduak inposatzearen bidez non aurkariaren irudierekiko identifikazioa goraiptatzeaz gainera jarrera gaiztoa ideal bezala hartzen baita. Honek gizarte esferaren jarrera agresiboak sustatzen ditu. Justizia-idealetan eszeptizismoa gailentzen da justizierekiko itxaropenak zapuztean konfiantza aldatzen delako.
- b) Gizarte nahastea: bizitzeko eskubidearen defentsa zalantzan jartzen da heriotza-zigorren ezarpenarekin.
- c) Justizia-sistemako ustelkeria: legea eta justizia aplikatzerakoan zuzentasun nahiz inpartzialtasun zentzua zalantzan jartzen da.
- d) Biktima-gaizkile elkarbizitzak biktimen dolua aldatzen du.
- e) Krisialdi pertsonalak eta esperientzia traumatikoa berriro bizitzeko beldurra: galera arbitrario eta zentzugabeentzako azalpen bilaketak, lagundu egiten du nahiz eta sufrimendu handia ez ezabatu.
- f) Senide-arteke loturekiko eragina.

Zigorgabetasunak eratutako gizarte giroak beldur, babesgabetasun ala ziurgabetasun sentimenduen iraunkortasuna sustatzen du zeinek hainbat egoeren aurrean jazarpen-bizipenak nahiz berriro esperientzia traumatikoa bizitzeko arriskuagatik eta errepresalien beldurragatik gizarte salaketaren inhibizioa ekartzen baititu. Azken batean, mehatxatua nahiz susmopean

sentitzeak gizarte partaidetza inhibitzen du. Faktore hauek guztiek gatazkaren ondorengo trantsiziotan zigorgabetasunaren zirkulua osatzen dute, (Calle, 2000).

Zigorgabetasunak trantsizio demokratiko ugariren kultura autoritarioan hazitegi egokia aurkitzen du. Sindrome autoritarioak menderatze-esanekotasun harremanetan dinamika bat mantentzen du. Lotura autoritarioa gehiengoek bere duintasuna eta bere eskubideak defendatzen ez jakitearen eta besteren eskubideak errespetatzeko zailtasuna dutenaren kontzepzioaren bidez artikulatzen da, (Pozzoli, 2000), eta horrenbestez esan ahal da, autoritarismoaren hainbat gizarte eraginek biktimizazioa, besterenganako mesfidantza eta atxikitasun itsua sakontzen dutela. Giro honetan, mesfidantza gehiegikeri berrien aurka babesteko estrategia bat bezala azaltzen da, sentitzen den ziurgabetasuna agerian utziaz.

Gehiegikeria-dinamika honek mozarrotuta ibiltzeko beharra inplikatzeko kontrolatua izateko aukera ekiditeko. Lehentasuna emateak 'itxurari, izateari baino lehenago', naturaltasuna eta adierazgarritasuna hausten ditu osasun mentalaren parametro bezala, eta aldi berean norbere buruarekiko kontzientzia faltsua sortzen du, (Pozzoli, 2000: 118). Horrela, biktimizazioa eta mesfidantza sakonduz, autoritarismoak esanekotasun itsurako bidea errazten du epai kritikoaren mendean:

*'Autoritarismotik tentsioa eragiten duena bere ikusezintasuna da, beraz, autoritarismoaz jabetzea estutasun, motibazio galtze, beldur, dugun mesfidantza eta pasibotasunaren zergatia ulertzea da', (Pozzoli, 2000:120).*

## Guatemalako gatazkaren ondorengo testuingurua eta Giza Eskubideen bortxaketen zigorgabetasun politiko legala

*Etorkizuna ikusi ahal dela dirudienean,  
itxaropenak zapuztu egiten dira  
eta etsipenaren amildegia ukitzen dugunean,  
itxaropen imajinaezin bat birjaiotzen da.*

(Susane Jonas, 2000: 26)

Mendi errusiar emozionalaren metaforari jarraiki, (Susane Jonas, 2000: 26), Guatemalaren konplexutasun harrigarria marrazten du, errealtate honek nola funtzionatzen duen saiakerak zein alferreko, harrigarri eta desafiatzaileak gertatu ahal diren azaltzeko. Beti aldakorra eta aurretik jakin ezin den politika egitura bati aplikatutako saiakera horiek, hitzartutako bake-hitzarmen batzuen eta trantsizio politikoaren aldaketa ekidin ezinekiko nahiko mugiezina eta gogorra den boterearen eta errealtatearen arteko amildegia ulertzen lagundu ahal dute.

Tentsio hauek eraginiko desorekek ejertzitoak egituraren aldaketak aldi baterako gainditzeko duen barne-helburua azaltzen dute, MINUGUA gaindituz eta bake-presioak ere bai hala nola misioaren sinesgarritasuna eta eraginkortasuna zapaltzeko higadura-gerra bat mantenduz (Jonas, 2000: 107).

Botere zibil eta militarren arteko tentsio hauek gerra ondorenaren zehar burututako zigorgabetasunaren aurkako borrokaren garrantzia indartzen dute eta Guatemalako biztanleak trantsizio-etapa honetako zailtasunei buruz dituzten gizarte pertzepzioen jabe direla adierazten dute:

a) Trantsizioko gobernu zibilen zeharreko giza eskubideen bortxaketen areagotzeak presio-logika bati erantzuten dio bake-negoiazioek ireki dituzten guneak ixteko helburuarekin;

b) Trantsizio-politikoaren erregimenak iraultzaren aurka dagoen Estatu

baten bertsio zibila ordezkutzen du, hau da, gehiengo militarra duen Estatu hertsatzaile batena. 1985eko Konstituzioan jasotako paradoxa hainbat askatasun demokratikoentzako nahiz iraultzaren aurka zeuden hainbat erakunderentzat eman lege babesak izan zen. Estatuaren eredu konstituzional honekin, gobernu bateratu zibil-militarra koherentea gertatzen da demokrazia murriztuaren modalitate bezala, (Jonas, 2000), gizartearen esfera guztietan arlo militarren ideologiak nagusitasun nabarmena izanik;

c) Kultura autoritario mugiezin eta ekidinezin baten pixkanakako baztertzeari, jarrera aldaketa esplizitu batekin: 'eskubideak exijitzea gurekin bat datozela sentitzen dugulako', (Jonas, 2000: 212).

d) Hainbat gauza aldatzen ari dira, baina oraindik asko falta da; hainbat aldaketek harrigarriak dirudite minimoen logika pragmatiko baten barruan kontenplatu behar direnak.

Gatazkaren ondorengo egituraren hainbat alderdi giltzek zigorgabetasuna fenomeno sistematikoa eta zeharkakoa bezala finkatzen laguntzen dute, (MINUGUA, 2000), Guatemalako Nazio Batuetako Egiatzatze Misioa, eta horrela indarkeriak sustrairik gabe utzitako populazioek justiziarako sarbidea izatea ekiditen zen. Xamán-eko sarraskiatik burututako prozesu judiziala zigorgabetasunean eta gerra ondoreneko dinamika nazional honetan izenpetzen da, Estatuaren beste bi krimen bezala zeinek Guatemalan zigorgabetasunaren aurkako borrokaren paradigmatik eratzten baitituzte; (Gerardi kasua eta Myrna Mack kasua).

Monseñor Gerardi-k norgehiagoka armatua zehar burututako giza eskubideen bortxatzeari buruzko Eliza Katolikoaren lehenengo txostena zuzendu zuen. Bere ondorio harrigarriek aurretik jakin ezina baino gehiago espero ez zen heriotza estrajudizial batera kondenatu zuten. Epaiketa bat burutu zen, 2001. urtea, eta sententzia kondenatzaile bat ere bai ejertzitoko ofizialei eta beste hainbat zibilei. Gaur egun, sententzia hau ez dago finkatuta, eta hau zigorgabetasunaren emaitza bezala berrinterpretatu ahal da simulazioaren jokoari hobekien erantzuten dioten mekanismo prozesal suntsitzaileen bidez, besteren artean lege prozeduretako luzamenduzko aplikazioa, justizia aplikatzea ekiditeko.

Myrna Mack antropologoaren erailketaren autore intelektualei eginiko epaiketa, 2002ko urria, gertatu berria da Guatemalako justizia-sistemarentzat

erronka bat izanik, zeren salatuen aulkian inteligentzia militarreko ofizialak eta ejertzitoko goi mailako aginteak eseri arazi izanari dagokionean aurrekari historiko bat da, zeinek estalitako errepresio-operazioen egitura eta modus operandi azaltzera behartuta baitzeuden. Era berean autore intelektual bat kondenatzeko aurrekari juridiko-politikoak ezartzen du. Ofizial hauek inteligentzia militarreko egiturarik kritikatuenetako bati dagokie giza eskubideekiko bere bortxaketa errepikatuengatik; Lehendakaritzako Estatu Nagusia, Bake-Hitzarmenen agendaren arabera berandu desegina.

Iraultzaren aurkako errepresio-logika batek zuzenbidezko zigorgabetasuna defendatzen du zeinekin jardun baitzuten ejertzitoak eta Estatuako beste hainbat agentek laurogeiko hamarkadako segurtasun nazionalaren babespean. Lege sistemaren parte hartze ezak, hiltzeko egitura juridikoa eskaini zuen eta amnistiako lehenengo dekretuek, 1982-83, bake-kanpainen zehar gertatutako bortxatze masiboen zigorgabetasuna legeztatu zituzten zeinek ejertzitoei erabat konprometitzen baitzuten.

Aurrekari hauek laurogeita hamargarren hamarkadako taktika berri bati ematen diote bidea, zeinen bidez ejertzitoak gehiegikeriak zilegi egiten baititu kasu partikularrak Justizia Auzitegitara eramanak izan daitezen, etorkizunean justizia-sistemaren ustelkeriak eta eskumengabeziak, botere-sektoreek burutzen duten errepresioaren inmunitatea bermatuko zuela ziurtatu ondoren. Aplikatutako logika militarra da ejertzitoak, aldizka, legea mantentzeko legea hautsi behar duela, segurtasunak justiziaren jardueran eraginik ez duela adieraziaz, honek Estatuaren segurtasunean eraginik ez badu behintzat, (Schirmer, 1999: 234-235).

Zuzenbidezko zigorgabetasun baten oinarritan finkatuta, izan ere zigorgabetasunak trantsizio politikoan errepresioa kalte txikia bezala hartzen du, baina beharrezkoa, demokraziaren aurrerapenean. Ejertzitoak Estuari buruzko edonolako aurkako adierazpenen aurrean mentalitate erasotzaile bat mantentzen du, zeren ulertzen du ados ez dagoen hiritarra beti manipulaturik dagoela.

‘Egonkortasun Nazionalaren Tesia’<sup>n</sup> jasotako kontzepzio hauek Guatemalako ejertzitoari aldi bereko hainbat helburu zilegi egin zizkieten zeinek fatxada aldaketa bat suposatzen baitute eta honetan politika eta kultura hiritar-demokratikoa bere sorreratik selektiboki erasoak eta ezabatuak izaten jarraitzen dute, (Schirmer, 1999: 414).

Logika honekin, gobernu zibil baten presentziak normaltasun demokratikoaren ilusioa sortzen du, militarren erasoaren aurkako itxurarekin. Disidentzia politikoaren errepresio selektiboa mantentzen da. Ejertzitoaren gehiegikeriak onartzen dira baina ez dira ezabatzen. Heziketa militarrek giza eskubideetan 'barne etsaia' hobeto ezagutzeko balio du. Gobernua eta URNG-ren arteko bake-negoiazioen aurkako erresistentzia pasiboa eta barne-intriga bat burutzen da; Militarren artean barne-segurtasunaren kontrolari uko egiteko desadostasuna dago.

## Xamán-eko prozesu judizialaren testuingurua

**Xamán-eko prozesu  
judiziala**

**Trantsizio politikoa**

**Zigorgabetasun  
epaiketak\***

<p>1993-1994: Itzulera eta Aurora 8 de Octubre komunitatearen berriro finkatzea.</p> <p>1995: Sarraskia, urriak 5. 1995: Eskari penala, urria.</p> <p>1995-1998: Ikerketa judizialaren prozesua.</p>	<p>1986-1991: Vinicio Cerezo-ren gobernua (D.C.) 1986...: 'Segurtasun Nazionaleko Tesia'tik 'Egonkortasun Nazionaleko Tesia'rako trantsizioko proiektu politiko militarra. 1991-1993: Serrano Elías-en gobernua eta estatukolpea (MAS). Bake negoziazioen hasiera (1992). 1992: itzulera eta berriro integratzeko Hitzarmena, urriak 8. 1993-1996: Ramiro de León-en gobernua (kolpeondorena eta trantsizioa). 1994: Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Globala (martxo). Norgehiagoka Armatuagatik Erbesteratutako populazioen berriro finkatzeko hitzarmena (ekaina). Herri Indigenen Identitate eta Eskubideen Hitzarmena (ekaina).</p>	<p>1990: Santiago Atitlán-eko sarraskia, 90. urteko abendua.; Desmilitarizazioa konponketa politiko sozial bezala ejertzitoari epaiketa penala burutzearen truke.</p> <p>1990: Myrna Mack Chang-ren erailketa CPR-ren existentzia jakinarazteagatik, iraila.</p> <p>1993: Epaiketa eta autore materialaren zigorra, Myrna Mack erailteagatik.</p>
--	---	---

<p>1998-1999: Ahozko eztabaida eta autore materialei burututako hilketagatik emandako sententzia penala, nova. 1998, abuztua 1999).</p> <p>1999: Kondenatuek, 12 soldadu eta ofizial bat, prebentziozko kartzela betetzen dute; 14 soldadu iheslariak dira.</p> <p>2000: Epaiketa eta sententzia bertan behera uztea lege-prozeduraren anomaliak direla eta, abendua</p> <p>2002: Epaiketa zibila eraginentzako ordainketa-eskariengatik (maiatza). Aldi baterako etena, sententzia penalaren zain.</p> <p>2003: Aurreikusitako Entzutegia eta Giza Eskubideetako Batzorde Interamerikarrean nazioarteko Eskaria burutzeko izapidea.</p> <p>2003: Epaiketa penala berriro hasten da (ekainak 2). Prozesuko gertaerak: salatzaileek eta MP-k froga moduan aurkeztutako dokumentazioa kasua jarraitzen duen epaitegian (San Pedro Carchá: 2003ko ekainak 15) lapurretagatik desagertzea.</p>	<p>1996-1999: Alvaro Arzú-ren gobernu, PAN.</p> <p>1996: Adiskidetze Nazionalaren Legea**, abenduak 18.</p> <p>Bake-Izenez, abenduak 29.</p> <p>1999: Kontsulta Herrikoia Errepublikako Konstituziorako Erreformat, maiatza.</p> <p>1999-2003: Portillo-ren gobernu, FRG.</p>	<p>1998: Gerardi monsinoreari eginiko exekuzio estrajudiziala, apirila, REMHI txostenaren zuzendaria.</p> <p>2001: Epaiketa Gerardi erailteagatik eta autorentzako zigorra, zein Estatuko segurtasunetakoak baitira, inteligentzia militarra, EMP, ekaina.</p> <p>2002: epaiketa eta zigorra autore intelektualari Myrna Mack erailteagatik, Lehendakaritzako Estatu Nagusia, irailak 11.</p> <p>2002: Gerardi epaiketa eta zigorra ezeztatzen da, urria.</p> <p>2003: Kartzelako matxinada baten zehar Gerardi epaiketan zigortutako autore materialetako baten erailketa, martxo.</p> <p>2003: Myrna Mack-en epaiketa-sententziaren ezeztatzea, maiatza.</p> <p>2003: CIDH-ren aldetik Guatemala lako Estatuarentzako zigorra Mack kasuaren arduraduna izateagatik.</p>
--	---	---

<p>2004: abuztuan 40 urteko sententzia penal berria Xamán-eko sarraskiagatik salatutakoen aurka, zeinetatik 14 soldadu justiziaren iheslariak baitira.</p> <p>2005: Berragertze-eskariengatik burututako epaiketa zibilaren berriro hastea. Testigantza-harrerako fasea (uztaila-abuztua).</p>		<p>2004: Myrna Mack erailteagatik autore intelektualarentzako (EMP) zigorsententzia finkatuta geratzen da. Autorea justiziaren iheslaria da.</p> <p>2004: Myrna Mack-en hilketagatik Estaturi dagokion erantzukizunaren onarpen publikoa (martxoa).</p> <p>2005: Gerardi-ren exekuzio estrajudizialagatik eginiko epaiketak errekurso judizialen ebazpenaren zain jarraitzen du.</p>
--	--	--

(\*) Myrna Mack Fundazioko David Bahamondes Lizentziatuaentzako esker ona kasu judizialak eguneratzeagatik.

(\*\*) Adiskidetze Nazionalako Legeak exekuzio estrajudizialekiko nahiz gatazka armatuan zehar burututako beste hainbat krimenekiko eskumena dauka, genozidioa, tortura eta desagertze bortxatuak salbu, (Jonas, 2000: 176).

## Laurogeita hamargarren hamarkada

Laurogeita hamargarren hamarkadak doktrina militarrean etapa bat markatu zuen, zeinek Gerra Hotzaren testuinguruan barne zeuden diktadura eta gobernu militar latinoamerikarren ordeztatu Batuek inposatutako segurtasun nazionalerako doktrina ezarri baitzuen, bake-garaietan gizartea zuzentzen ikasteko ejertzitoaren ikuspegi berri bezala Egonkortasun Nazionalaren Tesia dela eta, (Schirmer, 1999). Trantsizioko proiektu politiko-militarraren birmoldaketa, Ríos Montt Jeneralaren estatu-kolpearekin hasi zen 1982an, militarren boterea eta autonomia erakundetuz eta gobernu bateratu zibil eta militarrentz trantsizioari hasiera emanez.

Laurogeita hamargarren hamarkadako Egonkortasun Nazionalaren Tesiak, ejertzitoaren zereginak 'demokrazia babestu' batera berbideratzen ditu zeinek iraultzaren aurkako politiketatik ateratako eta oposizioaren lege-mugak erabakitzen jarraitu nahi duen Estatu bat berregituratzen baitu. Ejertzitoaren estrategia berriak, estatuaren egonkortasuna lortzeko gatazken kontrolarekin, bere aurkariak direnengan ikuspegi alarmista bat eta ezinbesteko mehatxuarena mantentzen du, hau da, ados ez dauden hiritar

manipulatuak, zein estatuak erreprimitu egin beharko baititu bere agenteen bidez trantsizioko hurrengo 25 urteren zehar, (Schirmer, 1999: 421).

### **Xamán-eko sarraskia eta epaiketaren testuinguru sozio politikoa**

Negoziatutako Bake-Hitzarmenen eta Guatemalako trantsizio politiko aztoratuaren arteko amildegia ulertzea garrantzitsua da Xamán-eko sarraskia eta justizia bilaketa zein testuinguru sozio politikoa gertatu zen ulertzeko.

Ekintza traumatikoak barne-gatazka armatuaren amaieraren testuinguruan gertatu ziren, eta justizia-bilaketa prozesuak bere lehenengo urratsak sarraskiaren ondoren berehala hasi zituen eta gatazka ondorengo trantsizio politikoaren garaian luzatu egin zen. Bi testuinguruek boterearen ejertzituan iraunkortasun eta aldaketa logikak mantentzen dituzte, iraultzaren aurkako proiektu politiko militar batean kontrolatua eta kokatua zeinek oraindik botere militarren boterea zibilaren gainetik mantentzen baitu, Guatemalako gizartean.

Gertatutako ekintzen eta sarraski honen eraginak jasan zituztenentzako justizia-prozesua desitxuratzeko zigorgabetasuna erraztu zuten egitura politikoaren faktoreak aztertuko ditugu. Jonas, (2000), eta Schirmer-en azterketek, (1999), indarkeria instituzionalaren zergatia azaltzeko giltzak ezagutzera ematen dituzte, zein ondoren gizarte kontrolaren esparruan justifikatu eta legeztatu egingo baitzen, itzulitako biztanleriaren aurka, biztanleria zein ‘susmagarria’ kontsideratzen baita estatuarekiko duen bere aurkakotasun ahalmenarengatik.

Kronologia historiko labur batek Xamán-eko prozesu judizialaren garapena estatuaren politikekin eta Guatemalako zigorgabetasunaren aurkako borrokaren hainbat kasu enblematikorekin lotuta azaltzen du. Epaiketa politiko hauek gizarte eta politika polarizazioko giro bat berpiztu zuten iraultzaren aurkako indarkeriaren duelako gutxiko iraganaren inguruan, horrela Jodelet-ek (1998) oroimenaren etika izendatzen zuena erreproduzituz. Ikuspegi etiko honek ezkutatzeko eta isiltasun ofizialaren arteko lehia ezagutzera ematen du estatuaren eta botere-sektoreen joera nagusi bezala alde batetik, eta bestetik oroimenaren defentsa biktimen bizitza eta duintasunaren birbalioztatze bezala.

Myrna Mack, Gerardi eta Xamán kasuengatik burututako epaiketetako

hainbat elementu konparatibok Guatemalako justizia oztopatu eta ukatzeko patroik komun bat azaltzen duten hainbat antzekotasun aurkezten dituzte. Hainbat antzekotasun aplikatzen direla dirudi, krimen hauetako bakoitzak eraginiko pertsonen gizarte ordezkariak nahiz legezkotasuna kontuan izaten den arren eta ekintzaren arrazoiengatik inguruan egituratzen dira, indarkeriaren erabilera estatalean jarraipen bat erakutsiaz gizarte zibilaren kontrol politiko-errepresiborako mekanismo bezala.

**Antzekotasunak eta ezberdintasunak; Xamán, Myrna Mack eta Gerardi**

**Antzekotasunak**

**Ezberdintasunak**

<p>* Myrna Mack kasuak, 1990, iraultzaren aurkako politiken indarkeria dela eta mendietan babestutako populazio nekazari maiaren aurka, Erresistentziako Populazio-Komunitateak barne etsai bezala kontsideratzen baitzituzten, Estatuak burutzen duen pertsekuzioari dagokion salaketa publikoaren aldeko Gizarte Zientzien konpromiso politikoaren arriskuak ordezkatzeko ditu.</p> <p>* Xamán kasuak, 1995, estatuak populazio nekazari maiari, pobrea eta itzulia, burututako erasoaren jarraipena ordezkatzeko du, zeinek trantsizio politikoan potentzialki disidentea eta desorekatzailea den ‘barne etsai’ bezala kontsideratzen baitu.</p> <p>* Gerardi kasuak, 1998, barne gatazka armatuaren indarkeriaren oroimenari dagokionean eliza katolikoaren salaketa publikoak izan zituen kostuak ordezkatzeko ditu.</p>	<p>* Bidezkoa eta inpartziala den justizia baterako sarbide-eragozpenak</p> <p>* Biktimentzako kaltegarria den gizarte eta politika polarizazio giro batean burututako partaidetza judiziala, zein lekuko, epaile eta fiskalei burututako mehatxu eta pertsekuzioekin areagotzen baita.</p> <p>* Ejertzitoarentzako eta Estatuaren segurtasun-erakundeentzako zigorrak; EMP, zeinek botere militarra zibilaren mendean jartzeagatik aurrekari politiko legalak markatu baitzituzten.</p> <p>* Zigor judizialak baliogabetzea nahiz autoritateen erantzukizun instituzionalen eta pertsonalen absolutzioa, presio eta atsekabe militarrengatik.</p> <p>* Autore materialak ezabatzea eta hiru prozesu judizialeko lekuko giltzak zirikatzeko.</p>
---	--

## **Oinarrizko ezberdintasuna**

Mack eta Gerardi kasuen profilak Xamán kasuarekin alderatuta duen oinarrizko ezberdintasun batek ekintzaile hauen botere-posizioarekin zerikusia du. Aurora Ocho de Octubre populazioak, zeinetan Xamán-eko sarraskia gauzatzen baita, marjinaltasun-posizio bat ordezkatzeko du, nekazari pobreak, eta mendekotasuneko botere-harremanen aurrean bere izaera etnikoarengatik, (herri maia), eta indarkeriarengatik erbesteratzea jasan izanagatik. Antzekotasun eta ezberdintasun hauek ondorengo taulan laburbiltzen ditugu.

### **Myrna Mack**

Myrna Mack-en erailketak, (1990), komunitate nekazari indigenen aurkako bortxatze masiboen existentziari buruzko salaketaren arriskua irudikatu zuen. Errealitate hau beti ezkutatua izan zen Estatuaren aldetik, ezinezkoa gertatu zitzaion arte, nazioarteko presioarengatik, ebidentziak ukatzea. Gerardi Monsinorearen aurkako krimenak gehienbat indigena den oroimen kolektibo hori berrestearen ondorioak irudikatzen ditu, (ODHAG, 1998), zeinek Guatemalako genozidio maiari baitagokio.

Eliza katolikoari mehatxu egiten zaio giza eskubideak defendatzen dituelako, gizarte isiltasuna eta inhibizioa berriro eguneratuz. Ankerkerien aurrean isiltasuna inposatzeko estrategia hau sinbolikoki apezpikua eraila izan zen moduan irudikatzen da, bere burua zementu-blok batekin kolpatuz, beldurraren estatuko politiken salaketa izango litzatekeen hitz eta pentsamendu kritikoarekin amaitzeko asmoa ageriaz utziaz.

### **Xamán-ek Herria Maia banatzen du**

Xamán kasuak Herri Maiako anaiak banatzen ditu gatazka armatuaren dinamika dela eta elkarren artean norgehiagoka batean, batzuk biktimen paperean eta besteak gaizkileen paperean. Banatze honek iraultzen aurkako politiketatik eratorritako polarizazioa mantentzen du soldadu eta komunitarioen artean konfiantzarik ez dagoelako.

Soldaduentzat, itzuliak ‘barne etsai’ bezala ikusiak dira, hau da, gatazka ondoreneko trantsizioan estatua desorekatu ahal luketenak bezala. Eta

beraiek bere burua biktima bezala ikusten dute Estatuaren segurtasuna defendatu eta logika politiko-militar honekin zein ados ez dauden kontrolatu behar dutelako.

Militarrek polaritate hauek berriro legeztatzen dituzte irudimenezko aurkariak eratuz. Horrela, soldaduen jarrera erasokorra Nazioari zaion obediencia eta leialtasunaren emaitza da, itzulien jarreraren zergatia Estatuaren aurrean duten bihurrikeria eta erresistentzia baita.

Gatazka ondorenko trantsizioan errepresio kontroleko politikei dagokionean Guatemalako Estatuaren konplizitateak bere iraunkortasuna mantentzen du ez hainbeste ekintzan ez-egitean baizik. Egitura honetan, ez-egitea, ezkutatzea eta zinismo politikoa gailentzen dira.

Gerardi kasuarengatik zigor judiziala ezarri zenean, Errepublikako lehendakariak botere betearazlearen justizia independentea eta inpartzial bat aplikatzearen aurrekari bezala ospatu zuen. Zigorra baliogabetu zenean, gobernuak ez zuen iruzkinik egin.

Era berean, ez zuen iruzkinik burutu Myrna Mack kasuaren autore intelektualei jarritako zigorra baliogabetu zenean. Eta Xamán-eko epaiketaren dinamika anomaloari dagokionean ere isiltasun ofiziala gailendu da.

Aurrekari hauek aurkeztuta, zeinek Guatemalako Estatuaren krimenengatik zigorgabetasun politiko-judizialaren patroietan antzekotasuna eta iraunkortasuna markatzen baitute, ikus ditzagun orain Xamán kasuaren aurrekaririk berezienak, zeinek epaiketaren garapenaren baldintza sozio politikoen testuingurua ezagutzen lagunduko baitigute.

## **Bake-Negoiazioak**

Guatemalan bake-negoiazioak hasten ziren une berean, (1992), Gobernuak 1992ko Urriaren 8ko Hitzarmenak sinatzen zituen Mexikon errefuxiatuta eta erbesteratuta egondakoen itzulerarako. Errefuxiatuek itzulera “antolatu eta kolektibo” bat negoziatu zuten Guatemalako gobernuak sustatutako banaka nahiz talde txikietan eginiko aberriratzearen aurka.

Batzorde Iraunkorrak, zein 1987an babesleku-kanpamenduetan jai

baitziren, errefuxiatuen organizazio ordezkaria izan ziren bai Guatemalarako itzulera eta berriz integratzeko Hitzarmenaren negoziazioan eta bai itzulera-prozesuaren prestaketak burutzerakoan, zein 1993tik 1998ra segidako bloketan burutu baitzen.

Lehenengo taldea 1993ko urtarrilaren 20an itzuli zen eta Bakearen Nobel Sariaren laguntzarekin kontatu zuen. Bertan 100 bat familia integratu ziren zein beranduago Aurora 8 de octubre komunitatean ezartzeaz gainera Xamán-eko sarraskiaren ondorioak jasango zituztenak baitziren (Stepputat, 1999, 2000).

## **Nobel Saria**

Rigoberta Menchú Tum-i V. Urteurrena ospatzerakoan, (1992), Bakearen Nobel Saria emateak nazioarteko presio onuragarri bat suposatu zuen bake negoziazioak berregituratu eta hauek aurrera egiteko.

Prozesu hau lehenengo urtetan etengabeko aurrera egite eta eteteen artean burutu zen Serrano lehendakari ohiak gauzatutako Estatu-kolpea iritsi arte, (1993ko ekaina).

1995. urteak gatazka armatuaren amaieraranzko itzulerarik gabeko aurrerapena suposatu zuen. Bake-prozesuak gizartean itxaropen baikorrak sortu zituen, ejertzitoak hitzarmen politikoen babespean itzuli berria zen populazio zibilaren aurka errepresio kolektiboko ekintza berriak burutu ahal lituzkeela pentsatzearen aurkakoak.

Errefuxiatuen arteko pertzepzio orokorra zen Ejertzitoak biztanleria etsai nahiz Estatuari dagokionean borroka eta oposiziorako ahalmena zuena bezala ikusten zituztela. Baina inork ez zuen pentsatzen erasorik jasango zutenik aurkari politikoak izateko ustezko ahalmena burutik kentzeko prebentziozko neurri bezala.

Ez dugu ahaztu behar estatu-indarkeria gehiago aurreikusteko sinesgaiztasuna eta itzuliek indarkeria politikoa berriro jasateari dagokion beldur psikologikoen artean, lehenago jasandako sufrimendua dela eta bizipen traumatikoen aztarna bezala, bereiztea. Sinesgaiztasun eta beldurraren paradoxa hau, itzuleraren unean bizitakoa, sarraskiaren esperientzia traumatikoarekin egiaztatua izan zen.

Bai sarraskiak eta bai prozesu politiko-judizialaren zigorgabetasunak ekintza gertatu aurretik sinatutako bi Bake-Hitzarmen substantiboen bortxaketa suposatu zuten:

a) Giza Eskubideei buruzko Hitzarmen Globala, 1994ko martxoa, gobernua bortxaketak jasan zituzten biktimei ordainez laguntzera, zigorgabetasunarekin amaitzeko esfortzua egitera hala nola bortxatzaileak justizia-auzitegiaren aurrera eramatera konprometitzen zuten klausulekin;

b) Barne gatazkaren norgehiagokagatik Erbesteratutako Populazioak Berriro finkatzeko Hitzarmena, (1994ko ekaina), zeinetan giza baliabideen errespetu-bermeak jasotzen baitira, indarkeriaren eraginez erbesteratutakoan integraziorako faktore erabakigarri bezala.

### **1994/95. urteetako egoera**

1994/95. urteetako egoerak, Aurora 8 de Octubre eratu eta sarraskia burutzen denean, (1995eko urria), Guatemalako Nazio Batuetako Egiaztatze Misioaren, MINUGUA, ezartzea eragozteko tentsio politiko nahiz Ejertzitoaren aldetik burutu ziren erakunde-presioengatik berezi zen. Ejertzitoak suposatzen zuen bezala MINUGUA-k Giza Eskubideak babesteko eta egiaztatzeko rolari zegokionean kasuan garrantzitsua izango zen, nahiz eta hainbat arrazoirengatik sarraskia ezin ekidin izan:

a) Zeren biztanleria komunitarioak MINUGUA-ren presentzia erreklamatu zuen, patruila militarrek komunitatean burututako legez kontrako presentziak eragindako gatazka modu baketsuan konpontzeko.

b) Zeren ekintzei buruzko berehalako presentzia egiaztatzaileak eta ekintzei buruzko adierazpen instituzionalak, Ejertzitoak biktimei gertatutakoaren errua botatzeko saiakerei aurka egiten lagundu zuen (Jonas, 2000: 105). Ejertzitoaren jarrera zigorgabearen lehenengo ebidentziak inplikatzeko dituzte zein ekintzei dagokionean erantzukizun instituzionalari ez ikusia egiten saiatu baitzen.

c) Xamán-eko prozesu judizialaren jarraipenean ikusitako anomalia eta irregulartasun juridikoak, MINUGUA-k Guatemalako giza

eskubideei buruz eginiko hainbat txostenetan salatuak izan ziren. Honek herrialdean Misioaren izaera interbentzionista eta funtzioei buruzko tentsio nahiz desadostasun politikoak indartu zituen.

Ekintzaren ondoren eta Bake-Sinadura baino hiru hilabete lehenago, Gizarte Demokratiko bateko Botere Zibil eta Ejertzitoaren funtzioa Indartzeko Hitzarmena sinatu zen, (1996ko iraila). Hitzarmen honek Estatu eta gizarte zibila desmilitarizatzeko beharrezko birmoldaketa markatzen du, subiranotasunaren defentsa eta lurraldea segurtasun-zereginetatik bananduz, hau da, iraultzaren aurkako Estatutik Zuzenbidezko Estatura pasatuz, (MINUGUA, Jonas-en aipatua, 2000: 167).

Erronka, Estatuaren kontrol zibila berreskuratu eta kontrol militarra murriztean datza. Berreskuratze hau Egonkortasun Nazionalaren Tesiaren aurka dago, (1986tik gaur egun arte), zeinek segurtasun eta justiziako zereginetan sartzeko behar adina justifikazio ideologiko eskaintzen baitzuen, beti ere Ejertzitoaren boterea arriskuan jartzen bazuten. Horrela: Gatazka-mehatxuaren mentalitatea eta giza eskubideak bortxatzeen logika mantentzen dira zein beharrezkotzat jotzen baitira Estatuaren segurtasuna mantentzeko, (Schirmer, 1999: 393).

### **Pentsamendu militar nagusia eta Bake-Hitzarmenak**

Kasu honen zigorgabetasuna trantsizio politikoaren hainbat ekintza historiko giltzekin lotzen da zeinek Estatuaren nahiz Guatemalako botere-sektoreen erresistentzia- eta atzeratze-esparru bat deskribatzen baitute, Bake-Hitzarmenen inplementatze nahiz justizia, segurtasun, kultura aniztasun eta Estatuaren demokratizazioari buruzko erreforma konstituzionalen aukeraren inguruan. Jonas-ek, (2000), planteatzen du bake- nahiz trantsizio-garaiko proiektu politiko-militarraren birmoldaketa-bideak formari dagokiela eta ez funtsari.

Gertaera politikorik garrantzitsuena, Xamán-eko epaiketaren ospakizunaren erdian eta sententzia judizialaren irizpena eman baino bi hilabete lehenago burutua, Bake-Hitzarmenei lege eta politika babes emango liekeen erreforma konstituzionalak inplementatzeko kontsulta herrikoiaeren porrota izan zen, (1999ko maiatza).

Bakearen aurka zeuden sektore militar eta zibilen izaera erregresiboa

nabarmena izan zen eta negoziatutako hitzarmenen gizarte ordezkaritza debalatu egin zen. Guatemalako biztanleen gehiengo zabal batek ez zuen bozkatu (% 81.45), % 9.4ak erreformen aurka bozkatu zuen eta % 7.5ak herri indigenen eskubideei buruz proposatutako erreformen, legegintza-organismo, sistema judizial eta ejertzitoak gizarte demokratikoan duen paperaren alde bozkatu zuen, (Jonas, 2000: 376).

Porrotari buruzko azalpenek azpimarratzen dute erreformen aurkako kanpainan indiar-ladino polarizazio historikoa areagotu egin zela eta indioaren mendekua nahiz indigena ez zena baztertua gertatzearen beldurra berpiztu zen, hauek Guatemala balkanizatu ahal duten haustura etniko bezala aurkeztuak. Polarizazio politikoa areagotu zen bakearen aurka zeudenak ala honetan sinesten ez zutenak erreformen aurkari bezala asimilatuz.

Informazio ezak eta nahasteak kanpainaren patroia nagusi bezala bake-hitzarmenari legitimitasuna kentzen lagundu zuten eta abstentzioa erraztu zuten, erreformek herrialdea biztanleria maiaren eskuetan jarriko luketenaren beldurrak eraginda, hauei pribilegio eskusiboak emango zitzaizkielakoan, (Jonas, 2000: 390).

Hala ere, boto-geografiak erakusten du populazio indigenen aldetik nahiz barne gatazka armatuaren eragina jasan zuten populazioen aldetik gehiengoak Baiezko botoa eman zuela, zeinek lege oinarri bat babesten baitzuten Ejertzitoaren papera, sistema judizialaren erreformak eta eskubide indigenen inplementazioa aldatzeko. Gehiengoa biztanleria maia zen departamentutan baiezko botoak irabazi zuen, aldiz gehiengoa biztanleria ladinoa zen departamentutan ezezkoak irabazi zuen, (Jonas, 2000: 378).

Erreforma konstituzionalei buruzko kontsulta herrikoien porrota errazteko jendaurrean erabilitako mitoetako batzuk zigorgabetasun-mekanismo bezala berriro hartuak eta baliabide bezala erabiliak izan ziren mehatxu, tentsio eta arriskuaren giroa areagotzeko bai sarraskiko biktimentzako mehatxuen giroa areagotzeko eta bai kanpoko organizazio laguntzaileentzako.

Itzuliaren izaera borrokalari eta bortitzaren estereotipoa indioaren mendekuaren irudiarekin akoplatzen da. Ideologia arrazista bati dagokion irudimenezko gizarte eratze bat zein zapaltzaileak zapalduaren iraultzari dion beldurrean oinarritzen baita.

Mendekua etengabeko zapalkuntzaren esperientziatik eratorritako ezinikusi

eta erremen metatuaren bidez irudikatzen da zeinek ordainari beldur baitio 'indigenak boterearekin geratzen badira, zer gertatuko da gurekin, ladinoekin?' aldaketa-aukera historikoak aurkezten direnean, esaterako erreforma konstituzionalei buruzko kontsulta herrikoa.

Xenofobiaren areagotzeak, mehatxuaren nahiz legitimotasuna kentzearen diskurtso bezala, (Baron eta Byrne, 1998), MINUGUA-ren interbentzionismoaren aurkako eta herrialdetik hau kanporatzearen aldeko iritzi publikoko kanpaina bat sortzeko eragina izan zuen.

Mekanismo honek Ejertzitoarekin lotutako salatuen legezko aholkulariek prentsan argitaratutako erasotan eragina izan zuen, MINUGUA eta komunitatean zuzeneko presentzia zuten nazioarteko GKE-ak (Médicos del Mundo) Xamán-eko sarraskia hala nola ekintzak epaitu nahi izateari dagokionean zirikatzailer bezala hartuz.

Ospe-galtze instituzionaleko maniobra honek halaber giza eskubideen defentsarekin lotutako GKE nazionalak ere eragin zituen, (ODHAG), eta zehazkiago Rigoberta Menchú Tum fundazioa, (FRMT), bizirik ateratakoen justizia-eskaerekin bat egiteagatik, epaiketaren atal baten zehar salatzaile partikular, 'atxikitako kereilaria', bezala jokatu, horrela eragina jasan zutenak ordezkatu.

Estatuko agente instituzionalek burututako krimen bezala (hogeita bost soldaduk osatutako Guatemalako Ejertzitoaren patruila militarra, horien artean adingabe bat, eta tenienteorde q'eqch'ies bat), trantsizio politikoko nahiz gatazka ondorengo etapa baterantz doan aldaketak eta doikuntzak dituen testuinguru batean inskribatzen da zeinek militarren lidergoa eta bake-prozesuaren inguruan bere barne-banaketak konprometitzen baitzituen. Sektore militarren arteko antagonismoak erakundeen nahiz bakearen alde zeudenen eta amorerik ematen ez duten pertsonen nahiz bake-negozazioekin ados ez zeudenen artean burutu zen.

Estrategia aldatu egiten da baina helburu berdinak mantentzen dira, bake aurreko diskurtso berriari estaldura ematen dioten itxurek garrantzia hartzen dutelarik zeinek gatazka ondorengo birmoldaketari dagokionean adostasun militar eza ezkutatu egin baitzuten. Ejertzitoaren barne-banaketa hauek, Mexikotik itzuli ziren milaka Guatemalako errefuxiatuen itzulera antolatua onartzearen aurka zegoen erresistentzia zenbaterainokoa zen testuinguru batean kokatzen dute.

Estatuaren indarkeriaren eraginez lekualdatutako beste hainbat talderekin batera itzulitako errefuxiatuek 'barne etsai'aren kategoria areagotu zuten, zein bere desadostasun politikorako ahalmenagatik Estatuarekiko balizko populazio aurkari bezala hartzen baitzen. Kategoria honetan oinarrituta biztanleria zibilaren aurka errepresiozko hainbat operazio militar definitu ziren, zeinek botere-asimetria bat eraten baitute lan ideologikoaren bidez antagonikoki definitutako gizarte ekintzaileen artean.

Ejertzitoko ofizial ugarien mentalitateak, bereziki gatazka-eremutan, nahitaez jardunean arituak ez diren, baina etorkizunean zalantzarik gabe egingo dutelakoan, disidente potentzialen aurkako etengabeko eta hautazko gerra bat burutzeko justifikazioari eusten zion, (Schirmer, 1999: 421). Mentalitate militar honekin ados, egoerak, zeinetan Xamán-eko sarraskia laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdean gauzatu baitzen, oraindik prebentzio-izaerako operatibo errepresiboak justifikatzen zituen.

Ejertzitokoaren barruan Xamán-eko sarraskiaren arrazoia patruilaren burua zen ofizialordearen gaitasunik ezari egozten zaio. Gaitasunik ez izate honi dagokionean, salatuen defentsa legalak, (patruila militarra), asmorik gabeko zuhurtziagabetasun eta arduragabekeriazko erantzun bortitz bati zegokion argudio erretorikoa eraiki zuen.

Hala ere, hainbat txostenetan azaletik aipatu da, patruilaren barruan hainbat Gai Zibiletako kide zeudela zein operatiboaren arma sekretua baitziren, zeren jaio zirenetik gatazka ezabatzeko entrenatuta zeuden, (Schirmer, 1999: 428). Schirmer-en logika analitikoa berreskuratuz, honek operatiboaren partaide izan ziren inteligentzia militarreko kide estali eta espezializatuek nahita eraginiko kontrolatu ezinezko zirkunstantziak probokatzearen bidez sarraskia planifikatu izana adieraziko luke.

## **Bakearen sinadura**

Bakearen sinadurak, (1996ko abendua), Ejertzitokoak hainbat ofizial zehatz gaitasun ezagatik errundun bezala hartu eta zigortzeko nolabaiteko jarrera bat malgutu zuen, aldi berean ilarak itxi zituztelarik barne gatazka armatuan zehar gizarte zibila militartzeagatik praktikaturako indarkeria instituzionalaren erantzukizun historikoa ez onartzeko, (C.E.H, 1999). Bere ilararen barruko auto-garbiketek, erakunde militarra konprometituko luketen etorkizuneko epaiketak ekidin nahi zituzten.

Defentsa Nazionaleko Estatu Nagusiaren azterketa estrategikoak, (1996), Estatuaren aurka zeuden faktoreak ezabatu ala neutralizatu egin behar zirela adierazten zuen, esaterako aberriratutako populazioak: Zeren berriro finkatzeko tokien ezaugarriek nahiz baldintzek talde terroristekin bere lotura mantentzea zilegi egiten baitiete, (URNG), bere biziraupenerako giza baliabideak nahiz materialak emanez, (Schirmer, 1999: 440). Ejertzitoaren mentalitatearen arabera, laguntza honen nahia gatazka armatuari bidea eman zioten arrazoiei eustea zen hala nola berriro finkatutako tokitan gobernu-autoritaterik ez egotea bermatzea.

Neutralizazio hau, zeinek indarkeriaren eraginez erbesteratutako populazio hauen existentzia bera eta gizarte ordena eragiten baitzituen, Ejertzitoak bakerako negoziatutako baldintza guztiak onartzeko zuen erresistentziaren esparruan ulertzen da, Guatemalako gobernu zibilarekiko botere militarren mendetasun ukatze kronikoa mantentzeko helburuarekin.

### **Prozesu judiziala**

Xamán-eko prozesu judiziala komunitate eta talde nekazari maien aurka burututako giza eskubideen bortxaketa masiboak epaitzeko kasu legal multzo baten atala da; (Noriega, Río Negro...kasuak)

Kasu hauek Guatemalako justiziaren sistemaren bidegabekeria egiaztatzen dute, zeren ez dira ekintzak epaitzen, zeinek burutzen dituzten eta zeinen aurka baizik, emaitza gizartean biktimak eta gaizkileak duen botere-posizioaren arabera izanik.

Honek esan nahi du epaileen boterea nagusitzen den ideologiaren bahetik pasatzen dela zeinek legea sari bezala ala zigor bezala erabiltzen baitu. Epaileak eta abokatuak, ia beti ladinoak, eragiten dituzten aurreiritziak, interpretazio etnozotrikotara garamatzate zeinek ekintza zein testuingurutan sortu eta gertatzen den ulertzeko peritaje kulturalaren nahiz hizkuntza maien beharra mespretxatzen baitute. Hainbat kasu gertatu dira zeinetan epaileek interpretatu baitzuten errudun elebakar baten sintoma psikologikoak 'ohitura kulturala' ren adierazpena zirela.

Kasu honetan, arrazakeriazko aurreiritzien aplikazioak eragin maltzurak izan zituen, esaterako parrizidioa burutu zuen gaixo mental bat heriotzara zigortzea, (Pop Bol, 2001: 265). Gainera, legez bere hizkuntza propioan

artatua izateko eskubidea ukatu zitzaion. Honek justizia-sistema etnozentriko baten aurrean bere desabantaila areagotu zuen, (Morales Laynez, 2001: 101).

Justizia aplikatzerakoan burututako distortsio hauek Guatemalako botere-sistemen arrazakeriak oso sustraituak eta barneratuak dituen adierazpenak dira. Lege sistemaren praktikan hainbat modutan irudikatzen da: Gutxiago nahiz gizarterako kutsadura bezala kontsideratutako pertsona baten askatasuna nahiz bizitzeko eskubidea kentzeko eskubidea burutzerakoan; sektorerik sentiberenak errudun bezala hartzeko joera izaten denean, nahiz eta hau frogatua ez izan; gainera baztertutako taldeek deliturako duten joera alde aurretik epaitzea bere identitatea hiltzaile bezala hartzeko modu bat da, (Pop Bol, 2001: 260-272). Kontsideratu beharreko beste alderdi bat, justizia egiten nahiz legea berdintasunez aplikatzen saiatu izanagatik hauetako batzuk jasan dituzten errepresio-jardueren eragina dela eta epaileek duten beldurra da.

Sarraskitik abiatuta prozesu judizialaren bide luzeari hasiera ematen zaio, ikerketa judizial, froga eta testigantzen aurkezpen nahiz ahozko eztabaidaren hasierari dagozkien etapekin, etenak izan ziren bi epaiketa-hasiera barne. Prozesu honek lau urte eraman zituen. Azkenean, 1998ko azaroan, 9 hilabete beranduago amaitu zen ahozko eztabaida berriari berriro hasiera eman zitzaion, (1999ko abuztuak 13), ekonomikoki aldagarriak ziren 2 eta 5 urteko kondena penal batekin, hilketa delituagatik. Bi alderdi prozesalek, sententzia ezetsi zuten eta urtebete beranduago, Apelazioen Auzitegiak prozesu judiziala eta igorritako sententzia penala baliogabetzea erabaki zuen.

Hirugarren epaiketa penala 2003ko ekainaren 2an berriro ireki zen eta ekintzan parte hartu zuen patruilarentzako 40 urteko sententzia batekin amaitu zen, (2004ko abuztua). Hala ere, sententzia gaur egun apelatuta dago eta kartzelan 26 soldaduetatik 14 eta patruila militarrean agintzen zuen ofiziala baino ez daude. Prozesua amaitu gabe dago eta errudunen hein batek justiziaren iheslari izaten jarraitzen du.

Epaiketa berri honen berriro hasteak eraginak jasandakoengan errepresaliak egon ahal litekeenarekiko beldur handiak suspertu ditu testigantza eman izanagatik eta berriro hala egiteko prest egoteagatik. Inpaktu psikosozialaren hainbat ondorio baliogabetze eta birjarpenaren dinamika judizial anomaloarekin suspertu ziren. Beldurra areagotu egiten da aurkako zirkunstantzia judizial bakoitzaren aurrean. 13 soldadu iheslari egoteak orain atxilotutako soldaduek betetzen duten zigorragatik hartu ahal duten mendekuari dagokion beldurra azaltzen du.

Epaiketa berri honekin aurreko epaiketarekin, (1998/99), bizitako zigorgabetasun judizialaren esperientzia errepikatua berriro gertatuko zenaren beldurra, epaiketa zibilaren hasierak eta etenak altxa zuen ordainekiko itxaropenengatik duela gutxi jasandako frustrazioari eranstean zaio.

Hala ere, zailtasun hauek ez dute lehengoratu nazioarteko zirkunstantzian borroka judizialarekin jarraitzeko erabaki komunitarioa, CIDH, Giza Eskubideetako Batzorde Interamerikarra, Rigoberta Menchú Tum Fundazioaren, (FRMT), laguntza eta lege aholkularitzarekin kontatuz zeinek nazioarteko instantzia honen laguntzaren beharra argudiatu baitu, ezin izateagatik, behin eta berriro erakutsia, Guatemalan justizia lortu.

### **Epaiketa eta ekintzaileak**

Indio-ladino bipolaritasunaren eraketa historiko kulturalak, Estatuaren praktika sozial eta politikoei ia aldatu ez diren arrazakeria eta eskusioko sinismen ideologikoei erantzutea zilegi egiten du. Bipolaritasun hau lege eremuan erreproduzitzen da zeinetan botere-ekintzaileak, auzitegia, defentsako abokatuak eta sistema judizialeko beste hainbat funtzionario, maila ertaineko ladinoak baitira, aldiz salatuek eta salataileek identitate indigena eta nekazari bera duten bitartean.

Elementu honek analisisia konplexuagoa bilakatzen du, zeren bereizten duen ezberdintasuna arrazakeriaren azaleko jarreraren inguruan ezartzen da, esaterako, defentsako abokatuak nahiz auzitegiak q'ech'ies soldaduekiko azaltzen duten tratu paternalista eraginiko komunitateko maiekiko azaltzen duten aurkako nahiz mespretxuzko tratuarekin alderatuta. Hitz gutxitan, talde nekazari etniko-komunitariotako maiak izateagatik burututako arrazakeriari, zeinek militarren barne etsaia bezala etiketatu baitzituen, itzuliak izateagatik bere identitate politikoa dela eta diskriminatuak egotea eranstean zaio.

Aztertuko ditugun drama judizialeko ekintzaileak ondorengoak dira: salataile 'lekuko-bizirik ateratakoak', salatuak, 'gaizkileak', abokatuak lege ordezkari bezala eta auzitegiko epaileak.

Agertoki judizialean estatuko boterearen harremanak ordezkatzeko dituzten ekintzaile instituzionalak auzitegiko epaileak, salatuak eta salatuak abokatu

defendatzaileak dira. Lehenengoak estatuko botere judizialaren ordezkari bezala eta abokatuak erakunde militarren ordezkari bezala. Ekintzaile judizialek, botereari dagokionean, harreman asimetriko bat dute. Salatzaileak boterearen mende daude eta gaizkileak menderatzaileak dira agente militar bezala duten bere profilagatik, zein Estatuko botere betearazlearen barne baitaude. Honek botere-harremanetan asimetria bat planteatzen du zeinek salatzaileak eta salatuak ezberdintasunean jartzen baititu.

Diskurtsoa metodo bezala aztertzeak elkarreraginaren alderdi sozialak eta esperientzia berregituratzerakoan nahiz iragana oroitzekoan hizkuntzak duen ahalmena ulertzen laguntzen diguten komunikatzeko moduak kontsideratzen ditu. Eta agertoki judizial honetan, bi oroimen antagoniko aurrez aurre jartzen dituen dialektikak biktimen esfortzuak eraberritzen ditu erakusteko nola hitzak, mundu bakar aldaezin bat erreproduzitzetik urrun, hitz eginez hainbat mundu posible eratzen dituen, (Dorna, 1998: 65).

Biktimen oroimenak gaizkileenei aurre egin beharrean aurkitzen dira zeinek gertatutakoa zentzu konbentzional batean eta erantzukizun publikoak ezabatzeko berregituratzen baitituzte, (Cabrera, Luisa eta Martín Beristaín, 2001). Epaiketari zigorgabetasunak gertatutako indarkeria legitimatzen du, biktimak gertatuarekiko errudun bilakatuz. Gizarte eraketa honetan testuinguru nazionalako, eskualdeari dagokioneko nahiz lokaleko elementuek hartu dute parte zein ekintzaren ezusteko zirkunstantziak argudiatzeko eta erantzukizun-emea lehengoratzeko onuragarriak baitziren.

Populazio indigenetako unibertso kulturala errestituzio komunitarioko justizian nahiz berez Estatuko erakundeena den justizia penal ala zibilean oinarritutako ereduaren bizikidetzarekin topatzen da. Errestituzio-justizia kaltea erreparatzera, bitartekotza burutzera nahiz biktimarekin adostasuna bilatzera, errudunaren zigorrera izan beharrean, gehien bideratutako justizia-formei dagokio. Mekanismo hauek komunitatekoak diren bitartekoekin gestionatzen dira, arau malguekin maneiatzen dira, prozesua borondatezkoa da eta erabakiak adostasunetan oinarritzen dira.

Amaitzeko, konponketara bideratutako penak azpimarratzen dira. Justiziako ohiko moduak kasu multzo nahiko mugatu batekin aritzeko diseinatuak izan dira esaterako lapurretak, bizilagunen arteko gatazkak, etab. Krimen serioagoen pisuarekin borrokatu ahal dute, esaterako giza baliabideen bortxaketa masiboak ala lesa Gizatasuneko krimenak, hau da, bortxaketa eta sexu-tortura, (Martín Beristain, 2005).

Azkenik, ikerketa penalari dagokionean, gizartearen hein handi batean sustraitutako faktoreek, Nazio Batuetako kontalariak emakumearen aurkako bortxaketari buruz adierazten zuen bezala, (Ertürk, 2003), emakumeek justiziara sarbiderik ez izatea areagotzen dute, horien artean:

- Pobrezia eta autonomia ekonomiko eza;
- Analfabetismo juridikoa;
- Bizitza publikotik nahiz politikatik kanpo geratzea;
- Emakumeekiko jarrera gutxiesgarriak eta bizitzaren esfera publiko nahiz pribatuetan eragiten duten praktikak;
- Emakumeek bere justizia-eskarietan jasaten duten beldurra eta inhibizioak;
- Emakumeen justizia-eskarien alde dauden sustapen-talde ahaltzurik ez egotea.

## **Zigorgabetasuna**

Lan honetan sarraski batek eraginiko komunitate maia bateko lekukoen erantzuna ikertzen dugu, (1995), prozesu judizial baten aurrean zeinek Guatemalako historian lehenengo aldiz salatuen aulkian 26 kide eta Ejertzitoko ofizial batek osatutako patruila militar bat eseri baitzuen. Biktimek bere justizia-itxaropena ekintzaren autore materialentzako aldeko sententzia batekin ukatua ikusi zuten.

Sententziaren inpaktua latzagoa da, zeren zoritxarreko amaiera batean 'jendeak errua izan zuela' dioen bertsio 'ofiziala' bermatzen du, horrez gainera bere 11 hildako eta 27 zaurituen galerak bere gain hartu behar izanik, hala nola ekintzak bere bizitzetan izan dituen ondorio guztiak.

Inpaktu psikosoziala eta jendearen erantzunak aztertzen ditugu prozesu judizial bati aurre egiteko zeinetan zigorgabetasuna gailendu baita eta halaber jendaurrean 'fartsa juridiko' bezala salatu baitzen, (López Funes/Salerno). Xamán kasua 'biktimak hiltzaile bilakatuz operatzen duen lurpeko sistema penal' baten ekintza ilunaren lagin bat da, (Rodríguez B.), hainbat mekanismo estrajudizial eta legalekin, zeinen sententziak justiziaren administrazio egitura militarren interferentzia berri bat islatzen baitu, (MINUGUA, Guatemalarako Nazio Batuetako Egiaztatze Misioa, herrialdean Bake-Hitzarmenen eskutik instalatua: Kasuari buruzko txostena, 7/9/99).

Zigorgabetasunaren aurkako borroka gaur egun Guatemalan 36 urte iraun zituen gatazka armatu bateko biktima ugariak eusten dituen erronketako bat da; (CEH; ODHAG), borroka judizialaren bidez, ziurgabetasun eta gizarte mobilizazio ugari baldintzetan biktimei dagokien ordaina exijitzeko. Egia azaleratzen doan bitartean, bortxaketa berriak 'iraganaren ezagutza' honek suposatzen duenarekiko beldurra nahasteaz enkargatzen dira. Juan Gerardi apezpikuaren erailketa, (1998), REMHI txostena aurkeztu eta hiru egun barru, historia ofiziala aurrez aurre jartzeko arriskua berriro ezarri zenaren egiaztapena izan zen.

Giza eskubideak egiaztatze txostenek, (8, 9 y 10. MINUGUA-ren txostenak, 1999-2000), eta beste hainbat duela gutxiko azterketek, (Ramírez), Xamán kasuak deskribatutako zigorgabetasun-mekanismo ia guztien adibide ugari dauzkala egiaztatzen dute. Honek guztiak berresten du:

- a) Estatuaren erantzukizuna ez-egiteagatik;
- b) justizia lortzeko borondate politiko falta;
- c) zigorgabetasunak gizarte zibilak gune demokratikoak indartzeko egiten dituen esfortzuak eta dituen itxaropenak aztoratzen dituela. Justizia zaharberritzea eta egia argitzea gatazka sozio politikoek eraginiko kolektibitateak berregituratzerako behar pikosozialak dira. Epaiketek gizarte balio bat daukate errua lotsa publiko bilakatzerakoan eta ekintzei nahiz erantzuleei dagokien zigor morala aurretiaz suposatzerakoan. Gune bat da zeinetatik egiarekiko eskubidea exijitu eta banatu ahal da hala nola historia errepikatu ez dadin inhibizio mekanismoak errazteko (presio sozial eta politikoa eta erantzukizun publikoak gaitasungabetzea). Gainera, epaiketak erritual publikoak dira zeinek diktaduratik demokraziara pasatzerako erritu-funtzioa betetzen baitute, eta era berean atzeraezinak diren aldaketak sustatzera behartzen duen legitimotasun krisialdi baten adierazpena izan ahal dira, (Martín B., 31. orr.).

**Zigorgabetasunaren eragin psikosozialak**, (Sveass, cit. Martín B.-n et al., 269 orr.):

- Justizian sinismenak eta balioak eragiten ditu, egituretan eta demokraziaren baliotan mesfidantza ereinez;
- Zalantzak eta beldurra sakontzen dira gizarte nahaste eta

anbiguotasunaren aurrean justizia ez egoteagatik; etikaren zentzua hausten da;

- Zigorgabetasunak jendeak justizia bere kontutik bilatzea eragiten du;
- Bizitakoa ezeztatzen du, traumaren elaborazioa eta gizarte adiskidetzeari zailduz; biktimen ezintasuna, errua eta lotsa ekartzen ditu;
- Zigorgabetasunak etorkizuneko sinismenak mehatxatzen ditu.

## **Prozesuaren iraupena**

Xamán-eko prozesu judizialak ia lau urte iraun ditu eta salatzaile partikularren aldetik, Bakearen Nobel Saria, Rigoberta Menchú, ‘tranpa juridiko’ bezala salatutako gertaera eta anomalien historia emankor bat du, zeinek 1999ko urtarrilean epaiketarik bere erretiro formala aurkeztu baitzuen: ‘Tbili behar izan dugun labirintoa ez da alde aurretik zehaztutako irteera batera bideratzeko, aldiz nekatzeko, nahasteko, etsiarazteko, desbideratzeko, eta amaitzeko Justiziara inoiz iritsiko ez dela bermatzeko’, (López Funes/Salerno).

Epaiketako bederatzi hilabeteren ondoren, 1998ko azarotik 1999ko abuztura arte, sententzia patruilaren agintea zuen ofiziala tropako bere elementuetako 10ekin batera hilketa errudun delituagatik agindutako kondena izan zen kartzelako bost urteko zigorra leporatuz zein eguneko bost quetzal-engatik aldagarriak baitziren. Patruilako gainerakoei konplizitate errudun delituagatik kondenatzen zaie kartzelako lau urte aldagarri zigorra leporatuz.

Auzitegiari ahaztu egin zitzaion salatuak gure 27 anaiei eragin zizkieten zauriengatik kondenatzea, (Aurora 8 de Octubre Komunitatea, 1999ko urriaren 5eko adierazpen publikoa).

## **MINUGUA**

Bere txostenean kasuari buruz aritzerakoan, (7/9/99), MINUGUA-k bidegabekeri honen barne dauden anomaliak salatzen ditu hitzarmenak, arauak, giza baliabideei buruzko nazioarteko hitzarmenak bortxatzerakoan, hala nola zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko bake-hitzarmenetan jasotako konpromiso nazionalak.

Gaur egungo borroka juridikoak apelazio-fasean jarraitzen du Auzitegi

Nazionaletan eta salaketarekin Giza Eskubideen Batzorde Interramerikarrean, igorritako kondena berrikusteko Guatemalako estatuari presionatzea lortzeko itzaropenarekin.

## **Prozesuaren historia eta giro politikoa**

Ikerketa-fasearen hasieratik prozesuaren elementu kutsatzaileak prestatzen joan ziren, peritajeak fabrikatuz, frogak desagertuz eta komunitatearen arazoak nahiz ezberdintasunak manipulaturaz horrela biktimak hiltzaile bilakatzea, itzuliak-egoiliarrak polarizazioa errazteko. Hauek eta beste hainbat eragozpen-mekanismok epaiketaren hasiera luzatzeko lege-prozedurak gerarazteko eragina izan zuten, (López Funes/Salerno; Ramírez).

Ekintzen oroitzapen ofiziala eremu ezberdinetako diskurtso politiko bezala eratzen joan da. Polarizazio ideologikoaren lan hau militarrek jaurti dute itzulien irudi bortitza estigmatizatu eta justifikatzeko helburuarekin. Diskurtsoa komunikabide nazionaletan jakinarazi zen, baina oraindik inpaktu lokal handiagoarekin zurrumurru eta mezu militar publikoen bidez Aurora-ren inguruetako komunitate bizilagunetan eta 'historia ofiziala' ordezkatzeko du.

## **Prozesu judizialeko hainbat dinamika**

1. Mekanismo juridikoen erabilera irrazionala. Esaterako, ez zen deliturik existitzen 'exekuzio estrajudiziala' 's'kin idazteagatik;
2. Gertatutako ekintzen gurarizko izaeraren ukapena eta/edo distortsioa;
3. Ekintzen loturen manipulazioa. Defentsak gertatutakoa itzulien 'probokazioa' ren aurrean bere defentsan burututako erantzun ekidin ezina bezala aurkeztu zuen;
4. Biktimak hiltzaile bilakatzea, gatazka komunitarioak eta salatuen aldeko giro politikoa manipulaturaz. Diskurtsoak planteatu zuen biktimak 'gehiegizko tentsio emozionaleko' egoera bat probokatzegatik errudunak zirela;

5. Sarraskian Ejertzitoaren erantzukizuna ezabatzea, zeinetarako operatibo militarren zehar jarduera-autonomia justifikatu baitzen eskala hierarkiko-militarrari dagokionean. Mendekoen alderantz burututako lekualdatze honek zigorgabetasun-mekanismo bat eratzen du errepresio-estrategien eraginkortasuna bermatzeko, (Rodríguez B). 'Patruilako komandanteak patruilari suertatzen zaion edonolako arazo konpontzeko autonomia dauka, bere irizpideak nagusitu egin behar du', (Defentsarako ministro ohiaren adierazpena).

### **Ixcamán-eko testigantzen manipulazioa**

Ixcamán-eko taldea finkako okupatzaile ilegalek eratzen zuten, zein itzulitakoekin Aurora 8 de Octubre komunitatea eratzeko integratu baitziren. Hauen hein batek, proiektu kooperatiboarekin zituzten liskar eta desadostasunengatik, 1997an komunitateari uko egin zion. Gatazka komunitario hauek manipulatuak izan ziren, salatuen aldeko testigantza baten ordez lurra eskainiaz, (López Funes/Salerno). 'Talde nekazari baten gose eta beharrarekin' jolaste honek itzuliekin elkarbizitza gatazkatsua gertatzen denaren irudi publikoa indartzeko balio izan zuen.

### **Lege zigorgabetasuna eta erresistentzia psikosoziala**

Ikuspegi psikosozial batetik ekintzarekiko hurbiltzeak egoera estresagarri ala traumatikoen erabilerari egiten dio erreferentzia, (Lazarus et al). Kasu honetan, epaiketaren zigorgabetasunak sarraskiarekin berriro esperimentatutako indarkeriaren eraginak luzatzea suposatzen du.

REMHI txostenean aipatutako indarkeriari modu kolektiboan aurre egiteko hiru dimentsio; ODHAG, Guatemalako Artzapezpikutzako Giza Eskubideen Bulegoa, erabilgarriak dira Xamán-eko lekukoaren artean aurkitu genituen erantzunen azalpen-esparru bezala:

- a) modu kolektiboan burututako aurre egitea; arretak, elkarri emandako laguntza, informazio bilaketa eta lege aholkularitza
- b) aurre egite zuzena eta auto-kontrola; hitz egiteari uko egitea, zuzeneko erresistentzia, probokazioei ez erantzutea;

c) aurre egite kognitiboa eta ideologikoa; eskubide politikoak eta legalak betetzea, zintzotasuna manipulazioaren ordeztu, justiziaren zentzua. Hiru aurre egiteko modu hauek erresistentzia aktiboko hainbat jarrera eta justizia-exijentzia laburbiltzen dituzte lekuko aldetik zeinek etsipenaren aurrean ezin hautsizko animua erakutsi baitute.

## **Rol eta buruzagitzen baieztapena**

Presentzia armatuak autoritate komunitarioaren rola eta hitz egitean nahiz adostasunean oinarritutako bere bitartekotzak ezeztatu egiten zituen.

Alkate ohiak bere babes-funtzioa eta bere bitartekotza burutzeko saiakerak azaltzen ditu, nahiz eta babesgabetasuna banatu izan armen indarrei aurre egiterakoan. Hala ere defentsa indarkeria- ekintzei dagokionean honi erantzukizuna leporatzen saiatu zen:

‘Zeinek izendatu zuen alkate laguntzailea?’. ‘Chisec-eko komunitateak eta udalerrriak baimendu zuen’. ‘zein funtzio zituen alkate bezala?’ ‘Zein arazo dauden ikusi eta udalerrira igortzea; nire funtzioen artean komunitatearen barruan ordena eta lasaitasuna mantentzea zegoen’. ‘Saiatu al zinen ekintza bortitzak ekiditen?’ ‘Zer egin dezaket beraiek iritsi baziren? Ezin dut ezer egin, bakarrik esan nien jendea oso beldurtuta zegoela’.

## **Lege-itzulpenaren eskubideak eta gabeziak**

Pertsona elebakarren lege eskubidea, maia hizkuntza motaren bat erabiltzen duen populazioa, itzulpena jasotzeko eta interprete bat eskuragarri izateko, Bake-Hitzarmenetan jasotako duela gutxiko lorpen bat da eta ezinbestekoa aniztasun juridiko bat eraikitzeke zeinek herrialdeko errealitate eleanitza eta kultura anitza onartzen baitu. Hala ere, egitura zailtasunek irauten dute eskubide hau aplikatzerakoan; adibidez, akta ofizialak ez dira itzuli izaten, eta hau inplementatzen duen politika publikorik ez dago zeinek arrazakeria eta eskusioarekin zerikusit handiagoa baitu zailtasun operatiboekin baino.

Itzulpen-zeregina eremu judizialean konplexua dela onartzen da hizkuntza maia mota ezberdinak, aurreiritziak egoteagatik eta Organismo Judizialeko

itzultzaile ofizialen gaitasun tekniko urriagatik, (Morales Laynez, 2001: 95, 100).

Epaileen ohiko praktika azaleko eta biziraupeneko elebitasun bati dagokion komunikazio funtzionala interpretatzea da, zein Guatemalako nekazari maia gehienek praktikatzen dutena baita, gaztelera menderatuko balute bezala eta ondorioz itzulpena beharrezkoa ez izan. Azken batean eskubide honi ezikusia egiten zaio sistema judizialean konplexutasun nahiz lan maila areagotu egiten duelako. Autore honek halaber adierazten du Guatemalako gizartearen 'analfabetismo juridikoak' logika judiziala ulertzeko zailtasuna eransten duela, ondorioz biktimei, bereziki elebakarrak eta analfabetoak badira, prozesua ulertezina, nahasia gertatzen zaielarik zeinetatik kanpo eta urrun sentitzen baitira, (Ordóñez Cifuentes, 1997: 72 y 76).

Salatzaileek itzulpenerako eta interprete-zerbitzuak izateko zuten eskubidea nola erabili zenari dagokionean laburbilduz, esan ahal dugu, orokorrean aitortzetako eta galdeketako itzulpena errespetatu zela deklaratzailen aldetik eskatua izan zenean. Baina ez akta judizialeko itzulpena, hein batean itzultzaile askok maia hizkuntzetan idazten ez dakitelako.

Itzulpen partzial honen ondorioa garrantzitsua da ikuspuntu psikologikotik, zeren lekukoa barne hartzen duen eta zuzenean eragiten duen gainerako prozesuarekiko ezjakintasuna eta ulertezintasuna inplikatzeko du. Horrela, lekuko elebakarrek ezin zuten dinamika judizialaren garapena kontrolatu nahiz ulertu eta are gutxiago bere amaiera aurreikusi, zeinek espero gabeko etsipenak suposatu ahal baititu eta honek lekukoari bere eraginak gainditu ahal izateko psikologikoki prestatzea eragozten dio, horrela ez ulertua, entzuna nahiz errespetatua izateari dagokionean beldurra areagotuz.

Gainera, bere prozesuaren bilakaerarekiko testigantza gehiegizko fokalizazio nahiz kontrolik ezak, lekukoen sentiberatasun-pertzepzioa areagotzen du. Kanpoko aholkularien presentzia egon zen, epaileen aldetik baimendua, atal prozesal bakoitza itzultzeko, salatzaileak eta salatuak. Hainbat alditan lekukoen arteko desadostasunak aurrez aurre jarri ziren interprete ofizialek burututako itzulpenaren zehaztugabetasuna zela eta. Beste hainbat kasutan, hala ere, defentsak desadostasun hauek adierazpen zehatz baten fidagarritasuna baliogabetzeko erabili zituen.

Nahiz eta gabezia hauek gertatu, itzulia izateko eskubidea salatzaileentzako laguntza objektibo eta balioztatua izan zen. Bere bizipenen eta

esperientziaren oroimenen fluxu naturalagoa zilegi egiten zuen, baina aldi berean, erresistentzia aktibo baten zentzuarekin, bere hizkuntza propioan kultura baliabide gisa ironia eta metafora eranstea zilegi egiten zuen, horrela gaztelera ez menperatzeagatik umilazioa sentitzea hala nola esan nahi den guztia ezin esateagatik sentitzen den ezintasuna ekidinez. Bere hizkuntza propioan adierazita, paradoxa-adierazpen baten zentzu kritikoak zentzua berresten du, aldiz gaztelera itzulitakoan, desagertu egiten da. Honek esan nahi du botere-eremutan hizkuntza propioa erabiltzeak, mendekoentzat ondorio handiagorik arriskatzen ez duen erresistentzia azkar eta eraginkorra eratu ahal duela.

### **Giro judiziala eta elkarreragin komunikatiboa**

Salatzaileentzat areriotasun-giroa eratu zuten botere-jarrerak ondorengoak burutuz aplikatu ziren:

- a) arrazakeria eta lege diskriminazioa;
- b) autoritarismoa eta bidegabekeria;
- c) beldurra eta beldurrarazteak. Diskurtsoa adierazgarriagoa bilakatzeko erabilitako erretorika eta keinuak aztertuko ditugu.

Bai defentsako abokatuek eta bai Auzitegiko epaileek, mespretxuan eta diskriminazioan oinarritutako arrazakeriazko jarrerak erabili zituzten bereziki Guatemalan indigenak gizarte maila baxu batean mantentzen dituzten ezberdintasunaren adierazgarri bezala. Bere jarrerarekin, botere judizialeko agenteek komunitateko lekukoak mespretxuz tratatu zituzten defentsaren lekukoei lehentasunezko tratatu bat ematen zieten bitartean.

Hemen antzeko taldeen artean desabantaila-konparazioagatik kultura bidegabekeria gertatzen da; lekukoak, nekazariak eta maiak. Elementu bereizle honek prozesu penal honetan arrazakeria nola burutu zenari buruzko azterketa konplexuagoa bilakatzen du, zeren q'eqh'ies soldaduei nahiz erosi egin ziren komunitateko hainbat lekukori, paternalismo atseginez tratatu zitzairen aldi berean leialtasuna eta erakunde-babesa eskainiaz, (ejertzitza), aldiz biktimizekiko jarrera bere gizarte identitatearekiko mespretxuzkoa eta biktimen nahiz bizirik ateratakoen duintasunaren aurka erasokorra izan zen.

Horrela babesten zituzten lege eskubideak exijitzeko erakutsitako ausardia zigortu egiten zen; itzulpeneko eskubidea, pasatako denboragatik

ahantzura errebindikatzeko eskubidea... Defentsako abokatuentzako, ejertzitokoak izateak eta honekin lotutako identifikazio ideologikoak, hainbat lekukok erakutsitako jarrera desafiatzaileak ezohiko irain jasan ezin bezala hartu izana eragin zuen.

Auzitegiko kideak, bi epailek eta epaile andere batek osatua, komunitateko testigantzak entzuterakoan bere jarrera bidegabe autoritarioagatik nabarmendu ziren. Komunitateko lider nagusienek nahiz galdeketaren zirikatzeari jarrera desafiatzaileekin eutsi ziotenek eginiko adierazpenen ondoren arreta jarri zuten eta galderak ere egin zituzten.

Aldiz, auzitegiak beretzako garrantzi gutxiko lekukoak zirenen adierazpenak (zaharrak, zaurituak, minusbaliatuak) errespetu falta, axolagabetasun eta interesik eza adieraziaz, entzungor eginez gutxietsi egiten zituzten. Tratu umiliagarri eta bihozgabe honek biktimentzako bere sufrimenduarekiko mespretxua adierazten du eta lege sistemaren diskriminazio bezala interpretatzen da. Beste hainbat kasu baieztatzen dira zeinetan hainbat sententzia-epaileen jarrera salatu baita, 'PAC-etako Buru ohi bati eginiko epaiketa baten zehar' hauek erdi lo zeuden Tululché-ko komunitateko hainbat emakumek Q'iché hizkuntzan erailketa, bahiketa, desagertze bortxatu, tortura eta bere senide nahiz ondasunen suntsiketaren testigantza burutzen zuten bitartean, (Morales Laynez, 2001: 63-64).

Abokatuak lekukoei hauen aitortzak entzun ondoren galdeketa burutzeko zuten moduak, manipulazioa gauzatzeko testuinguru aproposa sortu zuen Galderen orientabideak, entzundako kontakizunaren alderdi nahasi eta zehaztu gabeak argitu baino gehiago, hitzek eta emozioek jakinarazten zutena nahastu nahi zuen. Galdera errepikakor eta interesgarriekin nahasketa eragiteak diskurtsoan kontraesanak sortzen zituen, egokitasun faltagatik lekukoak deskalifikatuak izango zirenen arrisku erantsiarekin. Nahasteko manipulazio-estrategia honek, lekukoen estutasuna areagotu zuen bere kontakizunaren sinesgarritasun eta oinarriari dagokionean hala nola gertatutakoaren bere pertzepzioa baztertua eta mespretxatua izango zenari buruzko beldurra.

Epaiketan zeharreko areriotasun-giroak epaileen nahiz defentsako abokatuen jarrera bidegabea erraztu zuen horrela salatzaileak beldurtzea lortzeko asmoz. Defentsako abokatuen autoritarismo eta botere-abusua lekukoei bere erantzunetan errieta egin eta estutzeko moduan handikeria eta harrokeria erakutsiz gauzatu zen hala nola galdera desegoki nahiz garrantzirik gabekoei

emandako erantzunak bidegabekieriaz kalifikatuz eta deskalifikatuz. Auzitegiak eginiko ohartarazpenak ugariak izan ziren prozedura juridikoaren aplikazio zorrotz bat exijitzeko, salatzaileentzako salatuentzako baino balantza kaltegarriagoa izanik. Tentsio-giroak komunitateko lekukoentzat estres eta higadura handiagoa ekarri zuen.

Epaiketarik kanpoko gizarte giroak ere epaiketa-testuinguruan eragina izan zuen komunitateko lekukoei mehatxuak egin eta beldurrarazteen bidez eta salatuentzako aldeko amaiera bat lortzeko auzitegia presionatzen zuten talde paramilitar eta militarren solidaritate-adierazpenen bidez. Gainera aurrerago ikusiko dugun bezala, elkarrizketen emaitzek zigorgabetasunezko giro batean burututako aitortza judizial batek lekukoengan hipererreaktibotasunezko erreakzioak eragiten duela baieztatzen dute, mendekufantasiak berpiztuz eta balizko mehatxu berrien aurrean alerta seinaleak eta ardura nahiz defentsa erreakzioak areagotuz.





Latinoamerikako

Esperientzia Konparatuak

Argentina

Lila Pastoriza



## **Giza Eskubideen Kongresua eta latinoamerikako esperientzia konparatuak**

**Guatemala, 2005eko abuztuaren 24tik 26ra**

Gure herrialde batzutan, horien artean Guatemala, Chile, Uruguay eta Argentina, biztanleriaren sektore handitan giza eskubideen bortxatze sistematikoaren garaiak burutu dira.

Errepresioa jasan zuten pertsona eta taldeak fisikoki ezabatzeko etapa aspaldi amaitu bazen ere, zigorgabetasunaren iraupenak inplikatzeko du, neurri handi batean, gaizkileek planteatu zituzten helburuen betetzea, zein zuzenbidezko estatua lortzeko dagoen zailtasun ikaragarrian adierazten baita, praktika hauek ez errepikatzeko bermea izango delakoan.

Genozidioak, ez dira gizaki kopuru handien aurka planifikatutako krimenak gauzatzeari ematen zaion izena baino, eta bestea, interesik gabekoa, ezabatzeko agindua inplikatzeko duen balio eta praktika demokratikoen erabateko ukapen horrek eusten ditu. Zuzenbidezko estatua eraikitzeak zigorgabetasuna babesten duen sistema eta gizarte mailan errotutako bere hipotesi ideologiko nahiz politikoak babesten dituen sistema desmuntatzea exijitzen du. Eta honek ezinbestean alderdi juridiko, sozial eta politikoak barne dituen jarduera integral bat eskatzen du.

Ulertzea genozidioak ezin zaizkiela pertsona ala talde zehatz batzuen maltzurkeri nahiz eromenari leporatu baizik eta teorikoki eta materialki eraikitzen diren gizarte praktikak direla onartzea sistema autoritarioen bidez burututako giza baliabideen bortxatze masiboaren aurrean jarduera integralaren dimentsio eta garrantzia balioztatzekeo abiapuntua da.

Justiziaren aldetik egia ezagutzeko ekintzen ikerketa, prozesua eta errudunentzako zigorra burutzea, biktimen ordaintzarako politikak eta oroimen kolektiboaren eraketa zigorgabetasunari irabazteko ezinbestekoak diren eta batera doazen zereginak dira, zereginak zeinen hedatze soilak, gizarte justu baten horizonte etikoan eutsita, ikaragarri laguntzen baitu zuzenbidezko estatu bat eraiki eta finkatzen.

Hau da esparrua zeinetan Argentinan garatutako prozesuaren une garrantzitsuetako batzuk adierazten saiatuko baikara, oroimena, estatuko terrorismoaren herentziatik nahiz oroimena, egia eta justizia eskarien ardatz bezala eutsi zituen eta eusten dituen giza eskubidetako etsi ez zuen mugimendu batek zigorgabetasunaren aurka garatutako borroketatik abiatuta.

## Sarrera

### **Kolpe genozida bat**

Hirurogeita hamargarren hamarkadatik hasita eta gutxienez zazpi urtez, Argentinako Errepublika 1976. urteko martxoaren 24ko kolpe militarrek erakundetutako Estatuko terrorismoaren bidez inplementatutako errepresio bortitz eta klandestino batean sartuta egon zen.

Ez zen kolpe bat gehiago soilik izan. Indar Armatuena eta botereko sektoreen jardueraren helburuak eta determinante ekonomiko nahiz estrukturalak hemen aztertzen geratu gabe, ezin da zalantzan jarri horiek guztiek helburu bezala jarri zutela, Pilar Calveiro-k adierazten zuen bezala 'Argentina beste herrialde bat bilakatzea, kirurgia nagusia izendatu zuten operazio bati ekinez'. Aurkarien bahitura eta desagertzea, zein eskuineko banda terroristek hainbat urte lehenagotik bereganatze ofizialarekin burutzen baitzetozen, ezarri ziren, kontzentrazio- eta sarraski-esparruarekin batera, boterearen errepresio-modu bezala.

Gizarte gorputza diziplinatzeko helburu bezala organizazio gerrillarietako, organizazio herrikoietako ekintzaileen hilketa finkatu zen helburu bezala; ikasleenak, auzoetakoak, sindikalak, eta gizartea eraldatzeko proiektuekiko bere atxikimendua adierazten zuten talde eta organismoena. Errepresio-helburu bezala hautatutako talde handi hau eratzen zutenei 'abertzalea izatearen aurkakoak' eta 'subertsibo aberrigabeak' bezala ezagutzen ziren. Burutu zen genozidioa, Daniel Feierstein-ek adierazi duen bezala 'gizarte praktika' bezala bereiztean, 'negatiboa' bezala katalogatutako 'bestearen' hilketaren justifikazioan eratzen zen, hilketa-jardueretan esanekotasuna gauzatzea erraztuko luketen mekanismoak inplementatzen ziren aldi berean.

Nahiz eta bere izaera, dimentsio eta modalitateengatik ezarritako errepresio-erregimenak historia nazionalean aurrekaririk ez izan, ez zen izan, kasu argentinarrean, ezorduko inbasio bat: tradizio eta praktika autoritario eta errepresiboak herrialdean XX. mendearen hein handi baten zehar murriztutako diktadura militar eta demokratikoen etengabeko aldizkatzearen barne egon ziren. Ez zen inola ere gizarte argentinarrari ez zegokion zerbait, bere azpikeriaren parte izan zen zerbait baizik.

Indar Armatuak, zeinek 1930etik hasita gobernu zibilak baldintzatu nahiz ezeztatzeko kolpe militarra erabili baitzuten, bere interbentzioak finkatuz joan ziren, gizarte-taldeari dagokionean benetako botere-nukleo bezala finkatuz eta Estatuaren aparatutik handituz zihoan indarkeriaren erabilera burutuz. 1955eko 'Iraultza Askatzaile' tik hasitako errepresio eta peronismoaren erbesteratzea eta euskarri demokratikorik ez zuten gobernuen ezartzea 1966ko kolpe-militarrarekin jadanik, bai bere errepresio-eskalan eta bai bere fundazio-helburutan, aldez aurretik nabarmentzen zen erregimen baten ezarpenean amaitu zuten, Estatuako terrorismoa.

Aldi berean, 1976ko kolpe militarra eraman zuen prozesua nazioarteko agertoki batean ezarri zen, gerra hotzaren mundu bipolarrena, zeinetan politika inperial iparramerikarrak eta bere segurtasun nahiz iraultzaren aurkako estrategiek bere ekonomia eta politika sakontzea burutzerakoan edonolako eragozpen behera botatzen baitzuten.

60. hamarkadaren amaieratik, herrialdea mobilizazio herrikoi handiko prozesu bat bizitzen zihoan zein gizarte eta politika eraldaketagatik borrokatzen zuten sektoreen areagotuz zihoan partaidetzan adierazten baitzen; eta 'Cordobazo', 'puebladas' izenekoak, ikasle- eta industria-aktibismo berri bat, 73ko 'udaberri'ko mobilizazioak, eta beste hainbat fenomeno bidez adierazi zen.

70. hamarkadaren hasieratik jardunean zegoen gerrilla klandestinoki erreprimitzeko antolatutako errepresio-bandek hasieran mobilizazio-prozesu honetako protagonisten artean hautatu zituzten bere biktimak eta beldurra gizartearen sektore zabaletarantz barreiatu zuten. Komunismoaren aurkako Aliantza Argentinarra, A Hirukoitza eta Amerikako Askatzaileen Komandoa eragiteak milaka erailketa ekarri zituen 1974ko uztailean Juan Peron jeneralaren heriotzari jarraitu zion urtean zehar. Indar Armaturen eraso geroz eta gehiago handituz gauzatu zen. 1975ean lege gobernuak gerrillaren eta 'terrorismo industrialaren' errepresioa bere eskutan utzi zuen eta 1976an boterea bereganatu zuten. Kolpea gertatu eta handik urtebetera, bere 'Junta Militarrentzako Gutunean' Rodolfo Walsh-ek salatzen zuen errepresioak 15 mila desagertu, hamar mila preso, lau mila hildako eta milaka hamarreko erbesteratu ekarri zituela.

Azken batean beldurraren azkeneko hartzailea gizartea zen, berekiko kontrola gogorra izan zen. Diziplinatuta eta mendean jarri behar zen, eta ados ez egoteko aukera debekatu, behatu eta ezabatu zen. Calveiro-k esaten

du: 'gizartetik egonezina sorrarazten zieten guztia kentzen saiatu ziren, bere bizitzeko gaitasuna ezabatuz eta politikatik arteraino guztia debekatu'.

Milaka atxilotu-desagertu, militante eta ekintzaile erailak, preso politikoak, erbesteratuak, bereganatutako ehunka haur, gizarte loturen desartikulazioa, politikaren debekua, eredu ekonomiko eta zorpetze erregresibo baten inplementazioa eta zatitutako gizarte bat gizartea menderatu eta diziplinatuzko beldurra oinarrizko tresna bilakatu zuen erregimen baten saldo materiala izan zen.

'Berrantolaketa Nazionalaren Prozesua' izeneko autoak berrantolatze berri bat irudikatu zuen zeinek boterearen beste hainbat zirkulazio-forma sortu baitzituen. Motibo ezberdinengatik, obeditze-jarreraren gama zabala eratu zuten gizartearen sektoreekin kontatu zuen zeinek onartze pasiboa, konplizitatea eta zuzenerako partaidetza hartu baitzituen barne.

Orduan hasi zen gero, beste hainbat modalitaterekin, sendotuko litzatekeen zigorgabetasunaren eraketa, trantsizioaren urtetan. Aldi berean borroka garrantzitsuak garatu ziren zeinek, are gehiago duela gutxiko garaitan, bere helburuetako batzuk lortuz joan baitziren. Nahiz hori horrela izan, diktaduraren eta zigorgabetasunaren eragin ugari gaur egun iraun egiten dute: hala adierazten dute, beste fenomeno askoren artean, erakunde demokratikoen husteak eta berarekin dakarren gizarte fedegabetasunak.

80. hamarkadatik hasita, ez dira gutxi izan erregimen autoritarioetatik demokraziara bitarteko trantsizioen kontura burututako lanak. Hala ere, beti ez da sakondu izan zigorgabetasunaren mekanismoen eraketan, krimenak argitzeko jardueretan eta bere erantzuleen epaiketa, ezta bi prozesuak nola lotu eta bere artean aurrez aurre jarri ziren moduari dagokionean ere, zuzenbidezko estatua eratzekoan lorpen eta/edo porrotei zegokien bakoitzaren bere ondorioekin.

“Egoerak ezberdinak izan ziren herrialdeen arabera. Hainbat kasutan, trantsizioak segurtasun-indarrak, botere judiziala, informazio-zerbitzuak eta estatuko burokrazia-errepresio aparatuen beste hainbat eremu, besteren artean aldaketa handirik gabe irautea onartu zuen, eremu hauetan erreforma nahiko esanahitsuak sartzeari zilegi izan zen. Gainera, neurri handi batean, lorpenak aldatu egiten dira orden zaharrak prozesu demokratikoari inposatzen dizkion baldintzak sortzen dituzten zailtasunari dagokionean.

## **Genozidioak eta zigorgabetasunak demokraziaren berrezarpenean duen eragina**

Bost gobernu elkarren ondoren etorri dira 1983ko orden konstituzionala berrezarri zenetik eta egoerak aurrera egin badu ere, bereziki gaur egungo gobernu-gestioan, diktaduraren markak eta zigorgabetasunaren eraginak oso presente daude gizarte argentinarrean: 'honek oraindik antza handiegia du kolpe militarreko autoreek irudikatu zutenarekiko' adierazten zuen Eduardo Jozamiki, eta eransten du: 'Latinoamerikan sarrera-banaketari dagokionean ekitate handienagatik nabarmentzen zen herrialde batek, maila ertainen zama eta mugimendu sindikal indartsu baten presentziagatik nabarmentzen zen herrialde bat, gaur aberastasun-maila, langabezia eta gizarte marjinazio kontzentrazio-maila izugarriak erregistratzen ditu. Aldi berean, diktadurak inposatu zuen beldurra ez da ezabatu argentinarren irudimenetik'.

Bestalde, gizarte sektoretan Estatuko terrorismoaren finkapenaren atal giltzei buruzko eztabaidak ere ez dira sakondu, horrela etapa hartako balantzeak orainaldirako ondorio baliotsuak uzten ditu. Are gutxiago aurreratu da genozidioa gizarte praktika bezala hartzerakoan. Gai hauei buruzko gogoeta zintzo eta sakonak gaur egun sektore ugarien aldetik gutxi gora behera 'normaldutako' egoeretan diktadura-etapan indarrean zeuden jarrerak eta balioztapenek duten iraunkortasuna azaltzea zilegi egingo luke, esaterako pobrezia hazkundearen aurrean axolagabetasuna ala gizarte protesta erreprimitzeko baimena eta kartzelako sisteman eskubideak bortxatzekoa.

Gainera, denborak ez ditu itxi errepresioaren zauriak. Agian, neurri handi batean bere ez egoteagatik, desagertuek bizitza argentinarrean presentziarik aztoratzaileena betetzen dutelako, ekintzei buruzko argitzea, gorputzen destinoari buruzko egia eta errudunen zigorrari dagokion erreklamoak eguneratuz.

Giza eskubideei eginiko bortxaketa larrien arduradunen zigorgabetasuna kantsakartzeko saiakera guztiek ez zuten lortu lurralde nazionalean nahiz kanpokoan instantzia judizialak ugaltzea ekiditea, ezta era askotan adierazten jarraitzea ere, eta eremurik ezberdinenetan, justizia eta egiaren aldeko erreklamoak. Egoera honek, zein ezinezkoa bailitzateke giza eskubideetako organizazio defendatzaileen jardute kontsekuente eta iraunkorrik gabe, halaber erakusten du gizarte argentinarreko sektore oso zabaletan ezin dela amaitutzat eman diktadura militarren kapitulua, herrialdean bizitakoetatik gorenetakoa bat.

## **Zigorgabetasuna eratzeko maniobrak, legeak eta politikak**

### **Diktadura militarrean zehar**

1976ko martxoaren 24an ezarritako diktadura militarrek operazio klandestinoak pertsonak ilegalki atxilotzeko, ‘desagertzera’ behartzeko eta burututako ekintzetan bere erantzukizuna ukatzeko baliabide giltza bezala erabili zituen.

Emilio Mignone eta Augusto Conte, diktaturaren aurkako giza baliabideen mugimenduko fundatzaileak, modu egokian adierazi zuten honek bi araudi-planotan jardun zuela. Gobernuko juntari Konstituzio Nazionalari dagokionean erabateko boterea eman zion salbuespeneko legealdi baten bidez erreprimitu zen aldi berean, antolaketa eta jarduera klandestinoen arau-multzo batez osatutako araudi paralelo bat erabili zuen.

Errepresiorako sortutako egitura operatibo paraleloa Indar Armatuaren ohiko organizazioaren egituraren txertatu zen eta biak buruzagitza berdinen mendean egon ziren. Aldamio klandestino hau Indar Armatuetakoa partaide egonkorrez osatuta zegoen, zeini partaide birakari bezala, egitura ‘ofiziala’ri zegozkion kideak eransten baitzitzaizkion, horrela hauek estalduran konprometitzea lortuz. Doktrina klandestinoa goi mailako aginteen aldetik onartua izan zen. Klandestinoki erreprimitu zuten talde operatiboei estatuko beldurraren hornidura eta jarduera burutzea egokitu zitzaien legez kanpoko atxiloteta, presoan desagertze, tortura, atxilotuen semeen identitatea bereganatu eta ordezkatu, lapurreta eta erailketen bidez.

Gobernu militarrek krimen hauen guztien existentzia sistematikoki ukatzeko zuen jarrerak (habeas corpus errefusatu, senideei eta organismoei informazioa ezkutatu, eta abarren bidez burututako ezezkoa) ez zuen jarduera judiziala eta ikerketarena soilik geratu, bere jakineko ondorioekin, aldi berean, Indar Armatuetakoa eta Segurtasunekoetakoa partaide oro susmagarri bilakatu zenez, demokraziaren baldintzekin berregituratzen saiatzeko, diktaduren ondorengo gobernuak erakunde militarren garbiketa eta/edo zegokion justiziaren diktamena exijitu behar izan zuten.

## Trantsizioa

Raúl Alfonsín-en gobernu demokratikoaren lehenengo neurrietako bat zein 1983an bereganatu baitzuen, diktaturako gobernuan jardun zuten hiru Junta Militarretako partaideen epaiketa ezarri zuen dekretua izan zen. Pertsonen Desagertzeari buruzko Batzorde Nazionalak, CONADEP, errepresioiko senide eta biktimen lehenengo salaketak jaso zituen, Justiziako Gorte Goren berriak demokraziara bitarteko trantsizioa baldintzatzeko azkeneko gobernu militarrek diktatutako ‘auto amnistiako legea’ deiturikoa nulua deklaratu zuen bitartean.

Estatuko terrorismoaren erantzuleak epaitzera bideratutako neurri hauek guztiek diktaduraren krimenak zigortu gabe eta bere errepikatzea ekidingo lukeen balantze bat sakondu gabe demokrazia finkatzea ezinezkoa zenaren uste orokorra adierazten zuten. CONADEP-ek burututako ‘Inoiz gehiago ez’ txostenak sinismen hori islatzen zuen.

Komandanteei eginiko epaiketen bidez, gobernuak espero zuen Indar Armatuak bere ‘garbiketa’ propioa burutuko zutela, CONADEP-eko zereginak gizarte zibilari krimenak argitzeko erantzun bat ematea bilatzen zuen bitartean. Hasieran Junta Militarrei epaiketa bat burutzea agindu bazen ere, Indar Armatuetako Kontseilu Gorenak jardueran izan zuen atzerapenaren aurrean, CONSUFA-k, 1985eko apirilean, Hiriburu Federaleko Kriminal nahiz Zentzatzeko arloko Ganbera Federalak prozesuen ardura hartu zuen.

Urte bereko abenduaren 9an sententzia diktatu zuen, Junta Militarretako komandanteetatik bost hilketa-delitu, legez kanpoko askatasun-kentze eta tormentuengatik kondenatuz. Auzitegiak estalitako errepresio-politika exekutatzeko nahita burututako plan sistematiko bat existitzen zela frogatuta egotea onartu zuen hala nola politika hori ‘subertsioa ezabatzeko’ bere kanpainan diktaduraren arma nagusia bilakatu zela. Juntei burututako Epaiketa amaitzean, aurkeztutako 2000 salaketa judizial, eta indarretako 650 kide salatu existitzen zirela ondorioztatzen da, ikerketa judizialik burutu gabe zeinek orduan jarduneko zerbitzuan zeuden kideen heren bati bailegokieke.

Epaiaketako saioen garapenak inpaktu nabarmena eragin zuen: desagertzeak, torturak, haur-lapurreta eta hotzean eginiko erailketak frogatzen zituzten testigantza beldurgarriak, zein imajinatzea zaila den krudeltasun mailetara iristen baitziren, entzun eta zabaldu ziren. Inork ezin izan zuen berriro esan zer gertatu zen ez zekienik. Gainera, atzo arte ahalguztidunak ziren

komandanteak salatuen aulkian eserita egoteak demokraziak iragan diktatorialarekin kontuak doitzeko zuen boterea erakusten zuen: gizarte bat zeinek neurri handi batean ez jakitea hautatu baitzuen, orduan epaitzeko ahalmenarekin sentitu zen.

Epaiketak inoiz ezeztatua ezin izango zatekeen epai historikoa ekarri zuen, 'gure komunitate politiko demokratikoak fundatutako ekintza bat izan zen... zeren giza eskubideak gure oroimenaren materia bilakatu ziren eta halaber gizarte argentinarraren promesa bezala'. Diktaturako krimenen gizarte ikuspegi hau aldatzetik urrun, zigorgabetasun legeek ez zuten berretsi baino egin.

Lehendakari-dekretuak zeinek hiru Indar Armatuetakoko komandanteen prozesatzea agindu baitzuen halaber 70. hamarkadan gatazka armatua garatu zuten gerrillako organizazioetako agintari nagusienak ere barne hartzen zituen. Horrela biak, militarrek eta gerrillariak, indarkeria erabili eta demokraziaren aurka atentatu izanaren arduradunak bezala azaltzen ziren. Baina, organizazio hauei planteatu ahal zaizkien kritikak alde batera utzita, ez da onargarria gertatzen bere eragitea eta sarraski-politika masiboa planifikatzeko Estatuko aparatua ezarri zutenenaren arteko paraleloa.

Bestalde, 'bi demonioen teoria' honek, ezaguna izaten denbora eman zuenez, bi zati txiki antagonikok protagonizatuta bezala aurkezten zen borroka batean gizarte-taldea errugabetzeko balio zuen. Hala ere, errealtatea oso ezberdina izan zen. Kolpe militarrek enpresarien gehiengo nabarmenaren laguntza jaso zuen, Elizak eta gidari politikoek hein handi batek jarrera adeitsu bat izan zuten bitartean; aldi berean, gerrillak, 1975 arte behintzat, babes herrikoia nahiko handia izan zuen. 'Inoiz gehiago ez' txostenak, CONADEP-ek argitaratua zein Ernesto Sábato idazleak zuzendu baitzuen, bertsio honi eusten dio, gaur egun jadanik krisian dagoena, baina azkeneko hamarkadetan prozesu politiko argentinarrari buruzko eztabaida sakontzeko eragozpen bat izan dena eta izaten jarraitzen duena.

Erantzun errepresiboaren bortizkeriak eta honek 'subertsibo'ekin edonolako kolaborazioa izateagatik susmagarri zirenak orokorrean harrapatu izanak, halaber desagertuak 'biktima errugabeak' zirenen ideia baieztatzeraren eraman zuen, errepresioari edonolako zentzuzko helburu kenduaz eta kolpe militarren aurretiazko partaidetza nahiz erradikaltasun prozesu bikainaren existentzia ukatuz. Bestalde, biktimen 'errugabetasun' baieztapen honek beste albo arriskutsuago bat zeukan. Militantzia onartua zeukatenak

‘errugabe’ bezala kontsideratu ezin zirenez, halako sen on erreakzionario batek esan ahal zukeen kasu hauetan bahitura, heriotza eta tortura ez liratekeela hain kondenagarriak.

Epaiketak komandante buruei emandako kondenak ereduako izaera bat zeukan, baina asko ziren maila altu eta baxuko militarrek zein giza eskubideen bortxaketetan nahasita baitzeuden. Hauek Justizian aipatuak izaten hasi zirenean, hainbat ofizialen men ez egiteak eta besteek hauek erreprimitzeko zuten gogo urriak altxatze militarren mamua berriro ezarri zuten.

Presio militarrek Amaiera Puntua deituriko legearen zigorra lortu zuen zeinek epe bat ezartzen baitzuen zeinetatik abiatuta dei judizialek amaitu egin behar baitzuten. Baina ez zen nahikoa izan prozesatze-aginduak ugaltzea ekiditeko. Paradoxa moduan, hilabete barru, giza eskubideetako organismoen lanari, biktimen senideek eginikoari eta hainbat epaileen konpromisoari esker, justiziaren aurrean konta ezin ahala salaketa errotzea eta ehunka prozesamendu ekoiztea lortu zen.

Legea gobernuko estrategiaren auka jarri zen, eremu militarrekin zituen bere harremanak okertu ziren eta politikoki ospea kendu zion. Esparru honetan ‘Aste Santuko’ altxatze militarra gertatu zen, 1987ko apirilean, zeinetan uniformea zerabiltenek diktadurako krimenatarako amnistia bat eta goi mailako aginte militarren erreleboa eskatu baitzuten.

Hainbat egun geroago, Bidezko Esanekotasunaren legeak goragoko aginduak jarraituz jardun zuten haiek guztiak errugabetu zituen.

Arau honen bidez epaileei, aurkakoaren frogarik onartu gabe, ofizial buruek, mendeko ofizialek, ofizialordeek nahiz Indar Armatueto tropako pertsonalak, Segurutasunekoek, polizialek eta presondegikoek, zeinek diktaduran zehar terrorismoa erreprimitzeko alegatutako arrazoiarekin jardun baitzuten, autoritate gorenaren hertsadurapean aginduak beteaz jokatu zutela esatera behartu zitzairen. Presuntzio hau aplikatu egin behar zen nahiz eta aurkakoaren frogak existitu izan. Horrela militar hauek erantzukizun penaletik salbuetsita geratu ziren.

Zigorgabetasun-legeei bere berrespenetik aurka egin zitzairen. Amaiera Puntuaren legea amaitzear dagoen nahiz baldintzapeko amnistia bat bezala kontsideratu izan da, zeren jarduera penala deuseztatu egiten zen inputatua

60 eguneko epean justiziaren aurrean deitua ez bazen. Bere konstituzio izaera seriozki zalantzan jarria izan zen Justizia argentinarreko Gorte Gorenaren ohiko doktrinaren arabera. Bidezko Esanekotasunari dagokionean beti esan izan zen, beste argudioen artean, epaiketa-jardueran aintzat hartu beharko zatekeen justifikazio-kausa bat dela, eta horregatik esan zen zigor parlamentarioak Botere Judizialaren ahalmenak inbaditzen zituela.

Ondoren, Carlos Menem-en gobernuak zigortutako indultuaren dekretuek Juntei eginiko Epaiketan zigor zorrotzetara kondenatutako komandante buruak liberatu zituzten eta Bidezko Esanekotasunaren legean babestu ezin ahal ziren beste goi mailako buru batzuen zigorgabetasuna kotsakratu zuten.

Genozidioaren arduradunen onurarako izan zen legealdiak deliturik larrienak kondenatzeko bere ezintasuna aitortzen zuen ordenamendu juridiko oso bat zalantzan jarri zuen eta zigorgabetasun-sentsazio orokor bat sortu zuen zein 90. hamarkadan sakondu beharko baitzatekeen, ustelkeria ofizialarekin lotutako oso zabaldutako hainbat odolezko pasarte erabat ez argitzeagatik.

Indultuak erreakzio oso garrantzitsua sortu bazuen ere 'biztanleriaren gehiengoak neurri horiek eusten zituen baketze nazionalari buruzko diskurtoa bereganatu ez zuelako' orduan pentsatu ahal izan zen militar genozidak epaitu eta zigortzeko aukera guztiak itxita geratu zirela eta etsipenaren sentipen orokor bat zabaldu zen, giza eskubideen organismotako mobilizazioak eta erreklamoak inoiz eten ez baziren ere.

Bestalde, zigorgabetasun-legeak diktatzea eta indultu-dekretua, 1200 militar eta segurtasuneko indarren onurarako izan ziren: erakunde militarretan ez ziren espedienteak ireki eta justiziak ez zuen eskurik hartu erantzukizunak determinatzerakoan. Kausa judizialen amaierak indarren garbiketa instituzionala aurrera eramatea ekidin zuen, zeinetan karguen banaketa legearen bermekin eratutako froga batean oinarritutako neurri osagarri bat izango baitzatekeen.

### **Genoziden zigorgabetasunaren aurkako borrokak, lorpenak eta zailtasunak**

Argentinako Justiziako Gorte Gorenak Amaiera Puntua eta Bidezko Esanekotasun legeak nahiz indultu-dekretuen konstituzionaltasuna baliozkotu zuen, baina 1992an Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak irizpide ezberdin bat defendatu zuen, lege hori Gizakiaren Eskubide eta

Betebarren Adierazpen Amerikarrarekin eta Giza Eskubideen Konbentzio Amerikarrarekin bateraezina zela ulertuz. Aukera horretan gobernu argentinarari aholkatu zion biktimei konpentsazio bat eman ziezaiola eta ekintzak argitzen nahiz arduradunak banaka bilatzen aurrera jarraitu zedila, bidea lege zuzentzaileak nahiz “egiaren aldeko epaiketak” gauzatzeko irekita geratuz.

1995ean, itsasgizon baten adierazpenek, Adolfo Scilingo itsasontzi-kapitaina, zeinek jakinarazi baitzuen desagertuak Río de la Plata deiturikora jaurtiak izan zirela, hainbesteko oihartzuna izan zuten ezen Ejertzitoko Estatu Nagusiko buruaren aldetik erabaki bat eragin zuen onartuz Indar Armatuak ekintza zentzugabeak burutu zituela. Martín Balza jeneralaren autokritika orokor honek eragindako polemikatik harantzago, bere zintzotasun eta sakontasun nahiz bere helburu politikoei dagokionean, egia da diktaduraren politika zigorgabetasunaren legeen aldetik itxita egotetik urrun zegoenaren froga bat eratu zuela. Hurrengo urtean, kolpe militarretik 20 urte betetzen zirenean, errefus-ekintzak jendetsuak izan ziren eta komunikabideetan diktadurari dagokionean erabat kondenatzailea zen tonu bat inposatu zen.

